

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua

2020/2021 ikasturtea

ENPRESA ZOMBIAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTEAN

Egilea: Eider Uriarte Epelde

Zuzendaria: Sara Urionabarrenetxea Zabalandikoetxea

Bilbo, 2021(e)ko ekainaren 24(a)



EGIKARITZE LABURPENA

Lan honen helburua zombie enpresek Euskal Autonomia Erkidegoan 2009-2020 aldian izan duten egoera aztertzea eta pandemiak mota horretako enpresen hedapenean nola eragin duen ikustea da. Lehenik eta behin, alderdi teorikoak landu dira zombie kontzeptua argitzeko, besteak beste, haren historia, ezaugarriak, kausak eta gizartean sortzen duten eragina. Ondoren, azken 10 urteetan, EAEko azterketa egin da, zombieek izan duten bilakaera aztertuz eta gehien erasandako probintziak zein zombifikatuena diren sektoreak ikusi ahal izan da. Era berean, lortutako emaitzak grafikoetan, tauletan eta irudietan sailkatu dira. Jarraian, komunitate honen egoera beste erkidego batzuekin alderatu ahal izateko, SABIren datu basean eskuragarri dagoen azken urtea hartu da erreferentzia gisa, hau da, 2019. urtea. Horrela, modu objektiboagoan aztertu ahal izan dira aurretik lortutako datuak. Bestalde, COVID-19aren egoerari buruzko informazioa lortzeko, hainbat elkarrizketa burutu dira. Amaitzeko, ondorioak atera eta egoera hobetzeko konponbide batzuk proposatu dira.

Hitz gakoak

Zombiak, koronabirusa, sektoreak, bilakaera, Euskal Autonomia Erkidegoa

El objetivo de este trabajo ha sido analizar la situación de las empresas zombies en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) durante los años 2009-2020 y observar cómo ha afectado la pandemia en la propagación de este tipo de empresas. En primer lugar, se han trabajado aspectos teóricos para aclarar el concepto zombie; entre otros, su historia, características, causas y el efecto que crean en la sociedad. Después, se ha efectuado un análisis de la CAV en los últimos 10 años, pudiendo ver la evolución que han tenido las zombies, las provincias más afectadas incluso los sectores que están más zombificados. A su vez, los resultados obtenidos se han clasificado en gráficos, tablas e imágenes. A continuación, para poder comparar la situación de esta con otras comunidades, se ha cogido de referencia el último año disponible en la base de datos de SABI, es decir, el año 2019. Así mismo, se ha podido analizar de una manera más objetiva los datos obtenidos anteriormente. Por otro lado, para conseguir información sobre la situación del COVID-19, se han realizado varias entrevistas estructuradas. Para finalizar, se han sacado conclusiones y se han propuesto algunas soluciones para mejorar la situación.

Palabras claves

Zombies, coronavirus, sectores, evolución, Comunidad Autónoma Vasca

The aim of this work has been to analyse the situation of zombie companies in the Basque Autonomous Community (BAC) during the years 2009-2020 and to observe how the pandemic has affected the spread of this type of company. Firstly, theoretical aspects were worked on to clarify the zombie concept, including its history, characteristics, causes and the effect they create in society. Then, an analysis of the BAC over the last 10 years was carried out, showing the evolution of zombies, the provinces most affected and even the sectors that are most zombified. In turn, the results obtained have been classified in graphs, tables, and images. Then, in order to compare the situation of this with other communities, the last year available in the SABI database, i.e. 2019, has been taken as a

reference. In this way, it has been possible to analyse the data obtained previously in a more objective way. On the other hand, in order to obtain information on the situation of COVID-19, several structured interviews were carried out. Finally, conclusions were drawn, and some solutions were proposed to improve the situation.

Keywords

Zombies, coronavirus, sectors, evolution, Basque Autonomous Community

Aurkibidea

1.SARRERA.....	7
1.1 GAIA HAUTATZEKO ARRAZOIAK.....	7
1.2 XEDEA.....	7
1.3 METODOLOGIA.....	8
2. ENPRESA ZOMBIEN JATORRIA, IDENTIFIKAZIOA ETA BILAKAERA.....	10
2.1 ENPRESA ZOMBIEN HISTORIA	10
2.2 IDENTIFIKAZIOA ETA EZAUGARRIAK	12
2.3 ZERGATIAK	15
3.ZELAKO EFEKTUA SORTZEN DUTE ENPRESA ZOMBIEK GURE GIZARTEAN?	15
3.1 GIZARTEAN NOLAKO ERAGINA SORTZEN DU.....	15
3.2 SEKTORE DESBERDINETAN DUEN ERAGINA	17
4. ENPRESA ZOMBIEN BILAKAERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN AZKEN 10 URTEETAN ETA ALDERAKETA BESTE KOMUNITATE BATZUEKIN	18
4.1 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IZAN DUEN BILAKAERA.....	18
4.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOERA 2019. URTEAN	29
4.3 BESTE KOMUNITATE BATZUETAKO BILAKAERA ETA KONPARAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIN	34
4.3.1 MADRIL	35
4.3.2 KATALUNIA.....	38
4.3.3 ANDALUZIA.....	42
5.COVID	47
5.1 COVIDAK NOLA ERAGIN AHAL DUEN MOTA HONETAKO ENPRESEN PROPAGAZIOAN.....	51
5.2 PANDEMIAREN ONDORIOZ ZELAKO ERAGINA IZANGO DUTE ZOMBIEK GURE GIZARTEAN	53
6.ONDORIOAK.....	55
7. BIBLIOGRAFIA	58
8. ERANSKINAK	64

Grafikoen Aurkibidea

1.Grafikoa: 2021.urtean, Espainia mailan, enpresa zombien eragina sektoreka.	18
2.Grafikoa: Enpresa zombiak Euskal Autonomia Erkidegoan 2009-2019. urteetan.....	19
3.Grafikoa: Enpresa zombien bilakaera probintziaka 2009-2019. urteetan (%)	21
4.Grafikoa: 2019. urtea enpresa zombiak Euskal Autonomia Erkidegoko probintzietan	30
5.Grafikoa: Probintzien baliabide propio negatiboa (0 €, -10.000€) bitartean, 2019. urtean.	31
6.Grafikoa: 2019. urtean enpresa zombiak Kataluniako probintzietan	38
7.Grafikoa: 2019. urtea enpresa zombiak Andaluziako probintzietan	42
8.Grafikoa: COVID-19a dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak dituzten likidezia arazoak	51
9.Grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak laguntza publikoak jasotzearen ehunekoa	54

Taulen Aurkibidea

1.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide propioak 2009.urteetik 2019. urtera. 20	
2.Taula: Enpresa zombiak, Probintzia bakoitzeko guztizko enpresekin alderatuta 2009-2019. urteetan	22
3.Taula: 2009. urteetik 2019. urterako zombien baliabide propioak probintziaka	23
4.Taula: 2009. urteetik 2019. urterako zombien baliabide propioen tarteak ehunekoetan24	
5.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombiak sektoreka 2009tik 2020ra... 25	
6.Taula: Euskal Autonomía Erkidegoko enpresa zombiak sektoreka eta baliabide propioak kontuan hartuta 2009. urteetik 2020. urtera	26
7 Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko ratioa sektoreka 2012, 2015 eta 2017. urteetan	26
8.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombiak, sektoreka eta baliabide propioak kontuan hartuta 2012, 2015 eta 2017. urteetan	27
9.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombiak, sektore nabarietan 2009-2019	27
10.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombien ratioa, sektore nabarietan 2012, 2015 eta 2017. urteetan.....	28
11.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko probintzien enpresa zombiak, ratioen azterketa eta baliabide propioak 2019. urtean.....	30
12.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko komunitatean enpresa zombiak eta baliabide propioak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta.	32
13.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoan dauden enpresa zombien ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean.....	33

14. Taula: Espainiako zombiak 2021. urteko otsailean.....	34
15. Taula: Madrilgo komunitatean enpresa zombiak eta baliabide propioak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta.....	35
16. Taula: Madrilen dauden enpresa zombien ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean.....	37
17. Taula: Kataluniako probintzien ratioak 2019. urtean.....	39
18. Taula: Kataluniako komunitatean enpresa zombiak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta.....	40
19. Taula: Katalunian dauden enpresa zombien ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean.....	41
20. Taula: Andaluziako probintzien ratioak eta baliabide propioak 2019. urtean.....	43
21. Taula: Andaluziako komunitatean enpresa zombiak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta.....	44
22. Taula: Andaluzian dauden enpresa zombien ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean.....	45
23. Taula: Baliabide propioak 2019. urtean EAEan, Madrilen, Katalunian eta Andaluzian (%).....	46
24. Taula: Komunitateen arteko konparazio taula 2019. urtean.....	47
25. Taula: Elkarrizketatu ditudan adituen profilak.....	48

Irudien Aurkibidea

1. Irudia: Fase analitiko-sintetikoaren adierazpen grafikoa.....	9
2. Irudia: Enpresa zombie bilakatzeko 3 faseak.....	13

1.SARRERA

Funts negatiboak dituzten enpresak gero eta gehiago dira gure gizartean, egoera benetan kezkarria izanik. Izan ere, konkurtsoan sartu eta likidatu beharrean, atzeraelikatzeen jarraitzen ditugu, zorra birfinantzatzu eta laguntzak emanez, gertatu beharko litzatekeen prozesua gerta ez dadin. Horrela, merkatuan mantentzeko erraztasunaz baliatzen dira, finantza egoera osasuntsua duten enpresek egin zitzaketen jarduerak eginez.

Gainera, zombiek hedatzen jarraitzen dute, agintariek irtenbide argirik eman gabe eta arazoa are gehiago larriagotuz. Horri gehitzen badiogu, oraindik zombien teoria garatzen ari dela, Europako ebidentzia oso eskasa dela eta zombiei buruz gure hizkuntzan dugun literatura urria dela, esan daiteke funtsezkoa zela gai honi buruzko analisisa egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ezagutzera emateko.

Adierazi nahiko nuke, modu pertsonalean egiaztatu ahal izan dudala ere, zombie enpresen inguruan kontzientzia gutxi dagoela herritarren artean. Izan ere, gradu amaierako lanean jorratuko nuen gaia nire ingurukoei azaltzerakoan, gehienek ez zuten ezagutzen zombie enpresen kontzeptua eta, are gutxiago, gure gizartean sortzen ari zuten arazoa. Hori guztia kontuan hartuz, zombien garrantzia ezagutzera ematea dokumentu honen bitartez funtsezkoa dela uste dut.

1.1 GAIA HAUTATZEKO ARRAZOIAK

Zombie enpresek gero eta garrantzi handiagoa dute esparru politikoan zein akademikoan, eta nahiz eta enpresa zombien kontzeptua ezezaguna izan, pandemiaren ondorioz arreta handiagoa jartzen ari da. Izan ere, COVID-19a dela, eta kontsumitzaileen lehentasunak zein ohiturak aldatu egin dira. Horren ondorioz, sektore batzuk indartsu ateratzen ari dira eta, aldiz, beste batzuk beraien jarduera moldatzen hasi berri dute, eskari berria asetzeko asmoz.

Beraz, enpresa edo sektore batzuk zaharrituta geratuko dira eta horiek modu jarraituan erreskatatzea arriskutsua izan daiteke gure gizarterako. Horregatik, esan daiteke, zombifikazioarekiko kezka handitzen ari dela, gaur egun dagoen egoera dela eta.

Argi dago, pil-pilean dagoen gaia dela, eta erabakigarria izan daitekeela gure etorkizunerako. Gainera, lehen adierazi dudan moduan gai honi buruz ez dago informazio nahikorik eta herritarrok zein gobernuek kezkatu beharko gintuzkeen gaia da. Izan ere, pandemiatik berreskuratzeko gakoetako bat izan daiteke enpresa zombien kudeaketa egokia garatzea.

1.2 XEDEA

Testuinguru honen aurrean, lan honen bidez, enpresa zombien kontzeptuari buruzko ezagutza zabaltzeko nahia dago. Zentzu honetan lanak, helburu bikoitza du, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartean zombie enpresak izandako bilakaera azkenengo urteetan aztertzea eta bestetik, pandemiak mota honetako enpresen hazkundera izan dezakeen eragina analizatzea.

Azaldutako helburuak burutu ahal izateko, honako azpihelburu hauek finkatu dira:

1. Zombie enpresen testuingurua aztertu haren historia, ezaugarriak eta zergatiak deskribatuz.
2. Mota honetako enpresak gizartean sortzen duten efektua aztertu. Horretarako, sektore desberdinetan izan duen eragina aztertuko da, haren eragin maila ezagutu ahal izateko.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan egon den bilakaera kontrastatuko da azken 10 urteetako datuetan oinarrituz. Bestetik, azken urteko datuak beste komunitate batzuekin, hala nola Madril, Katalunia eta Andaluziarekin, alderaketa egingo da.
4. Gaurko pandemiak enpresa hauen hazkundean nola eragin dezakeen behatuko da, propagazio horretan zelako eragin zuzena eduki dezakeen aztertuz eta halaber, faktore hori enpresa mota horien hedapenean duen garrantzia aztertuz.

Azkenik, ondorio garrantzitsuenak landuko dira, besteak beste, sortu dituzten atzerapenak ekonomian, produktibitatean eragin dituzten murrizketak, enpresa osasuntsuak garatzerako orduan eragin dituzten oztopoak eta pandemia izan dituen ondorioak.


1.3 METODOLOGIA

Gratu Amaierako Lan honetan planteatutako helburuak lortzeko, metodologia analitiko-sintetikoa erabiliko da. Honi dagokionez, lehenengo garatu beharreko azterketaren objektua elementu osagarrietan banatu behar da, ondoren bakoitza banan-banan aztertzeko. Beraz, metodologia honetaz baliatuz, aztergaiaren aldeak deskonposatuko ditugu; horretarako, hiru alderdi desberdinduko dira, 1. Irudian azter daitekenez.

Alde batetik, zati teorikoa egongo litzateke, enpresa zombien kontzeptua azaltzeko asmoz. Horretarako, enpresa zombien inguruko informazioa azaltzen duten artikuluetara jo behar izan dut. Baita ere, aldizkari zein egunkari desberdinetako berrien informazioa aztertu behar izan da. Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan zombie enpresek izan duten bilakaera aztertzeko eta beste komunitateekin alderaketa egiteko, SABI, Eustat zein INE-ko datu baseak erabili ditut.

Azkenik, COVID-19ak enpresa zombien propagazioan eta gizartean izandako eraginak aztertzeko helburua nuenez, aditu batzuekin elkarrizketak burutu ditut. Izan ere, metodo horren bitartez, gaur egunean ematen ari den egoeraren informazio zehatza lortu ahal izan dut, ikuspuntu desberdinetatik.

1.Irudia: Fase analitiko-sintetikoaren adierazpen grafikoa.



Iturria: Norberak eginda.

Azaldu dudan moduan, lehenengo atala teorikoa denez, iturri desberdinetako informazioa bilatu behar izan dut. Horretarako, unibertsitateak gomendatutako lotura bibliografikoak eta plataformak erabili ditut. Baita ere, informazio iturri zientifikoak, fidagarriak eta kalitatezkoak hautatu ditut, gehienak saretik aterata. Gainera, Sara Urionabarrenetxearen lanek eta berak bidalitako artikuluek hainbat zentzutan lagundu izan didate. Izan ere, kontzeptua modu sakon batean ulertzeko, lanean barneratu behar nituen ideiak jakiteko eta iturriak lortzeko baliagarriak izan zaizkit. Baina, aipatu beharra dago, gai honi buruzko informazio gutxi dagoela, eta horrek lana hainbat aspektutan zaildu egin duela. Batez ere, beste herrialde batzuetako ikerketak, analisiak eta bestelako informazioa topatu izan dut, baina Espainia mailako datu zein artikulua gutxi aurkitu ditut. Beraz, artikulua asko bilatu eta irakurri ondoren, nire ustez baliagarriak diren atalez baliatu naiz, nire azterketa propioa sortuz.

Bigarren atalari dagokionez eta lan enpirikoa garatzeko, Euskal Herriko Unibertsitateak duen SABI datu basea erabili dut gehienbat. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan 2009. urtetik 2020. urtera emandako zombifikazioaren bilakaera aztertu dut, azkenengo hamar urteetako informazioa bilduz. Horretarako, soilik muturreko zombietan zentratu naiz. Baina, EAeko egoera modu erlatibo batean ikusteko, 2019. urteko datuak beste komunitate batzuetatik lortutako datuekin alderatu ditut. Komunitateak hautatzeko, Informak 2021. urtean argitaratutako sailkapena erabili dut. Bertan, Andaluzia, Madril eta Katalunia zombien presentzia altuarekin agertzen ziren eta horregatik aukeratu izan ditut, aurretik aipatutako autonomia erkidegoarekin alderatzeko. Baina, batez ere, EAeko kasua xehetasunez aztertuko da arazoaren tamaina ezagutu ahal izateko. Hau da, zombie enpresen baliabide propio negatiboak zein gure ekonomian daukaten bolumena jakiteko, bai eta sektoreari eta probintziari buruzko xehetasun batzuk ere, hori guztia SABI, INE eta Eustateko datu baseetatik datozen datuak erabiliz. Hori burutzeko hainbat filtro erabili

dira: probintziak, CNAE 2009, baliabide propioak, enplegu-tasa etab. eta informazio guzti hori, grafikoetan, irudietan zein tauletan bildu ditut, zombien eragina aztertu ahal izateko.

Azkenik, hirugarren atala burutzeko, bost adituei egiturazko elkarrizketak burutu zaie. Izan ere, Corbettak (2007) adierazten duen moduan, “elkarrizketak, teknika osagarri gisa, aukera ematen du bigarren mailako datuen iturrietan edo behaketan ez dagoen edo ezin den informazio zehatz eta zehatzerako sarbidea izatea”. Beraz, teknika honen bitartez, zombien arazoa ikuspuntu desberdinetatik ezagutu ahal izan dut, bestelako iturriek ematen ez duten informazioa lortuz.

Egiturazko elkarrizketa erabili dut, gai berdinari buruzko ikuspegi desberdinak lortu nahi izan ditudalako eta, horregatik, gidoi bakarra jarraitu dut, egindako bederatzi galderetatik atera ez zitezen. Izan ere, azken puntuko helburuetan planteatutako galderei erantzutea zen helburu nagusia, baita beraien erantzunetatik ondorioak ateratzea ere. Beraz, azterlanean, elkarrizketak egitea baliagarria izan zaizkit, enpresen edo erakunde publikoen egungo egoera ikuspuntu hurbilago batetik ezagutzeko. Lehen azaldu dudana bezala, bost elkarrizketa egin dira, modu batera edo bestera, pandemiaren eragina jasan duten eta zombie enpresen kontzeptua ezagutzen duten emakume zein gizonei. Gainera, arlo desberdinetako profesionalak direnez, erantzun desberdinak ematen dituzte, emaitza subjektiboak lortuz. Horregatik, elkarrizketa bat baino gehiago burutu dut, ikuspuntu desberdinak alderatzeko.

Galdera batzuk formulatzeko, Informak zein Iberinformek egindako azterketaz baliatu naiz, elkarrizketatuei datu fidagarriak emateko eta, aldi berean, EAEan dagoen egoeraz informatzeko.

Oro har, metodologia honetan oinarritu naiz: aurretik galderak prestatu, elkarrizketatuko ditudan pertsonen emailaren bidez edo LinkedIn bitartez kontaktatu, galderak euskaraz zein gazteleraz bidali eta ondoren egun bat finkatu elkarrizketa egiteko. Esan beharra daukat, bost adituetatik soilik bik onartu didatela elkarrizketa modu telematikoko batean egitea (koronabirusa dela eta, elkarrizketak Skype edo BBcA erabiliz egitea modurik egokiena iruditu zitzaidan), besteak aldiz, galderei idatziz erantzun didate.

Egia da batzuetan erantzunak laburrak izan direla, hala ere, informazio nahikoa eduki dudala azpimarratu nahiko nuke. Modu telematikoko batean burututako elkarrizketak erregistratzeko, grabagailua erabili dut, lehendik adituei galdetuz eta informatuz. Bi kasuetan ez didate oztoporik jarri. Behin elkarrizketak grabatuta edo idatziz jasota, ordenagailuan euskarara itzultzen nituen, Leire San Joserena izan ezik, euskaraz egindako elkarrizketa izan delako. Transkripzioa egiterako orduan, informazioa ematen zuten hitz guztiak idatzi ditut, albo batera utziz zizakadurak eta makulu-hitzak, informazioa manipulatu gabe.

2. ENPRESA ZOMBIEN JATORRIA, IDENTIFIKAZIOA ETA BILAKAERA

2.1 ENPRESA ZOMBIEN HISTORIA

Enpresa zombie kontzeptua, 80ko hamarkadaren bigarren erdian Amerikako Estatu Batuetako Aurrezki eta Mailegu konpainien krisiak eragindako finantza-erakundeei aplikatu zitzaizen lehen aldiz. Hala ere, Japonian izan zen mota honetako enpresen agerpen masiboa “Galdutako Hamarkada” gisa ezagututako denboraldian. Ricardo Caballero

autoreak (Caballero et.al ,2008) , kontzeptu hau aztertu zuen lehena izan zen, ondoren Takeo Hoshi (Hoshi, 2006) Japoniako zombie enpresen auzia nabarmendu zuen zenbait ekarpenetan.

Bertako banku zentralak interes tasak igotzeko erabakia hartu zuen, higiezin eta burtsaren inguruan sortutako burbuila kentzeko ahalegin berantiar batean. Honen emaitza, aktiboen prezioen beherakada izan zen eta horrek enpresen zein bankuen kapitalean balio-galera eragina zuen (Burachik, 2017).

Japoniar Bankuak interes tasen jaitsierari ekin zion 1991-1995 urteen bitartean eta horrekin batera, inflazio tasean beherakada nabaria gertatu zen. Honek finantza testuinguru kaltegarri bat sortu zuen zordun zein banku hartzekodunentzako. Gainera, hazkunde-tasa ia zeroraino jaitsi zen, eta langabezia-tasa, tradizionalki txikia izan zena beste ekonomia batzuekin alderatuta, gradualki igo zen (Hoshi, 2006).

Krisiaren hasieran, bankuek, aurre egin ahal izan zieten higiezin sektoreari lotuta zeuden galerei, beste enpresa batzuetan zituzten akzioak salduz (Burachik, 2017). Hau da, hasiera batean, bankuek akzio gurutzatuen salmentatik eta berrerasketatik zetozen kapital-irabaziak erabili zituzten maileguen galerak estaltzeko (Hoshi, 2006).

Baina, burtsa merkatuaren erorketak, amaiera eman zion funts iturri honi, horrela bankuek mailegu kobraezinak sortutako galerei, aurre egiteko kapitalik gabe geratu ziren (Burachik, 2017). Beraz, zentzuzkoa zen bankuek mailegu-hartzaileei laguntzea, interesak emanez eta zorraren zati bat barkatuz; horrela, bankuek mailegu horiek kobragarri gisa sailka zitzaketen. Baina emaitza "zombie enpresen" agerpena izan zen eta Kaneren esanetara (2000) finantza entitate horietako batzuk "zombiak" ere baziren (Hoshi, 2006).

1995. urtean, Japoniako Bankua mailegu-emaile gisa esku hartzen hasi zen; bankuei kredituak luzatuz eta banku-gordailuak bermatzen zituzten erakundeei funtsak emanez. Hiru urte geroago, legeri berri bat onartu zen bankuen erreskatea burutzeko (Kuttner, 2014). Politika honen emaitza sektore zabal bat eratzea izan zen: kaudimengabe eta berreskuratzeko aukera eskasa zuten enpresak, baina jarduerarekin aurrera jarraitzen zutenak bankuen barkaberatasunari eta gobernuen laguntzari esker. Horrela, bankuek, enpresa mota horiei kredituak ematen jarraitzen zuten bideragarriak izan ez arren (Burachik, 2017).

Lortutako efektua kaltegarria izanik, izan ere Caballerok (2008) adierazten duen moduan, zombie gisa identifikatutako enpresek produktibitatea murrizten dute presentzia handiagoa duten sektoreetan, eta beren lehiakide errentagarrienen inbertsioa eta enpleguaren hazkundera murriztea lortzen dute, kapitala eta giza baliabideak berresleitzea eragozten baitute. Emaitza horien ondorioz enpresa osasuntsu batzuk zombie bihurtzen ziren eta benetan aurrera egin ahal duten eta inbertitu nahi dutenei maileguak eman beharrean, mota horretako enpresetan dirua galduz (Caballero et. al, 2018).

Japoniako ekonomian sortutako "zombien kutsaduraren" arazoa gainditu gabe, epidemia, Europar Batasunera hedatu egin zen momentu larrietariko batean. Burachik (2017) azaltzen duenez, prozesua modu berdintsuan hasi zen: hedapen erlatiboko fase bat, zorpetze pribatuaren gorakada handi batean oinarrituta, 2008. urteko krisi finantzarioari bidea emanez. Kreditu kobraezinen igoerari erantzuteko asmoarekin, Banku Zentralak,

Europako Bankuak eta Ingalaterrako Bankuak, hainbat programa bultzatu zituzten bankuei lagundu ahal izateko. Horrek, kutxen barkaberatasuna ekarri zuen, hau da, zombie enpresa europarren segmentu zabal bat sortzea (Burachik, 2017).

Adibidez, 2011an, Espainian, Italian eta Portugalen konpainiek % 40tik gorako zorpetze-maila zuten. Are gehiago, aipatutako lurralde bakoitzaren zorraren guztizkotik, %40, %30 eta %50, hurrenez hurren, kreditu-epemugei aurre egin ahal izateko behar ziren diru-sarrerak ez zituzten enpresei zegozkien, eta soilik, interesen ehuneko jakin bat estali ahal zuten (Maudos eta Fernández de Guevara, 2014).

Hurrengo urtean, Europako Banku Zentralak, OMT (Zuzeneko moneta transakzioak) izeneko programa bat martxan jarri zuen. Acharyak (2016) Europako bankuek emandako zeharkako diru-laguntza gisa interpretatzen du. Egile hauen esanetara, programaren onuradun nagusiak izan ziren bankuak, beraien maileguren eskaintza orokorra handitu zuten baina eskaintza hori batez ere kalitate baxuko enpresetara bideratu zen, banku horiekin lehendik kreditu-harremana zutenei batez ere. Horrela, enpresa ez produktiboei emandako maileguak gora egin zuten OMT programa hasi eta hurrengo aldian, bereziki Italian, Espainian eta Portugalen.

2.2 IDENTIFIKAZIOA ETA EZAUGARRIAK

Gai hau ondo aztertzeko, lehenengo eta behin zehaztu beharra dago nola identifikatu ahal diren mota honetako enpresak eta zein ezaugarri edukitzen dituzten normalean. Baina esan beharra dago, "zombie enpresa" terminoaren definizio desberdinak daudela eta horregatik hainbat autoreren lanetan oinarrituz sozietate hauek definitzen saiatuko gara.

Caballero et al. (2008) izan ziren fenomeno honetaz ohartarazi ziren lehenak eta ondoren, Hoshiaren artikuluari esker (2000), Japoniako ekonomiaren zenbait behatzaileek, haren adarrak partzialki azertu dituzte beraren artikulua oinarri hartuz.


"Zombie" deitzen zaie arlo finantzariotik hilda egon arren, bankuek ematen dizkieten diru laguntzei esker nolabait suspertzen diren enpresak direlako, etengabe duten zorra birfinantzatuz. Hau da, beren zorrak kentzeko adinako mozkin-fluxua sortzeko gai ez direnak baina, hala ere, modu iraunkorrean aktibo mantentzen direnak bezala definitu ahal dira (Hoshi, 2000). Beste hitz batzuetan, hilda egonda bizitzara itzultzen diren enpresak dira, bankuek ematen dizkieten birfinantzazioetatik. Banku hauetako batzuk "zombiak" ere baziren Kaneren esanetara (2000). Kaudimengabeak ziren, baina bizirik iraun zuten erregulazio-tolerantziari esker.

Enpresa hauek mehatxu bat suposatzen dute ekonomia osoarentzako, ez bakarrik beraien berehalako porrotetatik, baizik eta beste sozietate batzuei transferitzen dieten arriskuetatik, haien lehiakortasun maila zein balioa sortzeko gaitasuna txikituz (Ahearne & Shinada, 2005; Caballero et al., 2008).

Banca & Economiaren (2020) esanetara konpainia bat zombie gisa sailkatzera eramaten duten gertaera batzuk daude; hala nola, dagoen egoera ekonomikoa eta Estatuko zein merkataritzako erakundeek emandako erraztasunak, kaudimengabezia jarraitzeko aukera ematen dutenak.

Era berean, historian zehar hiru fase eman dira enpresa bat zombie bilakatzeko: hedapen ekonomikoa, erantzun politikoa eta bankuaren prestutasuna, zailtasunak dituzten maileguak birfinantzatzeko.

2.Irudia: Enpresa zombie bilakatzeko 3 faseak.



Iturria: Norberak eginda

Lehenengo faseak, eszenatoki positibo bat adierazten du, non egonkortasun ekonomiko bat ematen den. Horrek merkatu desberdinetan parte hartzen duen jendearen konfiantza handitzea ekartzen du eta horrekin zorpetze pribatua; Amerikako Estatu Batuetan eta Europar Batasunean gertatu zen bezala, finantza krisia gertatu baino lehen. Baina horren ondorioz, ezegonkortasun seinaleak agertzen hasi ohi dira eta horrekin batera atzeraldia ematen hasten da, aktiboen prezioen beherakada eta kreditu kobraezinen igoera eraginez (Banca & Economía, 2020).

Hurrengo faseak, aldiz, erantzun politikoarekin zerikusia du, izan ere Banca & Economía (2020) adierazten duen moduan, berehalakoa izan behar da, krisia ez zabaltzeko eta arlo sozioekonomikoan kontseilu larriak ekiditeko. Iraganeko krisi garaietan, banku zentralak beraien interes tasak apurka-apurka jaitsi egin zituzten, herrialde batzuetan %0ra helduz. Hala ere, kontsumoa eta inbertsioa ez ziren behar adina dinamizatu ohiko diruzenbatespenekin, eta, beraz, diru-tresna ez konbentzionalekin lotutako neurri gehigarrien alde egin zuten, hala nola finantza-aktiboak erostearen alde, prezioei egonkortasuna emateko eta bankuen erreserbak handitzeko (Banca & Economía, 2020).

Azkenik, hirugarren faseak, zombie enpresa hauen hedapen masiboarekin zerikusia dauka. Izan ere, bankuak prest daude arazoak dituzten maileguak birfinantzatzeko. Horrela, “banku induljentzia” deritzon terminoa agertzen da, hau da, hasierako baldintzak partzialki edo guztira ez betetzearen ondorioz, kreditu baten jatorrizko terminoak berriz negoziatzean datza. Horrekin berandutze txostenak ekidin nahi dira eta enpresei “periodos de gracia” eskaintzen zaizkie. Azken hau garrantzitsuena izanez, hain zuzen ere, baldintza horiek enpresa hauen hedapena babesten dute, enpresei emandako kredituen birfinantzaketak enpresa horiek finantza aurkako egoeretan ere jardutea baimentzen duelarik (Banca & Economía, 2020).

Adaleten (2018) esanetara, “enpresa bat zombie gisa identifikatzen da hiru urtez jarraian interesen estaldura¹ indizea bat baino txikiagoa bada”. Modu zehatzagoan, enpresa bat zombie enpresa gisa definitzen da, baldin eta 10 urte edo gehiago baditu eta hiru urtez jarraian interesen estaldura-indize bat baino txikiagoa badu. Adinaren murrizketa ezartzen da, errentagarritasun neurriak soilik begiratzen baditugu, enpresa zombiak eta enpresa berritzaile gazteak bereiztea zaila izan daitekeelako (Adalet, 2018).

¹Interesen estaldura-ratioa (ICR) enpresa batek dituen zorren interesak ordaintzeko duen gaitasuna zehazteko erabiltzen den finantza-ratioa da. EBIT (interesen eta zergen aurreko mozkinak) eta Interesen gastuen (edozein mailegutatik ordaindu beharreko interesak ordezkatzeko dituzte, hala nola bonuak, maileguak, kreditu-lerroak, etab) arteko erlazioa adierazten du.

Baina, Urionabarrenetxeak et al. (2017), emandako definizio tradizional honetatik oinarrituz, muturreko zombiak deitutako kontzeptua azaltzen dute. Hau da, baliabide propio negatiboak eta ondare osoa galdu arren, bere jarduerarekin jarraitzen duten enpresak dira mota honetako zombiak.

Horren harira jo dezakegu sozietate hauen ezaugarriak definitzera. Esan daiteke enpresaren finantza baldintzak hartzen direla ezaugarri nagusitzat; hala ere, badira literaturak identifikatutako beste ezaugarri batzuk aurrerago azalduko ditugunak.

Alde batetik, finantza arloarekin zerikusia duten ezaugarri nagusiak honako hauek dira: kontratatutako finantzaketaren ondoriozko betebeharrak ez betetzea (Caballero et al., 2008; Fukuda eta Nakamura, 2011), palankatze finantzario altua izatea eta baliabideen esleipen txarra (Caballero et al., 2008).

Beste alde batetik, finantza arloarekin zerikusirik ez duten ezaugarriak aztertuko ditugu. Lehenengo enpresa baten adina eta tamaina aztertuko dugu. Adaleten (2018) ikerketak jarraituz, 2013an 13 herrialdeetan zombie enpresen batez besteko simple haztatu gabea hartuta, 250 langile edo gehiago dituzten enpresek 20 langile baino gutxiago dituzten enpresek baino ia bi aldiz probabilitate handiagoa dute zombiak izateko. Horren arrazoia izan daiteke enpresa handiek aukera handiagoa dutela bankuaz kanpoko finantzaketa eskuratzeko. Izan ere, sarbide hori oso zaila da enpresa txikientzat (Urionabarrenetxea, 2017), eta lehentasuna ematen zaie enplegu galera ekiditeko, batez ere krisi garaietan.

Gainera, bankuek pizgarriak izan ditzakete enpresa handiak bizirik mantentzeko banku-harremanaren edo banku induljentiaren ondorioz (Agostino et al., 2008). Hau da, erakunde handiek, negoziazio-botere handiagoa dute, merkataritza-harreman estuagoak eta balio ekonomiko handiagoak izaten dituztelako. Horregatik, hartzekodunek nahiago izaten dute baldintza ez hain zorrotzak eskaini, sozietate hauek duten botereagatik.

Bigarrenik, zombie enpresa izateko probabilitatea ere handiagoa da enpresa zaharrentzat gazteentzat baino: 40 urtetik gorako 10 enpresatik bat zombie enpresa da. Izan ere, litekeena da enpresa horiek langile ugari izatea eta bankuen diru-laguntzak jasotzea, berriz ere lehendik azaldukoaren ondorio izanik. Hau da, sozietate hauek duten inpaktua gure ekonomian handiagoa da enpresa hasi berriek dutena baino. Beraz Adalet (2018) esaten duen moduan, hauek bizirik mantentzeko pizgarri handiagoak daude.

Ildo beretik, jarduten duten sektorea erabakigarria izan daiteke mota honetako enpresen agerkuntzan. Aipatzekoa da oso araututa dauden sektoreek, hala nola finantzek, aseguruak eta administrazio publikoak, zombie bihurtzeko probabilitatea txikiagoa izatea espero dela. Aldiz, palankatze handiko sektoreetako enpresek, hala nola eraikuntzakoak edo gutxi araututakoak, aukera gehiago dituzte (Urionabarrenetxea, 2017).

Era berean, kontuan hartu behar den beste ezaugarri bat enpresen kokapena da, antolakuntza-kulturan eragiten duena. Izan ere, enpresa baten portaera, kudeaketa eta estrategia ez da bakarrik tokiko kulturengandik kaltetuta agertzen, baizik eta tokiko baliabideak, azpiegiturak zein gobernuaren kontrolak ere eragiten du. (Urionabarrenetxea, 2017). Hoshik (2016), zombie enpresak metropoli-eremu handietatik kanpo maizago kokatzen direla dio, beharbada finantza-erregulazioko sistemarako

sarbide, ikusgarritasun eta ospe txikiagoa dutelako eta, baita ere, gobernuaren kontrol txikiagoa duelako (Hoshi, 2006).

2.3 ZERGATIAK

Behin zombien ezaugarriak eta identifikazioa azalduta, jo dezagun zergatiak ikustera. Aritu batzuen arabera, hala nola Papworth (2013), pentsatzen du “zombie enpresak ziklo ekonomikoagatik sortzen direla batez ere”. Izan ere, arrisku egoeran dauden enpresek, okerrera egiten dute krisi-garaietan, ageriko faktoreengatik (giro ekonomiko orokorra, salmenta-kopurua, unitateko prezioa, lehia, gobernu-erregulazioak, etab.). Egoera honek mota honetako konpainien sorkuntza bultzatu egiten du eta bankuen jarrerari dagokionez, oparaldian bankuak beren mailegu-zorroak ahalik eta gehien handitzeko irrikaz daude, eta, beraz, erraza da kreditu-boom bat sortzea eta inbertsio-proiektuak finantzatzea, haien arriskua eta bideragarritasuna behar bezala ebaluatu gabe.

Baina krisia ematen denean, finantza-erakundeetatik espero da normalean, emaitza txarrak dituzten enpresei kreditua kentzea eta enpresa horiei prezioa egitea eraginkortasuna hobetzeko edo ixteko. Gauzak horrela, kreditua erabilera produktiboagoetara bideratuko zen (Ahearne eta Shinada, 2005). Hala ere, Papworthek berak (2013) adierazi du hori ez dela gertatzen. Izan ere, emaitza txarrak dituzten enpresei kreditua kendu beharrean, finantza-erakundeek zor kobraezinak birfinantzatzen jarraitzen dute, zailtasunak dituzten enpresei baldintza egokiak emateko, likidatzera behartu beharrean.

Ondorioz, banku ahulak funtsezko kausa posible gisa identifikatu ahal direla esan daiteke (Caballero et al., 2018). Beraien balantzeak hondatzen direnean, bankuek, pizgarriak dituzte bideragarriak ez diren enpresei maileguak birfinantzatzeko, maileguak bertan behera utzi beharrean (Banerjee, 2018).

Horri lotuta, beste arazo potentzial bat eta orokorragoa dena interes tasak dira, izan ere zombiei gainerako enpresei baino interes tasa baxuagoan birfinantzatzen zaie zorra, hau da, abantaila bat eskaintzen zaie. Aurretik esan bezala, finantza entitateak ez du zor galera hori bere gain hartu nahi eta, ondorioz, finantza hobaria eskaintzen zaie. Aldiz, egoera finantzario hobean dauden enpresek, interes tasa altuagoak ordaindu behar dituzte. Horrekin lortzen dena da, enpresa zombiek bizirautea eta haien presentzia ekonomian hedatzea (Adalet, 2018).

Aldi berean, hainbat faktorek arazo honek dimentsio politikoa izan dezakeela iradokitzen dute. Horien artean Adaleten (2018) arabera egiturazko politikaren ahultasuna (adibidez, kaudimengabezi erregimen desegokiak), banku-induljentzia, moneta-politika malgua eta hondatutako banku-sistemak daude. Baita ere, ETE-ei ematen zaien laguntzaren iraunkortasuna, krisiak eragindakoa.

3.ZELAKO EFEKTUA SORTZEN DUTE ENPRESA ZOMBIEK GURE GIZARTEAN?

3.1 GIZARTEAN NOLAKO ERAGINA SORTZEN DU

Enpresa zombien presentziak gure gizartean hainbat gatazka sortu dituela argi dago. Fortuño (2019) adituaren esanetara, “askok horrelako enpresak kostatuta ahala kostatuta

mantendu behar direla pentsa dezakete. Azken finean, enpresa horiek jarduera ekonomiko bati lotuta daude eta, desagertuz gero, langabezia geratuko liratekeen langile kopurua nahiko handia izango litzateke”. Beraz, enpresa zombien presentzia gizartean eragin positibo gisa ikusi daitekeela esan daiteke. Izan ere, langabezia ez dute areagotzen, eta hainbat pertsonen lan postuak mantentzen dituzte.

Baina, ikusi ahal izango dugunez, eragin negatiboa sortzen dute sektorean dauden gainerako enpresentzat, zombiak ez diren beste enpresa batzuen hazkundera mugatzen baitute. Adituak dioen moduan, zombie enpresen proportzio handia duten herrialdeek hazkuntza eta inbertsio dinamika askoz motelagoa izango dute (Fortuño, 2019).

Alde batetik, zombie enpresek zombiak ez diren enpresa osasuntsuei kalte egiten diete eta, muturreko kasuetan, zombie ere bihurtzen dituzte, beldurrezko filmetan gertatzen den bezala. Bankuek enpresa diruz laguntzen dute, interes-emakidak emanez edo zorra zuzenean barkatuz. Kasu batzuetan ere, finantza erakundeak berak kaudimengabeak izan daitezke, eta diru publikoaren babesa izan dezakete. Gainera, zombiak salbatzearen kostu garbia txikiagoa izan daiteke, dauden lanpostuak babestearen etekina kostu horietatik guztietatik kendu behar delako. Hala ere, lanpostuen galera orekatzeko modu bat da, langabeei zuzenean ordaintzarekin alderatuta, adibidez. Baina are garrantzitsuagoa dena, zombiak salbatzeak zeharkako kostu nabarmenak ezartzen dizkio gainerako ekonomiari, eta litekeena da enplegua babestearen onura gainditzea (Hoshi, 2006).

Gainera, Caballerok et al. (2008) azaltzen dute zombien presentziak merkatu berrietan sartzeko edo beren eragiketak zabaltzeko asmoa kentzen dietela enpresa osasuntsu eta produktiboei. Batez ere, enpresa horiek garapen ekonomikoan atzerapen bat eragiten dutelako, merkatuan sarrera hesiak eraginez eta eraginkorrak izan daitezkeen enpresei zailtasunak jarriz (Ahearne eta Shinada, 2005; Urionabarrenetxea et al., 2017).

Bestalde, enplegu sorkuntza murrizten da zombie enpresen proportzio handia dagoen eremuetan, enplegu suntsiketa zein produktibitate maila txikituz. Gainera, aurretik aipatu denez, mota honetako enpresen kopurua hazten doan heinean, inbertsioa gutxitzen joaten da eta, Caballerok et al. (2008) adierazten duten moduan, enpresa osasuntsuen etekinak murrizten dira. Gainera, haien espiritu enpresariala desagertzen doa eta inbertsio berriak ahuldu egiten dira (Urionabarrenetxea et al., 2017).

Era berean, enpresa zombiek arazoa suposatzen dute gizartean. Lehenik eta behin, ez direlako hain produktiboak izaten. Hau da, etekinak handitzeko moduak aurkitu beharrean, maileguak behin eta berriz eskatuz bizirauten dutelako. 2018an, ekonomialari talde bat, Frantziako fabrikatzaileak zenbat eta baldintza laxoagoetan zorpetzen zirenaz eta hainbat eta gutxiago ekoizten zutenaz ohartu ziren. Hori ez litzateke arazoa izango beste enpresa eraginkorrago batzuek lana bera egin ahal izango balute. Baina zombiek, normalean, baliabide urriak kontsumitzeko joera dute (pertsonala, bulego-eraikinak eta kapitala) eta, beraz, enpresa osasuntsuei zailago egiten zaie aurrera jarraitzea (Bloomberg, 2020).

Azkenik, zombie enpresak oso eraginkorrak ez direla aipatu daiteke (Ahearne eta Shinada 2005); hala ere, ez-emankorrak izatea ez da arazo bakarra, ekonomia osoari kalte iraunkorra eragin diezaioketela baizik. Izan ere, enpresa osasuntsuen etekinak murrizten dituzte (Caballero et al., 2008); hala nola, beren interes-taldee edo lehiakideak izan daitezkeenei. Interes-taldee dagokienez, zombie enpresek kreditu-arriskua transferitzen

diete hornitzaileei, hartzekodunei eta baita administrazio publikoari ere (Urionabarrentxea et al., 2021).

Administrazio publikoak eta bankuek, enpresa zombiei emandako babes esplizituari dagokionez, gainerako ekonomian lehia gardena egotea zailtzen dute. Izan ere, lehia desleialeko egoerak sortzen du honek, zombiak ez diren enpresekiko lehia desleialarekin. (Caballero et al., 2008). Horrek, prezioak jaitea edo soldatak lehiakideek baino maila handiagotara igotzea eragin dezake (Hoshi, 2006).

3.2 SEKTORE DESBERDINETAN DUEN ERAGINA

Gizartean duten eragina aztertuta, jo dezagun ikustera sektore desberdinetan zombie enpresak daukaten influentzia. Caballero et al. (2008) esanetara, zombiak askoz zabalduago daude zerbitzu sektorean, manufaktura industrian baino. Izan ere autore honek adierazten du, manufaktura sektorea etengabe dagoela munduko lehiaren mende, eta, beraz, mota horretako enpresak laguntzea potentzialki bankuarentzat oso garestia da. Aitzitik, zerbitzuen sektoreko enpresa gehienek, atzerriko lehia mugatua dute eta gainera, enpresen batez besteko tamaina askoz txikiagoa da. Beraz, errazagoa da zerbitzu sektoreko enpresei laguntzea, industriakoei baino.


Sektoreen arteko aldean azalpenari buruzko aieru hori alde batera utzita, zombiak arazo badira, badirudi eragin handiagoa izango dutela manufakturakoak ez diren industrietan manufakturetan baino (Hoshi, 2011).

Gainera, a priori espero daiteke oso araututa dauden sektoreek hala nola, zerbitzu sektorea osatzen duten enpresek, hondar-efektua izatea, espero den funts propio negatiboaren bolumen txikia dela eta. Aldiz, palanka-efektu handiko sektoreetako enpresek, hala nola bigarren sektorekoak edo gutxi araututa dauden sektoreak zombie enpresak bihurtzeko aukera handiagoa dute (Hoshi, 2006; Urionabarrentxea et al., 2017).

Aurrekoari lotuta, Informaren arabera (2021), Espainia mailan, mota honetako enpresak, batez ere aurretik aipatu ditugun bi sektoreetan kokatzen dira. Hain zuzen ere, bigarren sektorean 12.532 enpresa inguru zombie sozietateak dira, ia %32ra helduz eta Espainian dauden zombien %64,97a zerbitzu sektorean kokatzen dira. Hau da, enpresa zombien presentziaren erdia baino gehiago sektore horietan kokaturik dago, ehuneko txikiena lehen sektorea edukiz %3,354 arekin. Hori da Iberinform Kreditu eta Kauzioaren filialak egindako azterketaren ondorio nagusietako bat, 2018ko eta 2019ko ekitaldiei dagozkien 270.000 kontu baino gehiago aztertu ondoren.

Fenomeno horrek, sektore horietan eragin handia izateko arrazoiak, kutsadura ahalmenarekin lotuta egon daitezke. Ziurrenik, industria txiki eta oso kontzentratuetan, kutsatzea zuzeneko da, eta beraz, ekonomiak negatiboki eragiten die (Urionabarrentxea et al., 2017). Bestetik, eragin txikiagoa izateko arrazoiak izan litezke, agintariak arlo horretan kontrol handia ezartzen dutelako. Are gehiago, oso araututa dauden sektoreak izan ohi dira edo zuzenean gobernuarekin lotura daukatenak. (Urionabarrentxea et al., 2017).

1.Grafikoa: 2021.urtean, Espainia mailan, enpresa zombien eragina sektoreka.



Iturria: Informa (2021) norberak egokituta

Taulari erreparatzen badiogu, ikus daiteke administrazio sektorea guztizkoaren %0,03 dela, aurretik aipatu duguna baieztatuz. Bestetik, hezkuntza, ogasuna edota erauzketa industriak, enpresa zombien ehuneko oso txikia suposatzen dute, hauek ere araututa dauden sektoreak izanik. Aldiz, komertzioa, komunikazioak, eraikuntza eta higiezin jarduerak zombie enpresen kopuru handiko sektoreak dira eta aurretik esan bezala, nazioarteko lehiaketari ez daude hain lotuta.

4. ENPRESA ZOMBIEN BILAKAERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN AZKEN 10 URTEETAN ETA ALDERAKETA BESTE KOMUNITATE BATZUEKIN

4.1 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IZAN DUEN BILAKAERA

Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa zombiek azken 10 urteetan izan duten bilakaera aztertzeko, hainbat datu batuko dira gure ekonomian nola eragin duten jakiteko. Gainera, egiaztatu ahal izango dugu zein eskualdeetan eta sektoreetan mota honetako sozietateak izan duten inpaktu nabariagoa.


Azterketarekin hasteko, EAEko sozietateen datuak bilduko ditugu Euskal Herriko Unibertsitateak duen SABI datu basetik zein INE-tik. Horretarako, 2009. urtetik 2020. urterainoko informazioa lortuko dugu, baina kontuan hartuz azken urteko datu gutxiago daudela, enpresa askok bere datuak oraindik ez dituztelako aurkeztu.

Analisia burutzeko, muturreko zombiak baino ez dira kontuan hartuko, hau da, hainbat urteetan zehar kapital negatiboa izan duten enpresetan (baliabide propioak < 0) zentratuko gara. Teorian likidazioan sartu beharko lukete, baina horren ordez negozioak egiten jarraitzen dituzte (Urionabarrenetxea et al., 2017). Izan ere, mota honetako enpresak, aurreko puntuetan azaldu bezala, oso zorpetuta dauden enpresak dira, baina hala eta guztiz ere, merkatuan bizirik irauten dute.

Beraz, esandako azterketarekin hasteko, muturreko zombie enpresen kopuruak EAEko lurraldean izan duten bilakaera eta haien baliabide propioak ikusiko ditugu. Horrela, 2. grafikoan ageri diren datuei erreparatuz, ikusi daiteke nola urteak igaro ahala enpresa zombien kopuruan jaitsiera nabaria eman dela. Izan ere, 2008. urtean krisialdi ekonomikoan murgildu zen Espainiako estatua, hainbat enpresen egoera finantzarioa larrituz. Horrek zuzenean eragina izan zuen enpresa zombien agerpenean, gero eta enpresa gehiagok ezin ziotelako beraien arazo ekonomiko zein finantzarioei aurre egin. Egoera horrek hainbat sozietateei muturreko egoerataraz eraman zituen, batez ere higiezin zein finantza sektorea osatzen zuten enpresak.

Hala, 2. grafikoari erreparatuz, ikus daiteke 2009. urtetik 2013. urtera muturreko zombie kopurua 6000 inguruan mantendu zela, krisi honen momenturik gailenean, eta ez da 2016. urtera arte ikusten sozietate hauen presentzia pixka bat gutxitzen hasten denik. Beraz, esan daiteke, Espainiako gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak krisialditik ateratzeko erreformak enpresa-sarean nabaritzen hasten direla. Izan ere, murrizketa nabaria ematen da 2015-2016 urteen bitartean, zombien kopurua %7,79ra jaitsiz.

2.Grafikoa: Enpresa zombiak Euskal Autonomia Erkidegoan 2009-2019. urteetan



Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Horrela, enpresa mota hauen eragina 2009. urtetik, % 17,29an murriztea lortu zen 2016. urtearen amaieran eta hiru urte geroago %42,46ko jaitsiera lortu da krisialdiak eztanda egin zuen urtetik. Baina kontuan hartu behar da, 2020. urte hasieran pandemiak izugarritzko eragina izan duela EAEko enpresetan, hala adieraziko dute elkarrizketatutako adituek ondorengo puntuan.

Gauzak horrela, goranzko joera bat emango dela uste da, batez ere ematen ari diren diru laguntzak desagertzerakoan, hala nola ERTE²ak. Izan ere, gero ikusiko dugunez, erraminta hau funtsezkoa izan da hainbat enpresak bere langileen kaleraketak saihesteko

² ERTE: “Expediente de Regulación Temporal de Empleo”. Aldi baterako kaleratze kolektibo edo individuala da, eta enpresak lan kontratuak denbora mugatu batean eteten ditu, jarduera behin-behinean geldiarazteagatik edo diru-sarrera nahikorik ez izateagatik.

eta jarduerarekin jarraitzeko. Beraz, laguntza iturriak amaitzerakoan ikusi beharko da, zombien propagazioan ematen diren datuak.

Beste alde batetik, 1.Taulan, EAEko zombiak dituzten baliabide propio negatiboan kopurua 2009.urteetik 2019.urtera aztertzen badugu. Ikus daiteke, 2017.urtean egoera larrietarikoa ematen dela erkidego honetan. Hain zuzen ere -5.121.612€-ko baliabide propio negatiboak ematen dira urte horretan, izugarritzko igoera emanez. Hau, 2017.urtean Donald Trumpek ezarritako muga-zergen edo Iranek ezarritako zigorren ondorioz izan ahal daiteke. Izan ere, Tubacex edo Tubos Reunidos bezalako enpresa handiei eragin die eta hauek inpaktu handia dute Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean. Beraz, beste hainbaten arrazoien artean, orain azaldutakoa izan daiteke funts negatiboan igoera ematearen arrazoiatariko bat. Baina hori baieztatu ahal izateko, azterketa sakonagoa egin beharko litzateke zombie enpresen eta egoera horien arteko loturaren arteko influentzia maila zenbateraino heltzen den ikusteko.

1.Taulako datuak aztertzen jarraituz, ikus daiteke 2008. krisialdi finantzarioaren osteko urteetan, baliabide propio negatiboan kopuruak gora egiten jarraitzen duela. Baina, 2017.urteetik aurrera, jaitsiera nabaria ematen da, batez ere, hazkunde ekonomikoko egoera ematen hasten delako. Hala ere, ikusi beharko da 2020. urtean ematen den egoera, izan ere koronabirusak kalte handiak sortu ditu EAEko probintzietan. Beraz, lehen aipatu bezala, etorkizuneko datuak aztertu beharko dira, baina seguruenik 2017.urteko datuak bezalako emaitzak lortuko dira.


1.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide propioak 2009.urteetik 2019. urtera

Baliabide Propioak	€
2009	-2.000.261€
2010	-2.023.787€
2011	-2.701.968€
2012	-2.440.599€
2013	-2.597.345€
2014	-2.914.313€
2015	-3.294.584€
2016	-3.022.144€
2017	-5.121.612€
2018	-2.195.855€
2019	-1.507.159€

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Hau esanda, zombien kopurua probintziak nolako bilakaera izan duen aztertzeko, 3.grafikoari erreparatuko diogu. Izan ere, azter daiteke nola urteak igaro ahala zombien presentzia beheranzko joera hartzen ari duela EAEko probintzietan. Horrela, probintzia bakoitzean dauden zombien kopurua, guztizko zombie enprekin alderatzen badugu, ikus daiteke Bizkaia beti ehunekorik altuena izan duela. Izan ere, erkidegoko zombien %60 bertan kokatuta daude. Haren atzetik Gipuzkoa kokatuz eta azkenik Araba %14arekin.

3.Grafikoa: Enpresa zombien bilakaera probintziaka 2009-2019. urteetan (%)



Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Nabaria da baita ere Bizkaiak %60 horri eutsi diola hasierako bi urteetan, ondorengo urteetan jaitsiera emanez bere ehunekoetan, %5eko murrizketa lortuz eta %55arekin geratuz. Kasu berdina ematen da Arabarekin, erkidegoan dituen zombien guztizkotik gero eta ehuneko txikiagoa duela. Hala, Donostia hiriburu bezala duen probintzia honek, aurreko probintzietan eman diren kontrako joera izan du. Izan ere, bere ehunekoa handituz joan da urteek aurrera egin ahala, %25,79tik %31,80ra igaroz. Beraz, aipagarria da Gipuzkoan ematen ari den gorakada.

Plaza eta Zabaletaren (2020) arabera, Donostiak 45 saltoki txiki galdu zituen 2019. urtean, azken urteotan sektoreak izan duen joera berretsi dutelarik. Beraz, albiste hori ikusita, nabaritu daiteke joera negatiboa ematen ari dela, eta horrek negozio askori zombie bihurtzera eramán ditzakeela.

Baina gaur egungo datuei erreparatzen badiegu, zombien kopuruan murrizketa nabaria ematen ari dela esan daiteke (ikus beharko da 2020 eta 2021 urteetan nolako egoera ematen den). Normala denez, Bizkaiak bi aldiz biderkatzen ditu Gipuzkoan dauden enpresa zombiak, eta lau aldiz Araban daudenak. Izan ere lehen aipatu dugun moduan eta ratioa aztertuta (enpresa zombiak/guztizko enpresak) Bizkaia sozietate gehien dituen probintzia da eta beraz, zombien presentzia handiagoa dela egiaztatu dugu.

Urte horietako analisiarekin jarraituz, enpresa zombien eragina probintziaka sailkatuko dugu, lurralde bakoitzean zombiek duten irismena egiaztatu ahal izateko. Beraz, 2.Taulari erreparatzen badiogu, azter daiteke nola Bizkaia, Euskal Autonomia Erkidegoko probintziarik kaltetuena dela, izan ere Euskal Estatistika Erakundearen arabera, 2019. urtean Bizkaian 79.454 enpresa zeuden, Gipuzkoan 52.217 eta Araban 21.596. Beraz, ikus dezakegun bezala, beste probintziekin alderatuta, Bizkaia enpresa ugarien dituen probintzia da zonalde demografikoagatik, komunikazioengatik eta lehengaiengatik.

2.Taula: Enpresa zombiak, Probintzia bakoitzeko guztizko enprekin alderatuta 2009-2019. urteetan

Probintziak	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Bizkaiko zombiak	4.029	3.775	3.760	3.597	3.338	3.268	3.223	2.952	2.776	2.612	1.971
Bizkaiko enpresak guztira	92.181	86.814	84.347	83.284	80.493	80.045	80.321	80.118	79.911	79.118	79.454
Bizkaiko ratioa(%)	4,37%	4,35%	4,46%	4,32%	4,15%	4,08%	4,01%	3,68%	3,47%	3,30%	2,48%
Gipuzkoako zombiak	1.670	1.710	1.778	1.798	1.827	1.820	1.768	1.633	1.567	1.479	1.185
Gipuzkoako enpresak guztira	63.431	59.456	56.628	56.491	55.249	53.940	53.497	53.225	52.928	52.315	52.217
Gipuzkoako ratioa(%)	2,63%	2,88%	3,14%	3,18%	3,31%	3,37%	3,30%	3,07%	2,96%	2,83%	2,27%
Arabako zombiak	777	795	859	905	796	808	811	771	753	700	570
Arabako enpresak guztira	22.450	20.683	20.683	21.851	21.663	21.321	21.303	21.344	21.462	21.204	21.596
Arabako ratioa (%)	3,46%	3,84%	4,15%	4,14%	3,67%	3,79%	3,81%	3,61%	3,51%	3,30%	2,64%

Iturria: SABI datu basea eta Eustat, norberak eginda.

2.Taulako datuak lortu ahal izateko eta aurretik esandakoa egiaztatzeko, ratio bat erabili da. Hain zuzen ere urte bakoitzeko enpresa zombiak eta guztizkoa alderatu da, zombiak probintzia bakoitzean era erlatibo batean konparatu ahal izateko. Horrela, ikus daiteke, aurretik esandakoa betetzen dela, izan ere Bizkaia ehunekorik altuena daukan probintzia da, bere batezbestekoa %3,88 izanez. Nahiz eta Arabak enpresa kopuru gutxiago eduki, proportzionalki Bizkaiaren atzetik kokatzen da bere batezbestekoa %3,63koa delarik. Gainera, azpimarratzekoa da, Bizkaia zein Arabako eskualdeek, 2011.urtean, ratioari dagokionez, zombie kopuru altuena lortzen dutela, %4,46 eta %4,15 hain zuzen ere. Maximo honek agerian uzten du, lehen aipatutako krisialdia, izan ere, 2011. urtean Espainia, finantza krisialdi honetan guztiz murgilduta zegoen eta beraz, egoera honek zombie gehiago egotera bultzatzen duela esan daiteke.

Baita ere, aipatzekoa da 2019. urtean ematen den aldaketa. Izan ere, Araba, Bizkaiaren aurretik kokatzen da, %2,64arekin. Beraz, ikusi beharko da hurrengo urteetan ematen den eboluzioa, Arabak Bilbo hiriburu gisa duen probintziaren ehunekoa gailentzen jarraitzen duen jakiteko edo kontrako egoera ematen den ikusteko. Hala ere, hurrengo puntuan modu sakon batean ikertuko da egoera hau.

Gipuzkoa, aldiz, azken postuan geratzen da. Izan ere, batezbestekoei erreparatzen badiegu, probintzia honek %2,99ko zombifikazioa du 2009. urtetik 2019. urterarte. Horrekin jarraituz, azpimarratu nahiko nuke zombien presentzia handiena 2014. urtean ematen dela, hau da, Bizkaia eta Araban ematen denean baino hiru urte geroago. Honek bi gauza suposatzen eramatzen gaitu: Gipuzkoari krisi egoeratik ateratzea gehiago kostatu egin zitzaioela eta horrek zombien kopurua gora egitea ekarri zuela. Izan ere, Eurostat-en (2019) argitaratutako Europako mapa batean, Gipuzkoak 2016. urtera arte, 2008ko baloreak berreskuratzen ez dituela ikusi daiteke. Aldiz, Bizkaiak eta Arabak, urte bat lehenago berreskuratzen dituzte krisi aurreko egoerako baloreak. Beraz, egiaztatu

dezakegu Gipuzkoako probintziak zailtasun handiagoak izan zituela krisialditik ateratzeko.

Bestetik, antzeman daiteke, aztertzen ari garen beste bi probintzietan gertatzen den moduan, 2015. urtetik aurrera ehunekoei dagokionez, jaitsiera nabaria ematen hasten dela. Seguruenik, horrek hitz egiten ari garen krisialdi egoerarekin lotura dauka, izan ere, 2014-2015 urteen artean amaitutzat eman zen aipatutako garaia; honek zuzenean eraginez enpresen likidezia ahalmenean zein zorrei aurre egiteko gaitasunean. Beraz, esan daiteke krisialdia amaitzerakoan, zombien presentzia ere txikiagoa izan dela, hainbat enpresen jarduera indarberritu egiten delako eta horrekin zorrei zein bestelako kontuei aurre egiteko gaitasuna handitzen hasten delako.

Horren ildotik, 3.taulako datuei erreparatzen badiegu, antzeman daiteke, aurretik aipatzen genuen arazoa (2017.urteko arazoa EAEan) batez ere Bizkaiko probintzian ematen dela. Hala, datuei erreparatuz gero, ikus daiteke, urte horretan -3.573.435€-tako baliabide propio negatiboak dituela. Gipuzkoa eta Arabak aldiz aurreko urtean emandako emaitzekin alderatuz, baliabide propio negatibo txikiagoak dituzte. Beraz, argi geratzen da Bizkaian ematen den arazoa dela. Gainera, Siemens bezalako enpresa garrantzitsuak bertan kokaturik daude, indar handia eginez enpresa sarean eta momentu horretan baliabide propio negatibo handiak edukiz. Horri gehitu behar zaio Donald Trump ezarritako muga-zergak zein politikak, kalte handia sortu dituztela sozietate batzuetan izan ere Alegret (2017) adierazten du: “Siemens Gamesa arazoak izaten ari da bere merkatu nagusietan, eta horrek aukerak murriztea besterik ez du eragiten.” “AEBak Siemens Gamesaren merkatu nagusietako bat dira, eta herrialdean gero eta ingurune lehiakorragoa dago. Horri eragiten dioten faktoreetako bat Trump administrazioaren energia-politika da.”.

3.Taula: 2009. urtetik 2019. urterako zombien baliabide propioak probintziak

Baliabide Propioak	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
2009	- 1.076.533 €	- 546.487 €	- 235.212 €
2010	- 895.511 €	- 593.358 €	- 172.019 €
2011	- 991.837 €	- 627.873 €	- 227.412 €
2012	- 1.303.081 €	- 620.019 €	- 263.898 €
2013	- 1.098.929 €	- 856.261 €	- 268.620 €
2014	- 1.077.854 €	- 1.147.533 €	- 384.072 €
2015	- 1.213.371 €	- 1.119.635 €	- 674.331 €
2016	- 1.357.427 €	- 676.075 €	- 356.037 €
2017	- 3.573.435 €	- 416.294 €	- 310.751 €
2018	- 644.687 €	- 402.352 €	- 240.061 €
2019	- 628.919 €	- 371.298 €	- 188.695 €

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Beste alde batetik, 1.taulan ikusten genuen moduan, hiru probintzietan 2017.urteetik aurrera beherakada handia ematen hasten da. Batez ere Bizkaian, haren baliabide propio negatiboak %18an murrizten direlarik.

Gainera, urte horietako zombien baliabide propioak tarteka aztertzen baditugu, 4. Taulako datuak lortzen ditugu:

4.Taula: 2009. urtetik 2019. urterako zombien baliabide propioen tarteak ehunekoetan

Baliabide Propioak	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
(0, -10.000€)	99,61 %	99,71 %	99,59 %	99,44 %	99,28 %	99,30 %	99,40 %	99,33 %	99,33 %	99,46 %	99,46 %
(-10.001€,-20.000€)	0,12 %	0,16 %	0,17 %	0,22 %	0,42 %	0,31 %	0,17 %	0,22 %	0,24 %	0,21 %	0,24 %
(-20.001€,-30.000€)	0,12 %	0,05 %	0,08 %	0,10 %	0,10 %	0,10 %	0,12 %	0,17 %	0,14 %	0,17 %	0,11 %
(-30.001€,-40.000€)	0,05 %	0,02 %	0,03 %	0,06 %	0,02 %	0,05 %	0,05 %	0,06 %	0,08 %	0,06 %	0,08 %
(-40.001€,-50.000€)	0,03 %	0,00 %	0,02 %	0,05 %	0,00 %	0,07 %	0,09 %	0,06 %	0,06 %	0,00 %	0,00 %
(-50.001€,-60.000€)	0,02 %	0,00 %	0,02 %	0,03 %	0,05 %	0,02 %	0,02 %	0,02 %	0,00 %	0,00 %	0,03 %
(-60.001€,-70.000€)	0,00 %	0,00 %	0,00 %	0,02 %	0,03 %	0,02 %	0,00 %	0,02 %	0,00 %	0,00 %	0,00 %
(-70.001€,-80.000€)	0,02 %	0,00 %	0,00 %	0,03 %	0,03 %	0,05 %	0,02 %	0,02 %	0,02 %	0,02 %	0,03 %
(-80.001€,-90.000€)	0,00 %	0,02 %	0,00 %	0,00 %	0,00 %	0,00 %	0,02 %	0,02 %	0,04 %	0,00 %	0,00 %
(-90.001€,-100.000€)	0,00 %	0,00 %	0,00 %	0,00 %	0,03 %	0,00 %	0,00 %	0,00 %	0,02 %	0,04 %	0,03 %
(-100.001€,>)	0,03 %	0,05 %	0,09 %	0,05 %	0,03 %	0,08 %	0,12 %	0,09 %	0,08 %	0,04 %	0,03 %

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Izan ere, aztertu daitekeenez, zombien kontzentrazio handiena 0€ eta -10.000€-ko baliabide propioen artean dago, maximoa 2010. urtean emanez. Tarte honetan aurkitzen diren zombie gehienak Bizkaian kokaturik daude, Gipuzkoa bere atzetik kokatuz eta Araba kopuru txikiena edukiz.

Hala ere, 2011. urtean -100.000€-tik gorako enpresa zombien hazkundera ematen da. Izan ere, urte horretan, probintzia bakoitzean egoera horretan dauden bi zombie topatu ahal daitezke, arazo larriena Gipuzkoan kokatuz, -268.143€ eta -247.873€-ko baliabide propioekin, hain zuzen ere. Beraz, nahiz eta Gipuzkoan 2011. urteko ratioa balore maximoa ez izan, arazoa benetan larria dela esan daiteke, beste probintziekin alderatuz gero.

Hala ere, Gipuzkoako ratioa bere maximoetara heltzen denean, hau da, 2014. urtean, aztertzen ari garen tarte kritiko horretan, arazo larriena duena, Arabako zonaldea da, bere atzetik Donostia hiriburu bezala duen probintzia jarraituz. Beraz, esan daiteke, Gipuzkoan urte horretan ematen den egoera kezagarria dela. Alde batetik, zombiak, bertako enpresekin alderatuta ehunekorik altuena lortzen dutelako eta bete aldetik, urte horretan baliabide propio negatibo handienetarikoa zombia bertan kokatzen delako.

Baina benetan momentu larrienetarikoa 2015. urtean agertzen da, non -100.000€-ko baliabide propioak dituzten zombiak %0,12ra heltzen diren. Honek batez ere, Bizkaiko eta Arabako probintziak eraginez, Gipuzkoak egoera horretan topatzen den zombie bakarra duelarik. Hala ere, bi probintzia horien artean, Araba da baliabide propio negatibo handiena duena, -344.337€ eta -374.893€ hain zuzen ere.

Azkenik azpimarratu nahiko nuke, 2018. urtetik aurrera, egoera kritikoan dauden zombiak gero eta gutxiago direla eta aldiz, 0€ eta -10.000€ bitarteko fondo propioak dituzten ehunekoa gora egiten ari duela.

Analisiarekin jarraitzeko, nolako eragina duten enpresa mota hauek Euskal Autonomia Erkidegoko sektorean aztertuko dugu. Horretarako, CNAE 2009ko datuak erabili dira eta hiru sektoreetan banatzea erabaki da: lehen sektorea, bigarren sektorea eta zerbitzu sektorea. Sailkapen hau egiteko, Euskal Estatistika Erakundeak erabiltzen duen metodologia jarraitu da. Hala, lehen sektorean, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza etab. sartzen dira. Ondoren bigarren sektorean, industriak, erauzketa-industriak, eraikuntza eta hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa barne hartzen du. Azkenik, zerbitzu sektorea daukagu, hainbat jardueraz osatuta, hala nola: garraioak, finantza eta aseguruen zerbitzua, ostalaritza, informazioa eta komunikazioa, handizkako eta txikizkako merkataritza eta beste zerbitzu batzuk.

Gainera, 2009. urtetik 2019. urtera zombiek izan duten eragina hobeto ikusteko, 2012, 2015 eta 2017. urteko datuak hartu egin dira aztergai moduan. Izan ere, aldi hori hautatu egin da, 2009tik 2011. urtera Eustateko datu batzuk osatuta ez zeudelako eta beraz, urte horietatik aurrera zeuden datuak aztertu dira, ratioa (enpresa zombiak/ enpresa guztira) modu egoki batean burutu ahal izateko. Nahiz eta hemen aipatutako urteetako datuak bildu, hurrengo puntuan, 2019. urteetako datuak ere aztertuko dira, hau da guztira lau urteko analisisa burutuko da. Baita ere, esan beharra dago, ez direla urte guztietako datuak banan-banan aztertu, balio txikia izango zuelako azterketa hori burutzea eta azkenean lortutako mozkin txikia izango zelako.

Hau esanda, 5.Taulari erreparatzen badiogu, agerian geratzen da zerbitzu sektorea hartzen duen garrantzia, %68,29ko ehuneko batekin, atzetik bigarren sektorea jarraituz ia %31 arekin. Beraz, azken tokian geratzen da lehen sektorea, ehuneko oso baxuarekin. Hala ere, kontuan hartu behar da ehuneko hauek Euskal Autonomia Erkidegoan 2009tik 2020ra dauden zombiak sektoreka nola sakabanatzen diren irudikatu besterik ez dutela egiten.

5.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombiak sektoreka 2009tik 2020ra

Sektorea	Enpresa zombiak	%
Lehen sektorea	154	0,79%
Bigarren sektorea	6.016	30,92%
Zerbitzu sektorea	13.288	68,29%
Guztira	19.458	100%

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basetik ateratako datuekin.

Bestetik, 6.taulako datuei erreparatzen badiogu, antzeman daiteke, zerbitzu sektorean arazo larriena ematen dela. Izan ere, bertan dauden zombien baliabide propioak batzerakoan, -15.200.562€tako emaitza lortzen da, atzetik geratuz industria sektorea 9.684.884€rekin. Modu horretan beraz esan daiteke, hirugarren sektorea zombien presentziagatik EAeko sektorerik kaltetuena dela. Lehen sektorean aldiz, kontrako egoera ematen da, izan ere -90.262€tako baliabide propio negatibo ditu, besteekin alderatuz gero kantitate oso txikia dela baieztatu daiteke.

6.Taula: Euskal Autonomía Erkidegoko enpresa zombiak sektoreka eta baliabide propioak kontuan hartuta 2009. urtetik 2020. urtera

Sektorea	Baliabide propioak
Lehen sektorea	- 90.262,62 €
Bigarren sektorea	- 9.684.884,45 €
Zerbitzu sektorea	- 15.200.562,13 €

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Baina, era proportzional batean hiru sektoreak konparatu ahal izateko, 2012, 2015 eta 2017 urteetako datuak aztertu egin dira, aurretik azaldutakoarekin bat etorritz. Beraz, analisiarekin jarraituz, 7. Taulan agertzen diren ratioei erreparatzen badiogu ikus daiteke, lehen sektorean, zombien presentzia oso murrizta dela. Hala, urteak igaro ahala gero eta eragin gutxiagoa dute enpresa zombiek sektore horretan, nahiz eta 2015. urtean ehunekorik handiena eduki. Hau ematen da, lehen sektoreko enpresen kopurua nabarmenki behera egiten duelako eta, aldiz, zombien kopurua gora egiten duelako.

Bestetik, azpimarratzekoa da bigarren eta hirugarren sektorean ematen den egoera. Izan ere, zerbitzu sektorea, enpresa gehien dituen da. Hain zuzen ere, 2017. urtean, 136.576 sozietatez osatuta zegoen, industria sektorea baino 104.432 enpresa gehiago. Hori kontuan hartuta, nahiz eta 5. Taulan ikusten zen moduan, zerbitzu sektorea zombie gehien zituen sektorea izan, guztizko sozietateekin alderatuta industria sektorea baino ehuneko txikiagoa dauka.

7 Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko ratioa sektoreka 2012, 2015 eta 2017. urteetan

SEKTOREA	2012. urtea	2015. urtea	2017. urtea
Lehen sektoreko zombiak	48	54	38
Lehen sektoreko enpresak guztira	6.240	6.004	6.008
Lehen sektoreko ratioa(%)	0,77%	0,90%	0,63%
Bigarren sektoreko zombiak	2048	1693	1420
Bigarren sektoreko enpresak guztira	38.257	33.127	32.144
Bigarren sektoreko ratioa(%)	5,35%	5,11%	4,42%
Zerbitzu sektoreko zombiak	4235	4110	3690
Zerbitzu sektoreko enpresak guztira	139.974	137.253	136.576
Zerbitzu sektoreko ratioa(%)	3,03%	2,99%	2,70%

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INE datu baseekin.

Gauzak horrela, 7.Taulan ikusten den moduan, industria sektorean enpresa zombiek, guztizkotik, %5,35a suposatzen zuten 2012. urtean eta lehen sektorearekin gertatzen zen moduan, urteak igaro ahala kopuru hau murriztuta ikusi da, %4,42ra helduz. Azkenik, zerbitzu sektorearekin berdina gertatzen da, baina jaitsiera askoz motelagoa da, izan ere 2012. urtetik 2015. urtera %0,04ko murrizketa ematen da, bigarren sektorean, aldiz, %0,24a.

Beraz, ratioei erreparatuz, industria sektorea enpresa zombie gehien dituen sektorea dela esan daiteke, bere atzetik hirugarren sektorea kokatuz; nahiz eta azken hau, 5.Taulan antzeman dugunez, sozietate gehien dituen izan. Egoera hau ematen da, palankatze handiagoa dutelako industria sektoreko enpresek, zerbitzuzkoak baino, nahiz eta zabalera

handiagoa edukiz hirugarren sektorekoek, proportzionalki egiaztatu ahal izan dugu nola industriak benetan zombien ehuneko garrantzitsua duela.

8.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombiak, sektoreka eta baliabide propioak kontuan hartuta 2012, 2015 eta 2017. urteetan

Sektorea	2012	2015	2017
Lehen sektorea	- 5.473,98 €	- 12.775,29 €	- 4.861,58 €
Bigarren sektorea	- 1.097.163,30 €	- 1.324.214,73 €	-1.133.464,44 €
Zerbitzu sektorea	- 1.173.673,40 €	- 1.627.454,69 €	-3.943.073,76 €

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Baina, 8.taulako baliabide propioei erreparatzen badiegu, konturatzen gara, zerbitzu sektorean zein bigarren sektoreko arazoa larriagoa dela, lehen sektoreko enpresena baino. Izan ere, zombie enpresen baliabide propioak kontuan hartuta, zerbitzu sektorea besteetatik gailentzen da, industria sektorearekin desberdintasun txikia emanaz 2012 eta 2015. urteetan. Baina, 2017.urtean ia 4 milioi eurotako baliabide propioak ematen dira, hau benetan kezagarria izanez. Hala, Siemens Gamesaren baliabide propioak urte horretan, kopuru horretatik -1.322.204€ dira, lehen azaldutakorekin lotura zuzena edukiz. Beraz esan daiteke, arrazoi horregatik zifra handi horiek ematen direla 2017.urtean.

Analisiarekin jarraitzeko, zerbitzu sektorean zein bigarren sektorean esangura handia duten taldeak aztertuko dira, zombien influentzia maila jakiteko. Gainera, esan beharra dago, zerbitzu sektorea oso heterogeneoa dela eta hainbat zerbitzu aurkitu daitezkeela bertan. Beraz, arrazoi horregatik ere hurrengo analisia burutu da:

9.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombiak, sektore nabarietan 2009-2019

Sektorea	Enpresa zombiak	%beraien sektorearekin konparatuz
Eraikuntza	3.597	59,79%
Manufaktura industriak	2.145	35,65%
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	4.915	36,99%
Ostalaritza	1.489	11,21%
Finantza eta seguruen jarduerak	314	2,36%

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basea erabiliz.

Espero zen bezala, 9.Taulako ehunekoei erreparatzen badiegu, bigarren sektorean eraikuntza zein manufaktura industria garrantzia handiena duten sektoreak dira. Izan ere, lehenengoak, bigarren sektorean dauden enpresa zombietatik %59,79 bat suposatzen du, horri eraikuntza sektorea jarraituz %35,65 batekin. Baina, kontuan hartu behar da, ehuneko hauek beraien sektorean dauden guztizko zombiekin baino alderaketa bat besterik ez dela eta ondoren 10.Taulako ratioek benetan zelako eragina duten adieraziko digutela.

Zerbitzuen sektoreak badu beste anomalia bat; bereziki, arreta jartzea merezi duena. Izan ere, hirugarren sektorearen barruan, automobilak saltzen dituzten enpresak eta ostalaritza kaltetuenak dira. Bestetik, finantza eta seguruen jarduerak ehunekorik txikienetarikoa irudikatzen dute, %2,36a hain zuzen ere, eta guztizkotik bakarrik 314 zombie izanik.

Sailkapen osoa aztertuz, automobilak saltzen dituzten enpresak zombien kopururik handiena du, 4.915 sozietate hain zuzen ere. Horrela lehen postuan nabaritasunez mantentzen da, hurrengo sektoreak 1.318 enpresa zombie gutxiago baitu. Hari, manufaktura industriak eta ostalaritza sektoreak jarraituz. Izan ere, 656 enpresa zombieko alde dago sektore batetik bestera, kontuan hartuz maila desberdinetakoak direla: hau da, bata zerbitzuzkoa da eta bestea industriakoa.

Automobilaren sektorean zombie kopuru handia egotea normaltzat hartu daiteke, izan ere 10.Taulan ikusiko dugunez, ratio handiena duena da. Horri gehitu behar zaio, erkidegoan automobilaren sektorea lehen industria dela eta Espainiako bigarren aberastasun iturria dela baita ere (Deia, 2021). Beraz, automobilaren sektoreak EAEan berebiziko garrantzia duela baieztatu dezakegu.

Horregatik, analisi justua burutzeko, lehen aipatutako ratioa erabiliko dugu: hau da, enpresa zombiak guztizko enpresekin alderatuko ditugu, baina kasu honetan talde bakoitzeko datuak erabiliz.

Horretarako 10. Taulako datuei erreparatuko diegu, izan ere, bigarren sektoreko taldeen artean, manufaktura industriak proportzionalki zombie gehien dituena da, nahiz eta azken urteetan jaitsiera bortitza eman. Hala, 2012. urtetik 2017.urtera %1,15eko murrizketa eman da, aztertzen ari garen taldeetatik aldaketa nabariena izan duena dela esan baitaiteke. Baina aipatzekoa da, eraikuntza sektoreak bi bider biderkatzen dituela manufaktura sektorean dauden enpresak guztira. Izan ere, 2017. urtean eraikuntza sektorea 20.496 sozietate zituen guztira, manufaktura aldiz, 11.078. Horrela, azpimarratzekoa da, nahiz eta azken sektore hau sozietate kopuru gutxiago izan, proportzionalki zombie gehien dituena dela.

Honen arrazoia Europar Batasuneko (EB) krisi ekonomikoa izan daiteke, gehien erasandako industria-sektorea manufaktura sektorea izanik, horrela adierazten baitu Europako Batzordeak 2014an argitaratu zuen txostenean. Gainera, Antonio Tajani Europako Industria komisarioak azaltzen duen moduan, "Europa oraindik oso urrun dago manufaktura-industria 2020a baino lehen BPGren % 20 izatea lortzetik" (Agencia EFE, 2014). Beraz, zombifikazioa ematearen arrazoiatariko bat krisi ekonomikoaren erreperazioa sektorean motelagoa izan dela esan daiteke.

10.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zombien ratioa, sektore nabarietan 2012, 2015 eta 2017. urteetan

SEKTOREA	2012	2015	2017
Eraikuntzako zombiak	1248	1015	819
Eraikuntzako enpresak guztira	24.844	20.951	20.496
Eraikuntzako ratioa (%)	5,02%	4,84%	4,00%
Manufaktura industriako zombiak	729	563	503
Manufaktura industriako enpresak guztira	12.819	11.604	11.078
Manufaktura industriako ratioa(%)	5,69%	4,85%	4,54%
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen zombiak	1.594	1.554	1.396
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen enpresak guztira	43.800	42.263	40.930
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten ratioa(%)	3,64%	3,68%	3,41%
Ostalaritzako zombiak	456	484	461

Ostalaritzako enpresak guztira	14.421	13.989	13.950
Ostalaritzako ratioa(%)	3,16%	3,46%	3,30%
Finantza eta seguruen jardueretako zombiak	101	87	91
Finantza eta seguruen jardueretako enpresak guztira	5188	4955	4786
Finantza eta seguruen jardueretako ratioa(%)	1,95%	1,76%	1,90%

Iturria: Norberak eginda, Eustat datu basea erabiliz.

Ildo beretik, hirugarren sektorean, automobilgintza sektorea da sozietate gehien dituen, 40.000 enpresa inguru biltzen ditu. Gainera, ratioei erreparatzen badiegu, ostalaritzak baino ehuneko handiagoa du, nahiz eta 2017. urtean %0,1eko aldea egon. Finantza eta seguruen jardueretako enpresak, aldiz, atzetik geratzen dira, %1,9 inguruko ratioarekin. Hortaz, automobilgintza sektorean, zombien proportzioa handiagoa dela esan daiteke beste sektoreekin alderatuz gero. Horrela, zerbitzu sektoreko zombifikazio handiena duen sektorea automobilgintza dela esan daiteke. Honako datu hauek ematen dira, batez ere, kontzentrazio handiko sektorea delako eta, beraz, propagazioa askoz azkarragoa ematen delako. Baita ere, petrolioaren prezioaren beherakadarekin zerikusi handia duela esan daiteke. Izan ere, erregai horren prezioaren beherakadak sektore honen eskarian inpaktu handia dauka eta eskaririk gabe, mota horretako enpresek ezin dute bere jarduerarekin aurrera egin (Bermudez A., 2020). Hala, Stockerek et al. (2018) adierazten dutenez, 2014.urteko erdialdean eta 2016. urteko hasieran, petrolioaren prezioen beherakada handienetarikoa eman zen mundu mailan. Aztertzen ari garen urteak denboraldi horretan daudelarik, kontuan izan behar da orain koronabirusarekin arazoa larriagoa bihurtu dela eta, beraz, seguruenik ratio hau nabarmenki handituz joango da.


Azkenik, finantza eta seguruen jarduerak burutzen dituzten sozietateen ratioak aztertuz, bitxia da beste bi sektoreetan ehunekoa jaisten edo mantentzen doan heinean, hemen, ratioa handitzen doala. Hau da, zombien presentzia handiagoa izaten ari da urteek igaro ahala eta, aldi berean, finantza eta seguruen jarduerak burutzen dituzten enpresen kopuruak beheranzko joera hartzen ari du. Beraz, kontuan hartzeko datua dela uste dut, izan ere, gero eta enpresa gutxiago daude eta daudenen artean, zombien kasu gehiago ematen ari dira.

Eustateko datuak erabiliz eta enpleguaren datuei erreparatuz, enpresa zombie gehien dituen sektorea, langile gehien dituen dela antzeman daiteke. Hau da, manufaktura sektoreak 161.450 langile izan zituen 2019. urtean, aldiz, finantza eta seguruen jarduerak 11.895. Beste sektoreak aztertuz, automobilgintza sektoreak 107.000 langile inguru eduki zituen, ostalaritza baino bi bider gehiago, gutxi gorabehera. Beraz, sektore zombifikatuenak langile gehienak dituztenak direla esan daiteke eta, baliteke, langile asko dituztenez, laguntza gehiago jasotzea dauden interesengatik. Batez ere, itxiz gero, jende asko lanik gabe geratuko litzateke, eta horren ondorioz langabezia-tasa hazi egingo litzateke ere.

4.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOERA 2019. URTEAN

Behin 2009. urtetik 2020. urteetako azterketa burututa, jo dezagun 2019. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko egoera modu sakonean ikertzera, hurrengo puntuan beste erkidegoekin alderaketa burutu ahal izateko. Honekin, komunitate honetako egoera modu errealistago batetik baloratzea lortu nahi da eta, ondoren Andaluzia, Katalunia eta Madrilekin konparaketa egitea.

4.Grafikoa: 2019. urtea enpresa zombiak Euskal Autonomia Erkidegoko probintzietan



Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Euskal Autonomia Erkidegoa hiru probintziaz osatua dago, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa. Lehendik aipatu dugun moduan, Bizkaia sozietate gehien dituen lurraldea da eta 4.grafikoan aztertu ahal daitekenez, EAEan dauden zombietatik, mota honetako enpresa gehien dituen probintzia da %53arekin hain zuzen ere. Hau da, enpresa zombien kontzentrazioaren erdia baino gehiago Bizkaiko probintzian kokaturik dago. Bere atzetik, Gipuzkoa jarraituz ia %32arekin, eta oso atzetik Arabako probintzia geratuz %15arekin, 575 enpresa zombie soilik baititu.

Baina probintzia bakoitza modu erlatibo batean alderatu ahal izateko, 11. Taulako ratioak aztertuko ditugu. Alde batetik, probintziak aztertzerakoan INEko datuak erabili direla kontuan hartu behar da, beste komunitateekin modu berdinean alderatu ahal izateko. Hala, datu base horrek ez ditu kontuan hartzen lehenengo sektoreko enpresak probintziako sailkapena burutzerakoan. Beraz, bai puntu honetako probintziak zein ondorengoko puntuetakoak aztertzerakoan, lehenengo sektoreko enpresak ez dira kontuan hartuko. Hala ere, aurretik ikusi izan dugu euren kopurua txikia dela eta, beraz, kontuan izan bagenitu aldea ere txikia izango litzateke.

Beste alde batetik, SABIko datuak jaisterakoan desberdintasun txikia ematen da orain aztertuko dugun urtean. Izan ere, 2009-2020 urteetako bilakaera aztertzeke erabili diren datuak eta 2019.urteko datuak alderatuz, SABI baseak 41 enpresa gehiago kontuan hartzen ditu azken kasu honetan.

Esanak esan, jo dezagun 11.Taulako datuak aztertzerara. Bertako zombie enpresei erreparatzen badiegu Araba buruan jartzen da modu erlatibo batean zombie enpresa gehien duen probintzia izanez %3,08arekin. Aurreko puntuan aipatu dugun moduan, azken urte honetan probintzia honek %0,42an gaintitu egiten du Bizkaiko ehunekoak. Beraz atzetik geratzen da Gipuzkoako zonaldea %2,47arekin hain zuzen ere.

11.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko probintzien enpresa zombiak, ratioen azterketa eta baliabide propioak 2019. urtean.

PROBINTZIAK	2019.urteko zombie enpresak	2019. urteko enpresak guztira	Ratioa	Baliabide propioak
Bizkaia	1.988	74.741	2,66%	- 628.918,60 €

Gipuzkoa	1.204	48.779	2,47%	- 400.317,91 €
Araba	575	18.678	3,08%	- 87.049,81 €
Guztira	3.767	142.198	2,65%	- 1.116.286,31 €


Iturria: Norberak eginda, SABI eta Eustat datu baseekin.

Azpimarratu behar da, 2018. urtean bai Arabak zein Bizkaiak ehuneko berdina eduki zutela eta aztertzen ari garen urte honetan, jaitsiera nabaria eman dela zombie kopuruan zein gutzitako enpresetan. Baina, Bizkaian emandako murrizketa handiagoa da, izan ere, 641 zombie eta 4.377 enpresa gutxiago izatera igaro da urte batetik bestera. Araban emandako aldaketa txikiagoa izanez, 130 zombie eta 2.526 enpresa gutxiago, hain zuzen ere. Hala Araba, enpresa gutxiago edukiz, zombie kopuruaren jaitsiera oso txikia izan duela esan daiteke. Beraz, ratioan emandako aldaketa horrek, ildo horrekin zerikusia duela uste dut.

Probintzien azterketarekin amaitzeko, zombie enpresek duten baliabide propio negatiboari erreparatuko diegu. 11. Taulako azken zutabearen antzeman daitekenez, Bizkaia da arazo larriena duen probintzia. Izan ere, 2019. urtean -628.918€-tako baliabide propioak ditu, hau da, EAEan dauden baliabide propio negatiboaren %56,34a. Atzetik Gipuzkoa geratuz, -400.317€-rekin eta Alaba aldiz, beste bi probintziekin alderatuz gero, arazoa larria izaten jarraitzen du, baina askoz txikiagoa.

Zehazki, EAEan zombien %99,46a 0€ eta -10.000€ bitarteko baliabide propioak ditu. Batez ere, Bizkaian kokaturiko probintzian aurkitzen dira %53arekin, hari, Gipuzkoa jarraituz %32arekin. Honek argi uzten du Arabako zonaldea, nahiz eta ratorik altuena eduki, ehuneko txikiagoa suposatzen duela, zombiak presentzia handiena duten baliabide propioetatik. Hala, 5.grafikoan aztertu daitekenez, tarte horretan dauden zombiak soilik %15a Araban aurkitu ahal ditugula. Baina, azpimarratu beharra dago, Araban kokatzen dela arazo larriena duen zombia, -390.873€-ko baliabide propioekin.

5.Grafikoa: Probintzien baliabide propio negatiboa (0 €, -10.000€) bitartean, 2019. urtean.



Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Modu berean, jo dezagun sektoreka zombien kopurua aztertzerako. Horretarako, 12. Taulako datuez baliatuko gara eta bertan ikus daitekeenez, bigarren sektorea ratioari erreparatuz gero besteetatik gailentzen da. Izan ere, nahiz eta zerbitzu sektorea, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden zombiak kontuan hartuz, zombie gehien dituen izan, (%72,60arekin), modu erlatibo batean aztertzerakoan industria sektoreak ehuneko handiagoa lortzen du. Beraz agerian geratzen da, industriak erkidegoan ematen ari den zombifikazioaz zeresan handia duela.

Bestalde, lehen sektorea dugu adierazgarri, zombie kopuru txikiena duen sektorea baita. Izan ere, 2019. urtearen kopuru osotik, soilik 30 zombie aurki ditzakegu, %0,46a suposatuz. Aipagarri den alde positiboa izanik, EAEak tradizioz nekazaritza, abeltzaintza, basogintza bezalako jardueretan garrantzia handia duenaren isla dela esan daiteke. Horregatik, positibotzat jo daitekeen atala da zombie kopuru oso txikia izatea sektore honetan.

Azkenik, baliabide propioei erreparatzen badiegu, ikus daiteke 2019. urtean zerbitzu sektorean ematen dela egoera larriena. Hortaz, nahiz eta industria sektorea baino ratio txikiagoa eduki, baliabide propio negatibo handiena duen sektorea da, alde handia emanez bien artean. Gainera, ikusi daiteke lehen sektoreko zombiak gutxi direla eta haien baliabide propio negatiboan minimoak direla. Beraz, esan daiteke, EAEak industrian modu erlatiboan zombie gehiago dituela baina arazo larriagoa ematen dela zerbitzu sektorean baliabide propioei dagokionez. Izan ere azken sektore honetan enpresa gehiago dira eta beraz kapitala ere handiagoa da.

12.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoko komunitatean enpresa zombiak eta baliabide propioak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta.

SEKTOREA	2019
Lehen sektoreko zombiak	30
Lehen sektoreko enpresak guztira	6.485
Lehen sektoreko ratioa(%)	0,46%
Baliabide propioak	- 6.596,22 €
Bigarren sektoreko zombiak	1.002
Bigarren sektoreko enpresak guztira	32.048
Bigarren sektoreko ratioa(%)	3,13%
Baliabide propioak	- 340.183,29 €
Zerbitzu sektoreko zombiak	2.735
Zerbitzu sektoreko enpresak guztira	136.238
Zerbitzu sektoreko ratioa(%)	2,01%
Baliabide propioak	- 769.506,80 €

Iturria: Norberak eginda, SABI eta Eustat datu basearekin.

Beraz, EAEan gehien eragiten duten sektoreak aztertzerakoan, azpimarratu beharra dago, zerbitzu sektorean, automobilgintza sektoreak %37,22a daukala; ostalaritzak %12,43a; eta finantza eta seguruen jarduerak %2,49a. Bigarren sektoreko taldeetan, aldez, eraikuntza besteetatik gailentzen da. Izan ere, sektore horretan dauden zombien kopuruarekin alderatuta %58,48a eraikuntza sektoreari dagokio. Aipatutako kopuru honen atzetik dago manufaktura industria %36,33a izanik.

Baina zombie gehien dituen sektorearen sailkapena aztertuz, 13.Taulan konturatzen gara nahiz eta manufaktura industria bere sektoreko zombiekin alderatuta eraikuntzak baino ehuneko txikiagoa izan, ratioei begira, honek ehuneko handiagoa duela. Hala, manufakturako industriako zombiak %3,35a suposatzen dute sektore horren guztizkotik. Aldiz, eraikuntzako guztizko enpresak hartzen baditugu eta bertan dauden zombiekin alderatzen baditugu, %2,84ko ratioa lortzen da. Beraz, esan daiteke, influentzia maila handiagoa ematen dela manufakturan eraikuntzan baino.

Hau bereziki izan ahal daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko manufakturan diharduten enpresa ugari dituelako adibidez: siderurgia-sektorearekin, ekipamendu-ondasunekin, energia-sorkuntzarekin eta petrolio-finketarekin lotutako konpainiak. Horrek ere berarekin dakar, sektore horretara kanpoko laguntza finantzario gehiago jasotzea. Hau zerbait positibo bezala hartu ahal daiteke, maila egoki batean baina palanka-efektu altuak ematen badira, ekonomia bere osotasunean konprometitu ahal daiteke (Urionabarrenetxea et.al., 2017) EAEko kasuan moduan.

13.Taula: Euskal Autonomia Erkidegoan dauden enpresa zombieen ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean.

SEKTOREA	2019
Eraikuntzako zombiak	586
Eraikuntzako enpresak guztira	20.611
Eraikuntzako ratioa (%)	2,84%
Manufaktura industriako zombiak	364
Manufaktura industriako enpresak guztira	10.862
Manufaktura industriako ratioa(%)	3,35%
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen zombiak	1.018
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen enpresak guztira	38.965
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten ratioa(%)	2,61%
Ostalaritzako zombiak	340
Ostalaritzako enpresak guztira	13.754
Ostalaritzako ratioa(%)	2,47%
Finantza eta seguruen jardueretako zombiak	68
Finantza eta seguruen jardueretako enpresak guztira	4.656
Finantza eta seguruen jardueretako ratioa(%)	1,46%

Iturria: Norberak eginda, SABI eta Eustat datu baseekin.

Bestetik, zerbitzu sektorearen barruan automobilgintza da ratio altuena duena %2,61arekin hain zuzen ere, atzetik geratuz ostalaritza sektorea. Beraz, lehen aipatu bezala argi dago automobilgintzan arazo handiena ematen dela. Hala ere, ostalaritzako datuei erreparatzea gomendatzen dut, izan ere oso gertutik jarraitzen dute automobilgintzako ehunekoei. Finantza eta seguruen jardueretako ratioak aldiz ostalaritzakoak baino puntu bat txikiagoak dira.

Azkenik, enplegu tasei erreparatzen badiegu, ikusi daiteke tasa txikiena duen sektorea lehen sektorea dela %1arekin, ari bigarren sektorea jarraituz %26arekin. Hau zuzenean lotuta dago aurretik azaldutakoarekin eta beraz ikusi daiteke garrantzia handia hartzen

duen sektorea dela. Hala ere, zerbitzu sektorea hauetatik gailentzen da, izan ere, %73ko enplegu tasa sortzen du EAEan.

4.3 BESTE KOMUNITATE BATZUETAKO BILAKAERA ETA KONPARAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIN

Espainia mailako beste komunitate batzuk aztertzerakoan eta Informak 2021.urteko otsailean “Las Empresas Zombis en España” deitutako txostenaren arabera, Madril, Katalunia eta Andaluzia, Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera enpresa zombie gehien dituzten komunitateen artean kokatzen dira.

14. Taula: Espainiako zombiak 2021. urteko otsailean

Jarduera	Zombiak	%	Konparaketa enpresak	%
Andaluzia	4.451	11,25%	74.924	12,98%
Aragoi	1.544	3,90%	18.096	3,14%
Asturias	1.160	2,93%	10.044	1,74%
Balear uharteak	1.062	2,68%	18.613	3,22%
Cantabria	324	0,82%	5.608	0,97%
Ceuta	25	0,06%	495	0,09%
Errioxa	333	0,84%	4.189	0,73%
Euskal Autonomia Erkidegoa	2.274	5,75%	27.149	4,70%
Extremadura	709	1,79%	8.793	1,52%
Galizia	3.091	7,81%	31.778	5,51%
Gaztela eta Leon	2.054	5,19%	28.009	4,85%
Gaztela-Mancha	1.590	4,02%	23.130	4,01%
Kanariar uharteak	1.334	3,37%	20.827	3,61%
Katalunia	6.565	16,60%	113.418	19,65%
Madril	7.194	18,19%	104.722	18,14%
Melilla	21	0,05%	396	0,07%
Murtzia	982	2,48%	16.393	2,84%
Nafarroa	651	1,65%	8.349	1,45%
Valentziako Erkidegoa	4.196	10,61%	62.271	10,79%
Guztira	39.560	100%	577.204	100%

Iturria: Informa (2021), norberak eginda.

Izan ere, aurreko datuei erreparatzen badiegu, komunitate hauek Valentziako Erkidegoarekin batera, ehunekorik altuenak dituzte. Zombien zerrendaren buruan, Madril %18,19 batekin kokatzen da, bere atzetik Katalunia %16,60 eta azkenik Andaluzia %11,25. Euskal Autonomia Erkidegoak aldiz, Espainiako Estatuan dauden zombien %5,75a suposatzen du. Esan beharra dago, konparaketa enpresen zutabea aztertuz, zonalde hauek enpresa-sare gehien dituztenak direla, hau da, gainerako komunitateak baino enpresa-kontzentrazio handiagoa duten lekuak direla. Gainera, komunitate nagusietan, enpresa askoz gehiago jarduten dute, beraz normalagoa da ehuneko handiagoak edukitzea.

Hori esanda, Madril, Katalunia eta Andaluziako komunitateak 2019. urtean izandako eragina aztertuko da, hau baita SABI datu basean daukagun azken urtea eta informazio osoa ahalbidetzen duena. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren datuekin egindako moduan, muturreko zombiak kontuan hartuko dira bakarrik. Beraz, erkidego honen egoera 2019. urtean aztertu eta gero, beste komunitateen egoera ikertzeraz igaroko da ondorioak atera ahal izateko.

4.3.1 MADRIL

Madrilgo komunitatearen analisia burutzeko, lehen aipatu bezala, 2019. urtean zentratuko gara. Lehenik eta behin modu erlatibo batean zenbat zombie enpresak dauden kalkulatu dira. Horretarako, Madrileko zombiak, bertan kokaturiko enprekin alderatu dira, %4,14ko ratioa lortuz. Hau da, zombiak probintzia honetan ia %4ko eragina dute, EAEko probintziak baino ehuneko handiagoa. Hala, erkidego hau bere osotasunean hartuz gero, %2,65eko ratioa lortzen da, Madril baino %1,49 gutxiago.

Hori esanda, sektore bakoitzean enpresa zombiak duten eragina aztertuko da. Horretarako, aurreko puntuan azaldutako sailkapen berdina erabiliko da CNAE 2009 -ko datuaz baliatuz.

2019. urtean Madrilen dauden zombie guztiak kontuan hartuz, jo dezagun sektoreka sailkatzeraz hauen presentzia. Hala, guztira 22.355 zombie enpresa kontabilizatu ziren urte honetan, EAEa baino 18.588 enpresa gehiago. Hala ere sektoreka sailkatzerakoan, ehunekoak antzekoak dira, zerbitzu sektorea %70 ingurukoa izanez, horren atzetik bigarren sektorea geratuz eta lehen sektorea %0,8ko zombifikazioa suposatuz. Beraz esan daiteke, sektoreka, zombien sakabanaketa bi komunitateetan antzekoa dela.

15.Taula: Madrilgo komunitatean enpresa zombiak eta baliabide propioak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta

SEKTOREA	2019
Lehen sektoreko zombiak	189
Lehen sektoreko enpresak guztira	7.417
Lehen sektoreko ratioa(%)	2,55%
Baliabide Propioak	- 94.137,98 €
Bigarren sektoreko zombiak	4.797
Bigarren sektoreko enpresak guztira	80.929
Bigarren sektoreko ratioa(%)	5,93%
Baliabide Propioak	- 2.966.315,25 €
Zerbitzu sektoreko zombiak	17.369
Zerbitzu sektoreko enpresak guztira	459.615
Zerbitzu sektoreko ratioa(%)	3,78%
Baliabide Propioak	- 6.270.973,12 €

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Baina, 15.Taula honi erreparatuz gero, bereziki arreta deitzen du bigarren sektoreak duen ehuneko altua. Izan ere ratioa %5,93 ingurukoa da, hau da, komunitate honetan dagoen muturreko zombien presentzia gehiena bertan kokatuta dago, oso atzetik utziz zerbitzu zein lehenengo sektoreko zombien eragina. Desberdintasun nabari honek bi gauza uzten

ditu agerian: alde batetik, nahiz eta Madrilgo Erkidegoak hirugarren sektoreko jardueretan oinarritutako eskualdea izan, zombien presentzia handiagoa ematen dela industria sektorean. Aipatu bezala, hirugarren sektore honetan dauden guztizko enpresak 459.615 dira, bost bider biderkatuz bigarren sektoreko enpresak, baina hala ere proportzionalki zombie gehiago aurkitzen ditugu industria sektorean. Bestetik, Madril, Espainiako kapitala izanez, administrazio publikoak, ostalaritza, garraioak, informazio eta komunikazioak ugariak dira eta beraz, indar handia egiten dute zerbitzu sektorean.

Gainera, Pérez-ek (2019) honako hau azaltzen du: “2008 eta 2013 artean, krisi ekonomikoak Espainiako industria-sektorea higatu zuen. 2014an, susperraldi ekonomikoak tregoa eman zion, baina gutxi iraun zuen izan ere, Espainian, berriz ere industria-enpresak suntsitzen ari dira. 2014ko irailetik 2018ko irailera bitartean, Espainian ia 2.500 sortu ziren termino garbietan, baina 1.145 suntsitu dira 2018ko irailetik 2019ko irailera. Lau urtez jarraian industria-hedapenari amaiera eman zaio, eta sektore hori berriz ere ibilaldi arantzatsu batean dabilela esan daiteke”.

Hala ere, baliabide propioei erreparatuz gero, antzeman daiteke zerbitzu sektorean kokatzen direla muturreko zombiak egoera larrienean -6.270.973,12€-rekin hain zuzen ere. Hala, bi bider biderkatzen ditu industria sektoreko baliabide propio negatiboak. Hori horrela baliteke, zombien baliabide propioak zerbitzu sektorean hain handia izatearen arrazoiatariko bat atzetik dauden interesak izatea. Hau da, Madrilen, lehen esan bezala, sektore honek garrantzia handia dauka, eta baliteke gobernua ez ikusiarena egitea, sortzen duen enpleguagatik eta ekonomian duen paperagatik adibidez.

Hau esanda, Madrilgo ratioa Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuz gero, modu orokor batean aipatu daiteke, aztertzen ari garen komunitatearen ehunekoak altuagoak direla eta beraz zombien presentzia handiagoa ematen dela. Izan ere, industria sektoreko datuei erreparatzen badiegu ikusi daiteke Madril bi bider biderkatzen dituela EAEko ratioa. Baita ere, zerbitzuen sektoreko zein lehenengo sektoreko ehunekoei erreparatzea merezi du, % 4 eta %2,55 ingurukoak baitira, iparraldeko erkidegoa bi puntu gutxiagorekin geratuz.

Urionabarrenetxea et al. (2017) adierazten duten moduan, eskualdeetako enpresen emaitzen arteko aldeak izan litezke inbertsio-ahalmenen, zentralizazio-mailen, erregulazio-mailen, kontrol-ahaleginaren eta lehia-abantailen arteko desberdintasunak daudelako. Izan ere Madrilgo erkidegoan dagoen enpresen kontzentrazioa handiagoa da eta horrek berarekin dakar lehia handiagoa egotea. Gainera, baliteke Espainiako kapitalean lehia oso altua denez, ekoizpen egitura berriak etengabe eskatzea, horrek inbertsio handia suposatzen duelarik.

Baliabide propioei dagokionez, EAEko erkidegoa oso atzetik geratzen da, Madrilekin alderatuz gero. Hala, ematen den desberdintasuna handia dela adierazi daiteke, baina gailentzen den sektorea zerbitzu sektorea izaten jarraitzen duela baieztatu daiteke. Beraz, esan daiteke Madril EAEda baino egoera kezagarria duela, baliabide propioei dagokionez. Hala ere, bertan kokaturiko enpresek kapital handiagoko enpresak dira eta tamaina handiagokoak ere.

16.Taula: Madrilen dauden enpresa zombien ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean

SEKTOREA	2019
Eraikuntzako zombiak	2.722
Eraikuntzako enpresak guztira	59.702
Eraikuntzako ratioa (%)	4,56%
Manufaktura industriako zombiak	1.107
Manufaktura industriako enpresak guztira	18.029
Manufaktura industriako ratioa(%)	6,14%
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen zombiak	5.042
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen enpresak guztira	95.074
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten ratioa(%)	5,30%
Ostalaritzako zombiak	2.033
Ostalaritzako enpresak guztira	29.897
Ostalaritzako ratioa(%)	6,80%
Finantza eta seguruen jardueretako zombiak	491
Finantza eta seguruen jardueretako enpresak guztira	14.722
Finantza eta seguruen jardueretako ratioa(%)	3,34%

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INEko datuak erabiliz.

Analisiarekin jarraituz, 16. Taulan azter daiteke, zerbitzu sektorearen barruan enpresa zombiek kaltetutako enpresa gehienak ostalaritzakoak direla. Hala ere, zerbitzu sektorearen barruan dauden zombiak kontuan hartuz, ostalaritzak %11,7a soilik suposatzen du, automobilen sektorea aldiz ia %30eko pisua duelarik. Baina 16.Taulako ratioei erreparatuz gero, azter daiteke nola ostalaritzako ehunekoa automobilen ehunekoa baino %1,5 handiagoa dela. Kontuan hartu beharra dago, turismotik bizi den komunitatea dela eta beraz, mota honetako negozioak nabariagoak direla. Beraz, proportzionalki zombie gehien dituen zerbitzuzko sektorea ostalaritza dela egiaztatu ahal daiteke.

Hala ere, automobilgintza sektoreak zombifikazio garrantzitsua du, izan ere %5.3 inguruan dabil, 5.042 enpresekin. Baina, zombiak eta guztizko enpresak alderatzen baditugu, lehen aipatu bezala, ikusi daiteke nola ostalaritza sektorea baino influentzia askoz gutxiagoa duela, beraren atzetik finantza eta seguruen jardueren ehunekoa kokatuz %3,34arekin.

Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuz gero, argi geratzen da aurretik esan moduan, Madrilen turismoak pisu handia duela eta beraz ostalaritzako negozioak nabariagoak direla. Horrek desberdintasun nabaria ekartzen du, izan ere, EAEan zerbitzu sektorearen barruan pisu handiena duen sektorea automobilgintza da, Madrilen aldiz, ostalaritza.

Aldiz, bigarren sektoreari erreparatzen badiogu, Madrilen dauden zombie enpresetatik %15a, suposatzen du. Bertako zombiak kontuan hartuz, eraikuntza industria garrantzia handia duen sektorea da, izan ere, alderdi honetan dauden enpresa zombien erdia bertan kontzentratuta dago, hain zuzen ere 2.722 sozietatez osatuta dago. Haren atzetik, manufaktura industria kokatzen da, 1.615 enpresa gutxiagoarekin hau da %23.1 arekin.

Baina, 16. Taulako ratioen ilarak aztertzen baditugu, esan daiteke, proportzionalki manufaktura industriak zombie gehiago dituela, eraikuntza baino. Izan ere, azken honek, guztizkotik %4,56a suposatzen du eta manufakturak %6,14a. Beraz, nahiz eta zombie gutxiago eduki, bertan dauden enprekin alderatuz gero, ehuneko handiagoa dauka manufakturak eraikuntzak baino.

Bigarren sektore honetan aldiz, bai Madrilen zein EA Ean, manufaktura industria besteetarik gailentzen da. Hala ere, zombifikazio handiagoa ematen da orain aztertzen ari garen komunitatean, Euskal Autonomia Erkidegokoa baino.


Gainera, azpimarratu beharra dago, Madrilen dagoen enplegu tasaren %15a sektore honetakoa dela, zerbitzu sektoreko enplegu tasa %84,80a izanez eta lehen sektoreko enplegu tasa %0,2koa da, besteekin alderatuz oso pisu txikia duelarik. Gauzak horrela, nahiz eta, zombien ratio altuena izan, enplegu gutxien sortzen duen sektorea dela esan daiteke.

4.3.2 KATALUNIA

Hurrengo komunitatearekin jarraituz, lehenik eta behin muturreko zombiak probintziak duten eragina aztertuko dugu. Izan ere, Katalunia lau probintzietan banatzen da, Bartzelona, Tarragona, Lleida eta Girona.

6.grafikoak Katalunian probintzia bakoitzean dauden zombien sailkapena erakusten du eta argi ikusten denez, zombifikazio gehiena Bartzelonan biltzen da %71arekin. Kontuan hartu behar da, Kataluniako kapitala dela eta beraz, bertan enpresa sare gehiena biltzen da. Beste probintziak oso atzetik geratzen dira, hala, Tarragona eta Girona %11arekin, azkenik Lleida, lau puntu gutxiagorekin eta 982 zombie enpresekin.

6.Grafikoa: 2019. urtean enpresa zombiak Kataluniako probintzietan



Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Baina, probintzia bakoitza era erlatibo batean konparatu ahal izateko, guztizko enpresak eta muturreko zombiak alderatu egin dira, toki bakoitzean duten eragina benetan jakin ahal izateko. Baita ere probintzia bakoitzean dauden zombien baliabide propioak kontuan hartuko dira, arazoaren dimentsioa hobeto aztertzeko.

17.Taula: Kataluniako probintzien ratioak 2019. urtean

PROBINTZIAK	2019.urteko zombie enpresak	2019.urteko enpresak guztira	Ratioa	Baliabide Propioak
Bartzelona	10.235	470.067	2,18%	-5.155.996,85 €
Tarragona	1.632	53.308	3,06%	- 202.051,41 €
Lleida	982	33.299	2,95%	- 227.788,64 €
Girona	1.610	63.357	2,54%	- 193.334,78 €

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INE datu baseekin.

Beraz, 17. Taulari erreparatuz gero, 6.grafikoan ikusi dugunaren kontrakoa ematen da. Izan ere, modu erlatibo batean konparatzerakoan, konturatzen gara, Tarragona dela zombie kopuru handiena duela eta ez Bartzelona. Gainera, Lleida bigarren postuan kokatzen da %2,95arekin ari Girona jarraituz %2,54arekin eta azken postuan Bartzelona %2,18arekin. Hoshi (2016) adierazten zuen, metropoli-eremuetatik kanpoan zombie enpresen kopurua handiagoa dela, erregulazio gutxiagoa dagoelako. Beraz, ehuneko horiek ematearen arrazoiatariko bat horregatik izan ahal daiteke.

Hala ere, baliabide propioen zutabeak aditzera ematen du, Bartzelonak duela egoera kezkarria -5 milioi eurotako baliabide propioekin. Haren atzetik, Lleida kokatuz baina kopuru askoz txikiagorekin, hain zuzen ere -205.051€-rekin. Argi dago, nahiz eta proportzionalki zombie gutxien duen probintzia izan, bertako enpresen tamaina handiagoa da beste probintziekin alderatuz gero. Madrilekin gertatzen den kasu berdina ematen da, izan ere, “Espainian kokatutako enpresa handiena % 28,35 Madrilen dago, Kataluniak baino 1,74 puntu gehiago (% 26,61), Infoenpresak argitaratutako Espainiako enpresa handiaren informaren arabera.” Miret (2014).

Gainera Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuz gero, egoera berdina ematen da. Hau da, Bizkaia, enpresa sare handiena duena, bigarren postuan kokatzen da ratioari erreparatuz gero nahiz eta 2019.urteko guztizko zombietatik kopuru handiena izan. Hala ere, Bizkaia Bartzelonak baino zombifikazio handiagoa du %0,48a hain zuzen ere, nahiz eta desberdintasun txikia izan. Kontuan hartu behar da, probintzia gehiagotan sakabanatzen direla Kataluniako zombiak eta beraz, EAEa hiru probintziaz osatuta egoteak, zombien kontzentrazio handiagoa egotea suposatzen du. Azkenik kontuan hartzekoa da, Kataluniako guztirako ratioa, iparraldeko erkidegoarekin alderatuz gero, azken honek ehuneko handiagoa duela. Izan ere, Kataluniak %0,32 ko zombifikazio gutxiagoa dauka. Baina baliabide propioei begira, Madrilekin gertatzen zen bezala, alde handia dago, EAEko erkidegoa atzetik geratuz. Lehen esan bezala, gehiago fakturatu duten enpresak Espainiako kapitalean eta Kataluniako kapitalean kokaturik daude, beraz horrek berarekin dakar baliabide propioak handiagoak izatea bi komunitate hauetan.

Hau esanda, goazen sektoreka aztertuz, Kataluniako komunitatean dagoen zombien eragina. Alde batetik, aurreko erkidegoarekin gertatzen zen bezala, nabarmentzekoa da zerbitzuen sektorean dauden zombien enpresen ehunekoak. Madrileko komunitatea baino ehuneko txikiagoa bada ere, oraindik altua da, %74,1 ingurukoa baita, zehazki 10.714 sozietatez osaturik dago baina ratioari erreparatuta, sektore horretan dauden guztizko enpresen %2,11a baino ez dute suposatzen.

18.Taula: Kataluniako komunitatean enpresa zombiak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta.

SEKTOREA	2019
Lehen sektoreko zombiak	229
Lehen sektoreko enpresak guztira	56.701
Lehen sektoreko ratioa(%)	0,40%
Baliabide propioak	- 33.537,07 €
Bigarren sektoreko zombiak	3.516
Bigarren sektoreko enpresak guztira	112.198
Bigarren sektoreko ratioa(%)	3,13%
Baliabide propioak	- 3.391.795,85 €
Zerbitzu sektoreko zombiak	10.714
Zerbitzu sektoreko enpresak guztira	507.833
Zerbitzu sektoreko ratioa(%)	2,11%
Baliabide propioak	- 2.353.838,76 €

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INE datu baseekin.

Hala, industria sektoreko zombiak 2019. urtean Katalunian dauden zombie enpresekin alderatuz gero, soilik %18,34a suposatzen du. Beraz, bigarren sektorearen ratioari begiratzen badiogu, zombien kopuru handiena duela egiaztatu dezakegu hain zuen ere %3,13a. Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuz gero, aipatzekoa da, 2019. urtean bi komunitate hauek ratio berdina daukatela bigarren sektore honetan. Horrela Madril, momentu honetararte aztertutako komunitateen artean kopururik handiena izaten jarraitzen du.

Ratioekin jarraituz, zombie gehien dituen hurrengo sektorea, zerbitzu sektorea da, lehen aipatu bezala %2,11ko zombifikazioa duelarik. EAEak baino %0,1 gehiago. Baita ere, lehen sektorean dauden zombien kopurua modu proportzional batean konparatzerakoan, erkidego honek soilik %0,06an gailentzen dio Katalunian ematen den ehunekoari. Hau da, Madrilgo komunitatearekin gertatzen ez zen bezala, aldaketa minimoa da eta beraz esan daiteke Katalunia eta EAEaren zombifikazioaren arteko aldea txikiagoa dela.

Baina, 18. Taulako baliabide propioei erreparatzen badiegu, aurretik aztertutako komunitateak ez bezala, hemen industria sektorea da egoera larrienean dagoen sektorea -3.391.795 €-rekin. Honek agerian uzten du Kataluniako bigarren sektorearen arazoa kezkarria dela, alde batetik proportzionalki zombie gehien dituen delako eta gainera baliabide propio negatibo handiena duena da. Nahiz eta zerbitzu sektorea bere atzetik kokatuz, bi sektore horien artean ematen den aldea nahiko handia da. Gainera, lehen sektorearen arazoa besteekin konparatuz gero, minimoa dela esan daiteke.

Horren harira, EAEko egoerarekin alderatzen badugu, kontrako kasua ematen dela ikus daiteke. Izan ere, iparraldeko erkidegoan zerbitzu sektorea da baliabide propio negatibo handiena duen sektorea eta ez industria sektorea. Gainera, Kataluniako kasuan milioi euroei buruz hitz egiten hari gara, Euskal Autonomia Erkidegoan ez da sektore bate ere ez milioi eurotara hurbiltzen. Gauzak horrela, argi dago ratioei erreparatuta antzekotasun handiak dituztela baina baliabide propioak aztertuta, desberdintasunak oso handiak dira.

19. Taula: Katalunian dauden enpresa zombien ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean

SEKTOREA	2019
Eraikuntzako zombiak	2.227
Eraikuntzako enpresak guztira	76.072
Eraikuntzako ratioa (%)	2,93%
Manufaktura industriako zombiak	1.133
Manufaktura industriako enpresak guztira	34.045
Manufaktura industriako ratioa(%)	3,33%
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen zombiak	3.495
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen enpresak guztira	124.089
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten ratioa(%)	2,82%
Ostalaritzako zombiak	1.717
Ostalaritzako enpresak guztira	43.970
Ostalaritzako ratioa(%)	3,90%
Finantza eta seguruen jardueretako zombiak	238
Finantza eta seguruen jardueretako enpresak guztira	12.813
Finantza eta seguruen jardueretako ratioa(%)	1,86%

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INE datu baseekin

Horren harira, 19. Taulaz baliatuz, azter ditzagun sektoreen barruan zombiek gehien kaltetu dituzten taldeak. Industria sektorearekin hasiz, beste komunitateetan emandako kasuak bezala, manufaktura ratio handiena duen industria da. Izan ere Kataluniako zombien guztizkoarekin alderatuta %3,33a suposatzen du, eraikuntza atzetik geratuz %2,93arekin. Horrek adierazten du, muturreko zombien kontzentrazio handiagoa ematen dela manufakturan eraikuntzan baino. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoarekin ematen diren desberdintasunak berriz ere txikiak dira, hala ere azken honek ehuneko txikiagoa dauka eraikuntza sektorean.

Zerbitzu sektorearekin jarraituz, Madrileko komunitatean ematen den egoera berdina daukagu. Izan ere, ostalaritza ratio altuena duen sektorea da, ari automobilgintza jarraituz puntu bat gutxiagorekin. Oso atzetik geratzen da finantza eta seguruen jardueretako zombien ehunekoa izan ere hau ez da %2ra heltzen. Ehuneko hauek ematearen arrazoia batez ere izan daiteke, ostalaritza zonalde hauetan eragile ekonomiko nagusienetarikoa dela. Izan ere Quim Torra, gaur egun Kataluniako Ex presidentea, “Anuario de la Hostelería”-n (2019), adierazten zuen, Katalunia potentzia turistiko bat dela mundu osoan, eta gainera, existitzen den helmuga turistiko dibertsifikatuenetako bat dela. Faktore horiek bikainak dira Kataluniako turismo-sektorearentzat eta, ondorioz, ostalaritzarentzat. Baina, 2017.urteko atentatuak eta ematen ari diren tentsio politikoak, turismoan eragin nabaria eduki dute eta horrek lehen esan bezala, eragin zuzen dauka ostalaritzan. Beraz, ehuneko horiek eman izanaren arrazoietarako bat aurretik azaldutakogatik izan daiteke.

Azkenik, esan daiteke Katalunian ere zerbitzu sektorea rol garrantzitsua daukala, horrela adierazten baitute INEtik ateratako datuak. Izan ere, zerbitzu sektorea %75,1 eko enplegu tasa dauka, bigarren sektorea %24a eta azkenik lehen sektorea %1,4 arekin. Kasu honetan, enplegu gehien sortzen duen sektorea ez da zombie gehien dituen. Hala ere ehuneko garrantzitsua dauka, arretaz begiratu behar dena.


4.3.3 ANDALUZIA

Azkenik hegoaldean kokaturiko komunitatea aztertuko dugu, Andaluzia. Honek, zortzi probintziaz osatuta dago hala nola: Malaga, Sevilla, Almeria, Jaen, Cadiz, Cordoba, Granada eta Huelva besteak beste. Beraz lehenik eta behin, probintzia hauetan zombien kopurua aztertuko da.

Hain zuzen ere, 7.grafikoari erreparatzen badiogu, ikusi daiteke, nola Malaga zombie gehien dituen eskualdea dela, nahiz eta Sevilla, Andaluziako hiriburua izan. Beraz, aurretik aztertutako komunitatearekin alderatuz, esan daiteke hemen sakabanaketa handiagoa dela, hau da, zombifikazioa ez dago hiriburuan kontzentratuta kopuru handi batean eta gainera, haren ehuneko handiena probintzia nagusienean ere ez dago kokatuta.

Hala Malagan, Andaluziako enpresa zombien %32 a bertan zentratuta dago, bere atzetik komunitatearen hiriburua kokatuz, 12 puntu gutxiagorekin. *Analistas Económicos de Andalucía* erakundearen arabera, 2019. urtean, sozietate gehienak Malagan (126.510 enpresa) eta Sevillan (119.510 enpresa) zeuden. Horrek erakusten du, enpresa sare maila handiagoa duela Malagako probintziak, Sevillakoak baino eta beraz, zombien presentzia handiagoa izan daiteke horregatik. Horrela, adierazten baitu, 20. Taulan kalkulaturako ratioa ere. Hala, Malagan %4a enpresa zombiak dira, aldiz, Sevillan proportzioa askoz ere txikiagoa da, hain zuzen ere %2,67koa.

7.Grafikoa: 2019. urtea enpresa zombiak Andaluziako probintzietan



Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

7.grafikoaren sailkapenarekin jarraituz, ikusi daiteke nola Jaen eta Huelva zombien eragin txikieneko probintziak direla, ehuneko berdinarekin. Baita ere ikusi daiteke, Cádiz eta Cordoba antzeko ehunekoak dutela, hain zuzen ere %10 inguruko zombifikazioa dute. Beraien aurretik Granada kokatuz %11arekin eta Almeria atzetik geratuz %9arekin.

Baina, 20. Taularen ratioen zutabeari erreparatzen badiogu, azter daiteke nola Jaen probintzien artean zombien ehunekorik txikienetarikoak duela aurretik esandakoarekin bat etorritik. Bere atzetik, Cadiz eta Huelva geratuz, %2,52 eta %2,65arekin hain zuzen ere. Baina, daturik harrigarriena da, Malagaren atzetik, Cordoba eta Almeria probintziak

kokatzea, izan ere, nahiz eta hauek 1.400-1.500 zombie bitartean eduki, Malagatik %1,15ean bakarrik desberdintzen da. Hau da, nahiz eta 7.grafikoan, lehen begirada batean ematea, zombie gutxien dituztenak direla, ratioak agerian uzten du, proportzionalki Andaluziako probintzien artean, zombie gehien duten tokien artean daudela.

20. Taula: Andaluziako probintzien ratioak eta baliabide propioak 2019. urtean

PROBINTZIAK	2019.urteko zombie enpresak	2019. urteko enpresak guztira	Ratioa	Baliabide Propioak
Malaga	5.058	126.509	4,00%	-1.014.233,29 €
Sevilla	3.187	119.510	2,67%	- 792.335,80 €
Almeria	1.369	43.406	3,15%	- 259.718,30 €
Jaen	674	34.191	1,97%	- 79.178,87 €
Cadiz	1.560	61.786	2,52%	- 217.543,74 €
Cordoba	1.514	47.874	3,16%	- 297.160,90 €
Granada	1.694	60.020	2,82%	- 241.190,16 €
Huelva	668	25.236	2,65%	- 101.519,99 €

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INE datu baseekin.

Beste alde batetik, baliabide propioei erreparatzen badiegu, antzeman daiteke Malagak egoera larriena duela milioi bat euroko baliabide propio negatiboekin, atzetik geratuz Andaluziako kapitala. Hemen beste probintziekin gertatzen den kontu berdina ematen da. Malaga enpresa kopuru handia duen probintzia da, baina azpimarratu beharra dago Sevilla dela gehien fakturatzen duen probintzia eta Malaga haren atzetik kokatzen dela. Hortaz hau ematearen arrazoiatariko bat izan ahal da, Bahia Fenicia Residencial eta beste hotel batzuk baliabide propio negatibo handiak izan zituztela urte horretan. Hori esanda, ikusi beharko zen beste urteetan Malagak Sevillak baino baliabide propio negatibo handiagoa izan badituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko egoerarekin alderatuz gero, konturatzen gara, Malagak duen ratiotik oso atzetik geratzen direla EAEko hiru probintziak. Izan ere, daturik altuena %3,08koa da, Arabako probintziarena hain zuzen ere. Katalunian ez bezala, Andaluzian maximo hori gailentzen duten hiru probintzia topatzen ditugu. Beraz argi dago hemen zombien presentzia sakabanatuagoa egon arren, iparraldeko komunitateak baino batezbestez presentzia handiagoa dutela. Gainera, Andaluziako guztizko ratioa EAEarekin alderatuz gero, handiagoa da. Hala, %3,03a suposatzen du, iparraldeko erkidegoa baino %0,38 gehiago.

Horri gehitu behar zaio, antzekotasun handiagoak ematen direla Andaluzia eta Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide propioen artean. Hala Araba, Jaen probintziako baliabide propioekin alderatuz gero kopuru antzekoa duela baieztatu daiteke. Baina, Sevilla eta Malaga, Bizkaia zein Gipuzkoako probintziak gailentzen dituzte. Hori horrela, argi dago egoera kezkarriagoa dela Andaluzian EAEan baino.

Hau aztertuta eta 21.Taulaz baliatuz, jo dezagun sektoreka zombien eragina ikustera. Aurreko kasuetan bezala, nagusiki industria sektorea agertzen da sektoreen sailkapenaren buruan. Nahiz eta, Andaluziako zombien presentziaren %26,6a hirugarren sektore honetan egon, 1.002 enpresekin.

Egia da, beste bi komunitateekin konparatzen baditugu, azter daiteke hegoaldeko industria sektoreak Madrilgo ehunekotik gertu geratzen dela. Hain zuzen ere, %5,02ko

zombifikazioa ematen da, EAEan baino %1,89 gehiago. Beraz, nahiz eta begi bistan iruditu zombifikazio gutxiena duela, benetan, Espainiako kapitala bezalako ehunekoa du.

Madrilekin ematen den desberdintasun hori ere ikusi daiteke INEtik ateratako enplegu tasetan. Hala, Andaluziako zerbitzu sektoreak %75,3ko enplegu tasa dauka, probintzia horretako beste sektoreak baino 5 bider gehiago. Baina, Madrilekin alderatuz, ehuneko txikiagoa dauka, hain zuzen ere 9,5 puntu gutxiago ditu.

21.Taula: Andaluziako komunitatean enpresa zombiak 2019. urtean, sektoreka sailkatuta.

SEKTOREA	2019
Lehen sektoreko zombiak	524
Lehen sektoreko enpresak guztira	242.324
Lehen sektoreko ratioa(%)	0,22%
Baliabide propioak	- 181.658,69 €
Bigarren sektoreko zombiak	4.294
Bigarren sektoreko enpresak guztira	85.530
Bigarren sektoreko ratioa(%)	5,02%
Baliabide propioak	- 1.647.272,41 €
Zerbitzu sektoreko zombiak	10.908
Zerbitzu sektoreko enpresak guztira	433.002
Zerbitzu sektoreko ratioa(%)	2,52%
Baliabide propioak	- 1.465.613,72 €

Iturria: Norberak eginda, SABI datuetatik.

21.Taulako datuak aztertzen jarraituz, industria sektorea, zerbitzu sektore duela atzetik ikusi daiteke. Hala, EAEak baino zombifikazio handiagoa du, hain zuzen ere, %0,51 gehiago. Egia da, desberdintasuna minimoa dela, industria sektorearekin gertatzen ez zen moduan. Azkenik, lehenengo sektorea daukagu, aztertzen ari garen komunitateetatik ehunekorik txikiena suposatuz. Izan ere, lehenengo sektoreko guztizko enprekin alderatuz gero, zombiak soilik %0,22a suposatzen dute.

Horrela baliabide propioei erreparatuz gero, Katalunian bezala industria sektorea gailentze da -1.647.272€-rekin, hari oso hurbiletik jarraituz zerbitzu sektorea. Aldiz, lehen sektorea atzetik geratzen da -181.658€-rekin. Gauzak horrela azpimarratzekoa da, Andaluzian egoera kezkarriena industria sektorean kokatzen dela, baina arreta handia jartzea ere merezi du zerbitzu sektoreak. Izan ere EAEa ez bezala, bi sektoreen artean ematen den aldea oso txikia da. Gainera iparraldeko erkidego honetan ematen diren baliabide propio negatiboak askoz txikiagoak dira Andaluziakoak baino. Horri gehitu behar zaio, EAEko erkidegoan ematen den egoera desberdina dela, hala, zerbitzu sektorea agertzen da egoera larrienean eta komunitate honetan industria sektorea. Baina ikusi beharko zen Andaluziako aurreko urteetako emaitzak industria sektorean arazo kezkarriena duela egiaztatzeko.

Hori horrela, jo dezagun, zombie gehien dituzten sektoreen taldeak aztertzeraz eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatzeraz. Horretarako, 22.Taulako datuei erreparatuko diegu.

22.Taula: Andaluzian dauden enpresa zombien ratioa, sektore bakoitzean eragin handiena dutenak kontuan hartuta 2019. urtean

SEKTOREA	2019
Eraikuntzako zombiak	2742
Eraikuntzako enpresak guztira	56.664
Eraikuntzako ratioa (%)	4,84%
Manufaktura industriako zombiak	1299
Manufaktura industriako enpresak guztira	26.022
Manufaktura industriako ratioa(%)	4,99%
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen zombiak	3864
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketen enpresak guztira	134.033
Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten ratioa(%)	2,88%
Ostalaritzako zombiak	1678
Ostalaritzako enpresak guztira	48.455
Ostalaritzako ratioa(%)	3,46%
Finantza eta seguruen jardueretako zombiak	144
Finantza eta seguruen jardueretako enpresak guztira	12.768
Finantza eta seguruen jardueretako ratioa(%)	1,13%

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INE datu baseekin.

Lehenengo begirada batean, ikus daiteke, bai eraikuntzan zein manufaktura industrian aurkitzen diren ratioak oso altuak direla, azken kasu honetan ia %4,99a izanez. Gainera, bi sektore hauetako aldea ez da nabaria izan ere %0,15eko desberdintasuna baino ez dago. Argi geratzen da, pisu handia dutela bigarren sektorearen barruan. Hala adierazten baitute ondorengo ehunekoak: eraikuntza 2019. urtean bigarren sektorean dauden zombien artean %63,86a suposatzen du aldiz manufaktura industriak %30,25a.

Beraz, hori jakinda eta 22.Taulako ratioak aztertuta, EAeko komunitatearekin ematen diren desberdintasunak handiak direla esan daiteke. Aipatu bezala, 2019. urtean, erkidegoaren zombiak manufaktura industrian %3,35a suposatzen dute, Andaluziakoak baino %1,64 gutxiago. Baliteke egoera hori gertatu izana, Andaluziako industria sektorea Espainiak 2008an jasan zuen krisiaz geroztik erreperatu ez delako, eta sektore horretan berrasmatzeko beharra egotea. Iparraldeko komunitatean aldiz, industriagintzako enpresak rol garrantzitsua dute eta gobernuak gehiago bultzatzen ditu mota horretako enpresak.

Bestetik, azpimarratzekoa da ostalaritzaren zombifikazioa. Izan ere, Katalunia eta Madril bezala, ratioari erreparatuta, datu altuena du zerbitzu sektoreak %3,46arekin. Hala ere, gutzizko zombiak eta ostalaritzakoak alderatuz, azken hauek soilik %15,38 suposatzen dute. Aldiz, automobilgintza sektoreak %35,42a lortzen du. Baina, 22.Taulako datuei erreparatzen badiegu, nahiz eta honek zombie kopuru gehiago eduki, proportzionalki, zombie gutxiago ditu, hain zuzen ere %2,88. Azkenik, beste komunitateekin gertatzen zen bezala, finantza eta seguruen jardueretako zombien ratioa atzetik geratzen da %1,13arekin.

Hau guztia esanda eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuta, ikus daiteke bertako ostalaritzaren ratio automobilgintzarena baino txikiagoa dela, %2,47 eta %2,61a hain

zuzen ere. Andaluziarekin, Kataluniarekin eta Madrilekin ematen den kontrakoa, izan ere, aipatu dugunez, komunitate hauetan ostalaritza da zerbitzu sektorearen artean zombie gehien dituen. Hori esanda, azpimarratzekoa da, automobilgintza sektoreak, lotura zuzena duela dieselean ematen ari den krisiarekin eta aipatu dugunez, EAEko komunitatean pisu handia du sektore honek. Adibide bat jartzearen, Gasteizen Mercedes enpresako fabrika topatu ahal dugu, erkidegoko garrantzitsuenetarikoa. Beraz, dieselean ematen ari den krisi honek automobilgintzako sektorean sortzen ari diren zombie horietan zer ikusi handia duela esan daiteke.

Azkenik, behin datu guztiak ikusita eta analisi honekin bukatzeko, gustatuko litzaidake 2019.urteko baliabide propioak konparatzea. Badakigunez, ez da berdina (0€,-10.000€) tarteko fondo propioak edukitzea edo (-40.000€,-50.000€). Izan ere, arazoa larriagoa da azken kasu honetan. Horregatik EAEko egoera konparatzeko asmoz, Madril, Katalunia eta Andaluziako komunitateetan zombieak dituzten baliabide propioak aztertu dira.

23.Taula: Baliabide propioak 2019. urtean EAEan, Madrilen, Katalunian eta Andaluzian (%)

Baliabide propioak 2019. urtean	EAE %	Madril %	Katalunia %	Andaluzia %
(0€, -10.000€)	99,46%	99,21%	99,69%	99,76%
(-10.001€, -20.000€)	0,24%	0,13%	0,18%	0,13%
(-20.001€, -30.000€)	0,11%	0,03%	0,06%	0,03%
(-30.001€, -40.000€)	0,08%	0,01%	0,01%	0,01%
(-40.001€, -50.000€)	0,00%	0,04%	0,03%	0,04%
(-50.001€, -60.000€)	0,03%	0,01%	0,01%	0,01%
(-60.001€, -70.000€)	0,00%	0,01%	0,00%	0,01%
(-70.001€, -80.000€)	0,03%	0,02%	0,00%	0,02%
(-80.001€, -90.000€)	0,00%	0,00%	0,01%	0,00%
(-90.001€, -100.000€)	0,03%	0,00%	0,01%	0,00%
(-100.001€, >)	0,03%	0,00%	0,01%	0,00%

Iturria: Norberak eginda, SABI datu basearekin.

Beraz, 23.Taulak ikusi daitekenez, argi geratzen da zombieak diren enpresak 0 eta -10.000 eurotako fondo propioak dituztela. Hala, lau komunitateak %99 inguruko zifretan dabilzate, Madril EAEaren atzetik geratuz. Baina hurrengo tartea aztertzen badugu, ikusi daiteke iparraldeko erkidegoak presentzia handia duela, izan ere bertan kokatutako zombieen %0,24 -10.000€ eta -20.000€-tako baliabide propioak ditu. Beste erkidegoekin alderatuta, ehuneko handia dela esan daiteke. Hau zerbait positibotzat jo daiteke baliabide propio negatiboen sailkapena ikusten badugu, balore minimoetatik hurbil dagoelako. Berdina gertatuz hurrengo bi tarteekin, non EAEa lau komunitateen artean, ehuneko handienetarikoa duelarik.

Baina eman ahal den egoera larriena aztertzeko asmoz, jo dezagun ikustera zer gertatzen den azken tartean. Izan ere, Madril eta Andaluziako zombieen artean, ez dago -100.000 eurotako baliabide propioak baino gehiago dituen zombirik. Aldiz, Katalunian eta Euskal Autonomia Erkidegoan, ehuneko txikia izanda ere, kasuren bat baino gehiago ematen da. Zehazki erkidegoan enpresa zombie bakarra dago -390.873€-tako baliabide propioekin eta Katalunian bi, -2.321.098€ eta -143.423€-rekin hain zuzen ere. Antzeman daitekenez, egoera larrienean dagoen zombia Katalunian kokatzen da. Honako egoera hau ematearen arrazoia batez ere, atzetik interes ekonomikoak daudelako izan daiteke. Hala ere EAEaren kasuan Pepsico S.M., enpresa aurkitzen dugu. Internetik arakaturaz gero, albiste honekin topatzen gara: “PepsiCo multinazional iparramerikarrak, Etxabarri-

Ibiñako (Araba) lantegia nazioarteko estrategia berdearen banku proban bihurtzea erabaki du. Horretarako, 14 milioi euroko inbertsioa egitea erabaki du, % 100 birziklatutako plastikozko ontzietan botilaratzen lehena izan dadin. Batez bestekoa enpresa-mugarri bat da; izan ere, Espainia izango da erabaki horren onuradun izango den lehen merkatua, eta, horri esker, plantak karbono-aztarna % 40 murriztu ahal izango du, eta 200 enplegu zuzen eta zeharkako beste 500 bat finkatu ahal izango ditu.” (Spri, 2021).

Beraz argi geratzen da enplegu zein interes ekonomikoak daudela enpresa honen atzean eta seguruezt, Gobernuak ez ikusiarena egiten duela, etorkizun batean lortuko dituen onurak direla eta.

Azkenik, puntu hau biltzeko, ondorengo taula burutu da, komunitateen arteko konparazioaren ondorio gisa:

24.Taula: Komunitateen arteko konparazio taula 2019. urtean

2019. urtea	Euskadi	Madril	Katalunia	Andaluzia
Ratio handiena duen probintzia	Araba %3,08	Madril %4,14	Tarragona %3,06	Malaga %4,00
Ratio handiena duen sektorea	Bigarren sektorea % 3,13	Bigarren sektorea %5,93	Bigarren sektorea %3,13	Bigarren sektorea %5,02
Bigarren sektoreko ratio altuena	Manufaktura %3,35	Manufaktura %6,14	Manufaktura %3,33	Manufaktura %4,99
Hirugarren sektoreko ratio altuena	Automobilgintza %2,61	Ostalaritza %6,8	Ostalaritza %3,9	Ostalaritza %3,46
Baliabide propioak (0 €, -10.000€)	99,46%	99,21%	99,69%	99,76%
Balaibide propioak (-100.000€ , >)	0,03%	0,00%	0,01%	0,00%
Bigarren sektoreko baliabide propioak	- 340.183,29 €	- 2.966.315,25 €	- 3.391.795,85 €	- 1.647.272,41 €
Hirugarren sektoreko baliabide propioak	- 769.506,80 €	- 6.270.973,12 €	- 2.353.838,76 €	- 1.465.613,72 €

Iturria: Norberak eginda, SABI eta INE datu baseekin.

Hau esanda, jo dezagun hurrengo puntuan pandemiaren egoera aztertzeraz.

5.COVID

COVID-19ren krisiak erronka handiak dakarzkie osasun-sistemei, baina baita ere, erakunde asko egoera latzean jartzen ditu. Izan ere, sortzen ari diren arazoak ugariak dira eta sarritan ez dago aurrekaririk. Hau da, politika ekonomikoko ohiko tresnak ez dira egoera berezi honetan probatu, beraz eszenatoki ezezagun baten aurrean gaudela esan

genezake. Horri gehitu behar zaio, Euskal Autonomia Erkidegoa lehenengo komunitatea izan zela koronabirusaren eragina jasaten Estatu osoan.

Gainera, koronabirusaren krisialdian enpresek mehatxu existentzial bati aurre egin behar izan diote eta askotan negozioaren biziraupenaren alde borroka egin behar izan dute, batzuk zombietan bihurtuz. Badakigunez, ekonomia osasuntsu batean, enpresa txarrak enpresa onengatik ordezkatzeko dira. Baina, sozietate horiek mantentzen jarraitzen baditugu denbora luze batean, aurretik azaldutako prozesua ezin izango da bete eta gure ekonomia zombien izurrite bat bihurtzera bideratuko da.

Horrekin esan nahi dut, hasiera batean, uste genuela pandemia honek denbora jakin bat iraungo zuela (hilabete batzuk edo urtebete, asko jota). Orain, urtebete eta hilabete batzuk igaro ondoren, birus hori gainditzeko oraindik ibilbide luzea geratzen dela pentsatzera behartuta gaude. Baina epe horretan gobernuak beren laguntzak benetan bizirik jarrai dezaketen enpresei zuzendu beharrean, lehendik zombiak ziren edo zombie bihurtuko diren enpresak birfinantzatzera bideratzen badituzte, "zombie enpresak" izeneko birus garrantzitsuagoa izango dugu. Honek, egoera latzean utziz EAEko ekonomia eta pandemiak irauten duen heinean, enpresa horiek babesten jarraitzen badugu, egoera arriskutsu baten aurrean egongo gara.

Hori dela eta, gai hau hobeto aztertzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko aditu batzuekin harremanetan jarri naiz, ikuspuntua jakiteko eta puntu hau zein ondorengo bi puntuetako galderei erantzuna emateko.

25.Taula: Elkarrizketatu ditudan adituen profilak

Izena	Kargua	Kontaktua	Aukeratu izanaren arrazoiak
Vicente Bengoechea	Kantabriako Unibertsitateko irakaslea da, Ekonomian eta Enpresen administrazio eta zuzendaritzan lizentziatua da. Gainera, <i>European Financial Advisor</i> gisa egiaztatuta dago EFPA Espainiaren eskutik, Europa osoan finantza-aholkularitza emateko.	Apirilaren 26an	Interesgarria iruditzen zitzaidan, beste komunitate bateko aditu baten ikuspuntua jakitea. Gainera, zerbitzu sektoreari lotutako aditua da, zombiek gehien kaltetutako sektorea batik bat. Baita ere, bere ibilbide profesionala arreta deitu zitzaidan, izan ere oso osatua da, nire lanaren helburuak lortu ahal izateko.
Leire San Jose	Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle bezala jarduten du eta bere arloa, finantza arloa izan da beti baina azken urteetan ekitateko zein gizarteko ikuspegiak aztertzen ari ditu.	Apirilaren 28an	Gai honetan aditua den Euskal Herriko ekonomialaria da eta zombien inguruan, Sara Urionabarrenetxearekin eta Domingo Garciarekin batera, hainbat txosten burutu ditu. Arrazoi horiengatik, profil egokia dela uste dut.

Alvaro Larrañaga	Alinox, altzairu herdoilgaitzezko produktuak merkaturatzen dituen enpresako burua da.	Apirilaren 30ean	Bizkaian, zerbitzu sektorean, presentzia handia duen enpresa da, zehazki metal eta mineral metalikoen handizkako merkataritzan jarduten duen sozietatea da. Oso baliagarria iruditu zitzaidan sektore horretako enpresa bati pandemiak nola eragin dion jakiteko.
Carlos Pereda	Euskal Enpresa Konfederazioko (Confebask) enplegu-arduraduna da eta 23 urte daramatza enplegu eta prestakuntza gaietan lanean.	Apirilaren 30ean	Euskadiko enpresen ordezkari handiena duen enpresa erakundearen aditu bezala, Carlos pandemia honen ikuspegi orokor bat lortzeko eta sektore guztietako informazioa jakiteko profesional egokia dela uste dut.
Arantza Larrauri	Eusko Jaurlaritzako Finantza Politika saileko zuzendaria da. Nafarroako unibertsitatean Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua.	Maiatzak 14ean	Eusko Jaurlaritzako aditu baten ikuspegia lanean edukitzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan. Horregatik, Yurdana Burgoarekin kontaktuan jarri nintzen, Ogasun eta Ekonomia sailaren Kabinete eta Komunikazioko zuzendaria, eta Arantzaren kontaktua erraztu zidan. Aditu honi esker, gobernuak zombien inguruan duten iritzia jakin ahal izan dut.

Iturria: Norberak eginda

Aurkezpenak eginda eta ezeri ekin baino lehen, argi utzi nahiko nuke, aditu hauen erantzunak erabili ditudala, gaur egunean ematen ari den egoera berezi honi buruzko informazioa jakiteko eta zombiak pandemia honetan duten papera ezagutzeko. Hau, modurik egokiena iruditu zait, koronabirusak ekonomian zein gizartean izaten ari duen inpaktuari buruzko datu gutxi daudelako eta jakina, askoz gutxiago dira zombien enpresek pandemiaren aurrean duten eraginari buruzko datuak. Beraz, bost aditu hauen erantzunak koronabirusaren sarrera honetan zein hurrengo bi puntuetan agertuko dira, jarritako helburuak lortzeko asmoarekin.

Hori kontuan hartuta, jo dezagun COVID-19aren eragina aztertzerara. Argi dago egoera berezi honek, modu batera edo bestera eragiten ari diela EAEko enpresei zein aldamenean kokaturiko enpresei, hala nola Kantabriakoei. Izan ere, pandemia mundu mailako arazoa da eta Estatu guztiari kalte egin dio, era batean edo bestean. Horren adibide gisa Larrañaga, Bengoechea zein Peredaren kasuak ditugu. Izan ere, pandemiaren ondorioz, Larrañagaren enpresak, % 17an egin du behera fakturazioan, eta jarduten duen merkatuak % 35eko beherakada izan du Espainia mailan. Baina, azpimarratu beharra dago Alinox enpresak ez duela enplegu-erregulazioko espedienterik (ERTE) egin nahiz eta jarduera, ohikoa baino askoz txikiagoa izan. Horrek zerbait positibotzat jo daiteke bere langileak mantendu ahal izan dituelako, kanpoko laguntza behar izan gabe, nahiz eta pandemiaren efektuak nabaritu.

Bengoecheak aldiz, Kantabriako zerga, kontabilitate eta lan arloko aholkularitza arloan, eragin negatiboa sumatu du: “Gutxi gorabehera, bezeroen % 15ek burutzen ari zuten jarduerarekin amaitu behar izan du pandemiaren aurretik edo pandemiaren garaian; eta gutxi gorabehera % 50ek fakturazioan jaitsiera nabaria eduki dute”. Beste aldetik, Lanbide Heziketaren esparruan, lan bolumen handiagoa eduki du, izan ere, esparru

honetan langabeek birziklatzeko premia handiagoa dute eta beraz, pandemiagatik arlo hori indartuta atera dela dio.

Beraz, argi dago, mugikortasunarekin zein aurrez aurreko jarduerarekin zerikusia duen guztia, kaltetuta ikusi dela pandemia honengatik, industria sektorean kaltea pixka bat txikiagoa izanez. Horrela adierazten du Confebaskeko adituak: “Industria ez da hain kaltetua izan, gai hauekin lotura handiagoa duten sektore batzuk izan ezik, bakoitzak bere lekua duelako eta elkarlanean aritu arren distantziak eta bestelakoak daudelako.” Hala ere azpimarratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko aire industriak, oso kaltetuak atera direla pandemia honetatik. Izan ere, hegazkinek hiru hilabetez ez dute jardun eta gainera, bidaiak egiteko murrizketak egon dira. Gaur egun, horiek oraindik mantentzen ari dira batez ere Espainiatik kanpo ateratzeko, baina nazioarteko mugimendua suspertzen ari dela dirudi.

Sektore horri lotuta, erregaiaren kontua agertzen da. Izan ere, jendea mugitzen ez denez, erregai gutxiago kontsumitzen da, horrela adierazten du Peredak: “Guk dugun findegia oso garrantzitsua da Euskadin. Baita sektore energetikoko enpresa oso garrantzitsuak ere baditugu, Petronor, adibidez.” Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoa, hodian ekoizle handia dela dio, eta, jakina, erregaiak hodietatik bidalita maneiitzen direla azpimarratzen du. Horren harira, Larraurik, lehen aipatu bezala, argi uzten du pandemiak mugikortasunekin lotutako industriak, ostalaritza zein turismoa, kalte handia izan duten sektoreak direla. Beraz ikusi daitekeenez, pandemiak aire industria kaltetu izana, beste industria batzuetan kaltea sortu izan du, horrela gorpil itxurako fenomenoak sortuz eta kalteak sektore batetik bestera igaroz.

Mugikortasun murrizketak sortu dituzten ondorioak alde batera utzita, goazen aurrez aurreko jardueretan emandako kalteak aztertzea. Horretarako, San Jose zein Pereda adituen lekukoak ditugu. Izan ere, herrialdeetako merkataritzan eta aurrez aurreko merkataritzan, turismoan zein heziketan, eragina izan du. Adibidez, merkataritza txikiak, oro har, atzean geratu egin dira negozio onlinean. Aldiz, merkataritzako enpresa handiak, Peredak adierazten duen moduan, euren negozioa loratzen ikusi dute. Honek agerian uzten du, digitalizazioa puntu garrantzitsua izan dela, pandemiagatik sortutako ondorioei aurre egin ahal izateko. Beraz, batzuek erreminta egokiak izan dituzte aurrera egiteko baina, beste batzuk aldiz atzean geratu dira, horien artean txikizkako merkataritza.


Baita ere COVID-19ak, aurretik arazoak zituzten sektoreen egoera larriagotu egin duela esan daiteke. Hori adierazten baitu San Josek, izan ere, banketxeek edo instituzio finantzarioen ingurukoak, teknologiaren inguruan aurrerapauso bat eman izan behar dutelako. Baina, berak ez du uste gaur eguneko kontua dela, hau da bere ustez, ez da pandemiagatik sortu den arazoa izan baizik eta aspalditik zetorren arazoa da. Kontua da, entitate finantzario hauek, pandemiaren egoerara gehitu egin direla eta bere burua bertan islatu dutela.

Azkenik, heziketan eman den arazoa azpimarratu nahiko nuke. Hala, Confebaskeko enplegu-arduradunak esaten zuen moduan, unibertsitateetako zein ikastetxeetako prestakuntza lehen momentutik kaltetuta ikusi da eta ikasketekin aurrera egin ahal izateko, hainbat ikaslek zein irakaslek esfortzu handi bat egin behar izan dute egoera berrira moldatzeko. Gainera, hainbat kurtso zein aurrez aurreko prestakuntzak bertan behera utzi dira. Baita ere, heziketa fisikoarekin zerikusia duten jarduerak guztiak

pandemiaren eraginak nabaritu dituzte. Horrek kalte itzela suposatuz zerbitzuzko sektore hauei.

Horri lotuta, Euskadiko Ganbarak burututako inkestaren arabera, koronabirusaren krisiak arazoak sortzen ari ditu edo sortuko ditu EAeko negozio gehienetan. Hala, grafikoan ikusten den bezala, inkestatutako enpresen % 28,8ak adierazten du gaur egun jada likidezia-arazoak dituztela, eta % 46,9ak krisia igaro baino lehen likidezia-arazoak izango dituztela aurreikusten du.

8.Grafikoa: COVID-19a dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak dituzten likidezia arazoak



Iturria: Euskadiko Ganbara (2021), norberak egokituta.

Beraz ikusi daiteke nola, arazoa benetan larria dela eta honek seguruenik enpresa zombien hedapen masiboa ekarriko duela epe luzera. Izan ere, 8.grafikoan ikusten den moduan, %75,7ak likidezia arazoak ditu edo izango dituela aurreikusten du eta Larrañagaren esanetara, joera berdinarekin jarraituko dugu 2021eko urrira arte gutxienez.

Gauzak horrela eta adituak aurkeztuta, jo dezagun Euskal Autonomia Erkidegoan COVID-19ak nolako eragina izan duen aztertzeraz. Horrekin batera, pandemia honek nolako eragina izango duen zombien propagazioan eta enpresa hauek pandemiaren ondorioz gizartean izango duten eraginak aztertuko dira.

Hurrengo bi puntuetako helburuak lortzeko, elkarrizketatutako adituek emandako informazioa zein kanpoko informazio-iturriak erabiliko dira. Horrela, egitura horretatik abiatuz, ondoren agertzen diren gaiak jorratuko dira.

5.1 COVIDAK NOLA ERAGIN AHAL DUEN MOTA HONETAKO ENPRESEN PROPAGAZIOAN

Espaniako Gobernua, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren kolaborazioarekin, pandemiak eragin dituen kalteak konpontzen saiatzen ari da arazo honek eztanda egin zuenetik. International Monetary Fund (IMF) organizazioak dioenez “Enpresa-sektorearen ahultasunei heltzea funtsezkoa da Espainia COVID-19 krisitik erreperatzeko. Neurri politikoaren eragina kontuan hartuta, kalkulatu da enpresa

ahuletan, arriskuan dagoen zorraren proportzioa %37 inguru handituko dela, eta %62, berriz, neurri politikoak hartu gabe.” Beraz agerian geratzen da, arazo honi aurre egiterako orduan politikak duen garrantzia. Era berean, pista bat ematen digu, jakiteko pandemia honek nola eragin ahal duen enpresa zombien propagazioan. Izan ere, egoera ahulean dauden sozietateen zorra handituko da ehuneko garrantzitsu batean, honek zuzenean eragina izanik enpresa zombien hedapenean.

Baita ere esan beharra dago, enpresa zombiek, koronabirusa baino lehen indar handia zutela Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Izan ere hori azpimarratzen dute Larrañagak eta Kantabriako irakasleak. Hala, ez dute uste enpresa zombiak pandemiaren garaian sortu direnik, aitzitik, bideragarritasun zalantzagarrria zuten enpresak bideraezinak izatera igaro direla baizik. Izan ere, San Josek ideia hau baieztatzen du: “Egia da, batzuei benetan pandemiak eragin diela, baina beste batzuk aurretik baitzituzten arazoak eta bazeuden zombie moduko enpresa ugari hori berbizitzen ahal zuten moduan. Baina orain pandemiaren leloa batu dira eta bere burua islatu dute pandemiagatik izan dela”. Hau da, lehendik arazoak zituzten sozietateak, arazoak izaten jarraitu dute eta pandemiarekin larriagotu egin dira, azkenik zombietan bihurtuz. Horregatik, aditu hauek adierazten duten moduan, esan daiteke pandemiak ez dituela mota honetako sozietateak berez sortu, bakarrik gertatuko zen prozesua arindu egin du.

Baina, horren harira, Bengoecheak argi uzten du, ostalaritza eta aurrez aurreko zerbitzuak bezalako sektoreetan COVID-19ak eragin zuzena izan duela eta beraz mota honetako enpresen propagazioa handiagoa izango dela. Gainera, kasu honetan aditu honek uste du, bai gertatu ahal daitekeela benetan lehendik arazoak ez zituzten enpresak zombiak bihurtzea, gobernuak jarritako neurri gogorrenetarikoak sektore horri zuzenduta egon baitira.

Beraz, ikusi izan dugunez, desplazamendua eta kontaktu fisikoa eskatzen duten jarduerak gehien kaltetu direnak izan dira. Alinoxeko enpresaburuak aitortzen duenez, turismo sektorea oro har (batez ere bidaiaria-agentziak eta airelineak), jatetxeak, kultura-jarduerak edo masa ikuskizunak, beraien jardueran % 95etik % 50era jaitsiera nabaritu dute. Halaber, automobilaren sektoreak, pandemia gehien hauteman duen industria sektorea izan da, beraien salmentak %45a jaitsi dira krisialdi honetan baita 2021eko apirilean ere. Horrek beraz, hainbat enpresa aurrera ezin egin ahal izatea ekarriko du eta berarekin zombifikazioa emateko aukera handiagoa ere.

Izan ere pandemiaren momenturik gorenean, 7.671 enpresa gutxiago egotera iritsi zen Euskal Autonomia Erkidegoan. Peredak adierazten duen moduan, bat-batean, hilabete batzuetan, 7.671 enpresa erori ziren. “Egia da enpresa horiek enpresa txiki eta ertainak edo autonomoak zirela. Orain egia da 2020ko otsailean baino 1.500 enpresa gutxiago ditugula, eta horrek arazo bat suposatzen du enpresa-sarean eta enplegu-sorreran”, esan du. Hori jakinda, ikusi daiteke nolako eragina izan duen pandemiak gure gizartean, batzuk beraien jarduera bat batean etetera bultzatuz. Beraz, argi dago, COVID-19ak eragin zuzena izango duela enpresa mota hauen propagazioan ere. Nahiz eta, hainbat sozietate erori, beste batzuk, aurreko puntuan landutako datuekin ikusi dugun moduan, bere jarduerarekin jarraitu egin dute, nahiz eta egoera latzean aurkitu.

Horren harira, Larraurik azpimarratzen du, horrelako enpresen kopuruak gora egin zuela iazko urtean koronabirusaren ondorioz, eta bere ustez, kopuruak gora egiten jarraituko du, enpresen zorpetzea gero eta handiagoa delako.

Gainera, gobernuen aldetik egon diren laguntza desberdinek, zombie egoera horri eustea ahalbidetu egin du eta berarekin zombien propagazioa ematea. Egia da, arazoak zituzten enpresek diru laguntzak lortzea errazagoa izan dutela krisi honetan, horregatik Larrañagak esaten duen moduan: “Likidezia oparoa eta merkea eskuratzeak, enpresa zombie batzuen hedapenari mesede egin ahal izan dio”.

EHUko irakaslea ideia horretara gehitzen da: “Gaur egun inoiz baino zombie gehiago egongo dira, legediak baimentzen dielako hortxe egoten *stand by* batean, legez eman diegulako egoteko baimena. Baita ere, egoera pixka bat luzatzen joan gara, lehenengo martxorarte, gero ekainerarte eta orain abendurarte.”

Horri lotuta, Eusko Jaurlaritzako adituak, adierazi du garrantzitsuena horrelako enpresak identifikatzeko gai izatea dela eta laguntzak edo diru-laguntzak jasotzea saihestea, bideragarritasun-plan bat duten eta enpleguak mantendu eta sortzen dituzten enpresentzat gorde daitezten. Nahiz eta lan zaila izan, esfortzua egitea behintzat merezi du, zombien hedapena modu batean eten egin ahal izateko.

Hala ere, Larraurik gogorarazten digu pandemiak aurrekaririk gabeko shock ekonomiko globala eragin duela eta beraz, beste krisialdi batzuekin alderatuta, haren ondorioak jakitea zaila izango dela. Horregatik, abenduan zer gertatuko den ikusi beharko da, baina eszenatoki txar bat espero da, hori ezin daitekeelako luzaroan mantendu.

Hau guztia esanda, ikusi daiteke, pandemiak lagundu egin duela mota horretako enpresen propagazioan baina, kasu gehienetan, aurretik zituzten arazoak azpimarratu besterik ez ditu egin.

5.2 PANDEMIAREN ONDORIOZ ZELAKO ERAGINA IZANGO DUTE ZOMBIK GURE GIZARTEAN

Zombien propagazioa alde batera utziz, jo dezagun ikustera zelako eragina izan duten zombiek gure gizartean. Izan ere, lehen aipatu bezala, Noah Smith (2020) finantza adituak esaten duen moduan, ekonomia osasuntsu batean, egoera txarrean dauden sozietateak hiltzen dira eta beste batzuegatik ordezkutzen dira. Horrela, industria berriak sortuz eta aurretik zeudenak desagertuz. Baina, enpresa guztiak “arnasa egiteko” lagundu egiten badiogu, prozesu hori ez da aurrera eramango eta pandemiak bide hori azkartu egin du.


Egoera honetan gertatzen ari dena da, pandemia amaierarik gabeko arazo bat bezala ikusten ari garela eta horrek berarekin dakar, baliabideen esleipen txarraren kopurua etengabe handitzea, aurretik azaldutako prozesua luzatuz eta zombiak gizartean mantenduz. Gainera, badakigunez, COVID-19arengatik, enpresa mota hauei babesa emango zaie zeharkako modu batean txertoengatik ezabatzen den arte; bai aurretik zombiak zirenei zein krisi honengatik bihurtu direnei.

Gainera, Alinoxeko enpresariak azaltzen duen moduan, “Europar Batasunak eta Gobernuak ezohiko egoera horretarako sustatutako likidezia injektatzeko programek aukera eman diezaiekete zombie enpresa horiei kreditu gehiago eskuratzeko, horrela enpresa horien existentzia luzatu eta haien merkatuak luzarago aldentuz jarraituko baitute.” Ideia horretara, Bengoechea batzen da, izan ere bere ustez, pandemiaren ondorioz, udal, autonomia eta nazio esparruetako ondoz ondoko diru-laguntzen

onarpenak, zeharkako modu batean, bideragarriak ez diren enpresa batzuen bizitza luza dezakete, besteak kaltetuz eta gorpil itxurako egoera batean gizartea murgilduz.

EAEko komunitatean eman diren laguntzak hobeto ulertu ahal izateko, ikus ditzagun Euskal Ekintzailetzaren Behatokiak (EEB-OVE), Espainiako Ekintzailetzaren Behatokiaren laguntzaz, erkidegoko 300 ekintzaile baino gehiagori eginiko inkesta. Horrekin lortutako datuen bidez txosten bat burutu dute 2020.urteko apirilean. Horrela, 9.grafikoan antzeman daitekenez, %55,80a laguntza publikoa eskatu dute eta horietatik %15,60a jaso egin dute. Beraz, ikus daitekenez, Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzaileen erdia baino gehiago, hitz egiten ari garen laguntzak eskatu egin dituzte, hala nola ERTE-ak.

9.Grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak laguntza publikoak jasotzearen ehunekoa



Iturria: Norberak eginda, Euskal Ekintzailetzaren Behatokia (EEB-OVE) 2020. urtean.

Erreminta hau tresna oso baliagarria izan da, baina beste aldetik, zombiei laguntza horretaz aprobetxatzea ahalbidetu die atzeraelikadura emanaz. Pereda ERTE-en alde agertu da: “Tresna horrek erakutsi die enpresei, enpleguari eustea ahalbidetu ahal duela erabat itxi behar izan gabe, baina argi dago une bat iristen dela ezin dela egoera gehiago luzatu. Beraz, ekonomia suspertzen dugu edo honek ez du funtzionatuko”. Momentu horretan beraz, agertzen da arazoa, non zombie motako sozietateak ekonomia suspertu beharrean, diru laguntza horietaz baliatzen jarraitzen dutela, beste enpresa batzuk kaltetuz eta gure gizarte egoera latzean etengabe murgilduz, pandemia egoetatik irteten lagundu beharrean.

Gainera, krisi honekin aurreko krisiarekin gertatu ez den kontua ematen da, aurreko adituak azaldutakoaren arabera, interes tasa baxuak daude eta horrek, ahalbidetzen die enpresei zor marjina jakin bat izatea. Hau azaltzeko, Eroskiren kasua adibide moduan jartzen du, Eroskik zor handia duela esanez. Hala ere, negoziatuta daukala eta bere zorra ordainduta dagoela esaten du, aurrera eginez. “Beraz, ez dago arazorik. Hau da, zorpetuta egoteak ez du esan nahi pertsiana itxi behar duzunik”, dio. Baina, honek arazo bat dakar, izan ere, bizitzako gauza guztiak bezala, denbora mugatu bat dauka eta beraz, interes tasak berriro ere aldatuko dira, zor marjina estuagoa bihurtuz. Orduan pertsiana ireki edo ixtearen artean hautatu beharko dute.

Horren aurrean, Larraurik azpimarratzen du zombie enpresak bere finantza-gastuak mozkin operatiboekin estaltzeko gai ez direla; nahiz eta interes tasak historikoki maila baxuetan egon eta interesak ordaintzera bideratutako zenbatekoak beste garai batzuetan baino txikiagoak izan. Gainera, aditu honek esaten duen moduan, jarduten duten denbora gehigarrian, beren finantza-arazo gehienak hornitzaileei transmitituko dizkiete kreditu-arriskuaren bitartez. Horrela, lehendik aipatu dugun gurpil itxurako egoera sortuz, arazoak agente ekonomiko batetik bestera igaroz.

Beraz, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak esaten duen moduan, hain egoera negatiboak ezin du gauzak positiboak bultzatu. “Azkenean, ohitura hartzen dugu eta hori ontzat ematen dugu, hau da zombie bezala bizitzen ikasi egiten dugu eta orduan mantendu egiten ditugu ahal dugun heinean baina azkenean, ez baita izaten inorentzat positibo”, adierazten du. Gainera kontuan hartu behar da zombie enpresa hauek pandemiaren ondorioz emandako diru laguntzei esker, bere aktibitatea mantentzen dutela, baina San Josek esaten duen moduan aktibitate hori ez da benetakoa. Hau da, benetan gizartea COVID-19arekin berrogeialdian geundenean gertatu zen berdina zombiekin egiten du: “gera zaitez etxean, ez dut begiratuko, urteko kontuak negatibo edukiko dituzu eta ez dut ixtea gauzatuko” adierazten du San Josek. Horrekin lortzen dena da azkenean ikuspegi deskontrolatu eta negatibo batean murgiltzea eta Bengoecheak adierazten duen moduan, arazoa atzeratu besterik ez dugu egiten, eta bere ustez, epe luzera arazoa larriagotu.

Gainera, arazo larriena, zombie enpresekin negozioak burutzea eta beraien menpe geratzea da. Horrela azaltzen du Sarrikoko Fakultateko irakasleak, izan ere, enpresa baten jarduerarekin aurrera egin ahal izateko, normalean, hornitzaileak zein bestelako kanpoko agente ekonomikoak behar dira. Beraiekin kontaktuan jartzean ez dakigu zombiak diren ala ez, eta, etorkizun batean, ordainketetan edo bestelako kontuetan arazoak ematen hasten direnean, eragin negatiboak biderkatzen hasten dira eta beste batzuk egoera horretara bultzatzen dituzte. Planteamendu honi dagokionez eta lehen aipatu bezala, Larrauri ere ideia honen aldekoa agertzen da.

Beraz, zombien arazoa pandemiarekin gailendu egin dela argi dago eta haren efektua etorkizun hurbil batean zein den ikusi beharko dugu.

6.ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honen hasieran planteatutako helburuak jorratu direla ikusi daiteke aurretik landutako puntu ezberdinetan zehar. Horrela, enpresa zombiak zer diren eta zelako efektua sortzen duten gizartean zein sektore desberdinetan azaldu da. Horren ostean, Euskal Autonomia Erkidegoko bilakaera azken hamar urteetan, eta beste komunitate batzuekin alderaketa burutu da, hala nola Madril, Katalunia eta Andaluziarekin. Baita ere, COVID-19ak nola eragin ahal duen enpresa zombietan eta, horren ondorioz, gure gizartean aztertu da, hainbat elkarrizketen bitartez. Ibilbide hori egin ondoren, komeni da horri buruz ateratako ondorioetako batzuk nabarmentzea.

Lehenik eta behin, esparru teorikoa jorratu nahiko nuke. Izan ere, ikusi izan dugu enpresa zombie kontzeptua ulertzeko modu desberdinak daudela. Hori gertatzen da batez ere, gai berria delako, eta oraindik ezjakintasun handia dagoelako honen inguruan. Gainera, mundu mailako arazoa denez, ikuspuntu desberdinetatik aztertzei aukera handiagoa da. Hau da, ez da herri jakin batean ematen den arazoa, baizik eta herrialde gehiengoak

inbaditzen ari den kontua da, eragin handiagoa Japonia bezalako herrialdean edukiz. Horren harira, beraz esan daiteke, zombien hedapena handia izaten ari dela, baina, aldi berean, horiei buruz dagoen ezagutza oso txikia dela. Beraz, hainbat autore, kontzeptu hau kultura eta jakinduria ezberdineko munduko askotariko puntuetatik aztertzen saiatzen dira. Gauzak horrela, normala da zirrikitu horri buruz literatura argirik ez izatea, eta hainbat ikuspuntu egotea.

EAEko gizartean zombiek 2009 eta 2020 bitartean izan duten bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da 2008ko krisiak enpresa mota horien hedapenean izan duen garrantzia. Izan ere, krisi finantzarioaren momentu gailenean (2011. urtean), zombiek Bizkaiko enpresetatik %4,46a suposatzen zuten, Gipuzkoan %3,14a eta Araban %4,15a. Horrela, argi geratzen da, krisialdi finantzario batek eragin zuzena duela zombie motako enpresetan eta beraz gobernuek neurri zehatzak hartu beharko lituzkete horrelako egoeretan arazo horri aurre egiteko. Hau da, laguntza ekonomikoak eman baino lehen, zombie enpresak identifikatzen saiatu behar dira, desager daitezzen zenbait erreforma abian jarritz. Hala ere, badakigu erreformak burutzea hainbat ondorio ekonomiko eta sozialak dakartzala, alderdi politiko bat ere ez bere gain hartu nahi dituenak.

Sektoreei erreparatuz gero, agerian geratzen da bigarren sektoreak zombie gehien dituen dela. Honek arazo larria dela esan daiteke, izan ere, aipatzekoa da EAEko enpresa jardura industrian kontzentratuagoa dagoela eta pisu handia egiten duen sektorea dela. Badakigu dituen ezaugarriengatik normalean zorpetuagoa dagoen sektorea dela, baina uste dut datu kezkarria dela sektore horretan zombie ehuneko handiagoa duen komunitate gisa kokatzea, industria-potentzia bat baita. Gainera, industria sektorean zombie enpresak edukitzeak kutsadura-efektu bat sor dezake, eta zaila izango litzateke hortik irtetea. Horregatik, nire ustez, neurriak hartu beharko lirateke egoera hori gelditzeko eta ehunekoa murrizteko.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko komunitatea Madril, Katalunia eta Andaluziarekin alderatzerakoan, ikusi izan da, ratio handiena duen sektorea industria sektorea dela baina baliabide propioak aztertzerakoan, emaitza desberdinak ematen dira komunitateen artean. Gainera, aipatzekoa da, EAEn baliabide propioak sektoreka aztertzerakoan, ez direla milioi eurotara heltzen. Horrela beraz, ondoriozta daiteke zombien fakturazioa txikiagoa dela komunitate horretan eta beraz baliabide propioak ere txikiagoak direla. Hala ere, kalte handia dela azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, Siemens bezalako enpresak agertzen dira baliabide propio negatibo handiekin eta sozietate hauek pisu handia dute iparraldeko komunitate honetan, EAEko atzerapen ekonomikoa bultzatuz.

Hori esanda, ikus dateike EAEn zombiek sortzen duten arazoa handia dela eta bertako Gobernuak lehendik zombiak identifikatu gabe, beste lurralde batzuetan baino diru laguntza gehiago ematea aspektu batzuetan ez du laguntzen. Hala nola kooperatiben kasuan, iparraldeko komunitate honek laguntza nabariak ematen ditu hauek aurrera egiteko, enpresa ehunean rol garrantzitsua izanez, baita ere autonomoei laguntza handiak ematen zaizkie. Baina esan bezala, aurretik ez dute zorroztasunez enpresa hauen balantzeak aztertzen.

Horri lotuta, esan beharra dago, zombiek gizartean egotea beste batzuen artean, errentagarritasunean eta hazkunde ekonomikoan, efektu negatiboak ekartzea besterik ez

dutela egiten. Baina antzeman daiteke egoera larriagoa bihurtzen ari dela pandemiarekin. Izan ere hazkunde ekonomiko txikia ematen ari den garaian gaude eta aldi berean zombien kopuruak gora egingo duela espero da. Horri gehitu behar zaio, enpresen marjinak minimoetan egon direla, prezioen beherakadari dagokionez eta horrek produktibitatean ere eragina izan du, murrizketa handia emanez. Beraz espero diren kalteak handiak izango direlakoan nago, alde batetik zombiek berez sortutako efektu negatiboengatik eta bestetik COVID-19ak berarekin dakar kalteengatik.

Koronabirusak gizartean izango duen eraginari dagokionez, biztanleriaren artean, zalantza handia sortzen ari duen gaia da, agertoki berria baita guztientzat, baita gobernuarentzat ere. Horregatik, nahiz eta administrazioak enpleguan zein jardueran epe laburreko kalteak minimizatzeko neurri batzuk jartzeko gaitasuna izan, pandemiarekin ondorioak desberdinak izan dira sektore askotan. Horrek sektore batzuetan zombien kasu gehiago egotea ekar dezake hala nola mugikortasunarekin zein aurrez aurreko jarduerarekin zerikusia duen guztia. Adibidez, aire industriaren kasua daukagu; COVID-19aren eragina jasan duena. Honek beste industrienganako eragina du, erregai gutxiago kontsumitzen baita, EAEan eragina izanez, findegi garrantzitsua baitu. Horregatik, sektore hauetan, eta epe laburrera begira, zombie kopuru handiagoa ematea espero da.

Halaber, gaur egun, zombien hedapena espero dela argi dago, horietako askok gobernuak emandako laguntzak jaso baitituzte. Beraz, diru-laguntzak jaso izanaren efektua epe laburrean ikusi beharko da, baina birus honek gauza onik ez dakarrela aurreikusi daiteke. Gainera baliabideen esleipen txarra burutu delakoan nago. Izan ere, emandako laguntza horiek benetan behar dituzten eta ekonomian eragin positiboa duten enpresetara ez dira bideratu %100ean.

Adibidez, ERTE tresna dugu, horren bitartez, hainbat negoziok jarduerarekin jarraitu ahal izan dute, enpleguak mantenduz. Baina, aipatzen den erreminta hori beraien jarduerarekin jarraitzeko asmoa zuten enpresei bideratuta zegoen, betiere denbora mugatu eta momentu zehatz baterako. Badirudi zombiak egoera horretaz baliatu direla, arazoa larriagotuz eta, ekonomia suspertu beharrean, pandemiatik irtetzeko momentua luzatuz.

Horrela, hainbat zombie pandemiaren lelora batu egin dira, beste enpresen artean eskuztatuz. Horrekin lortu dena da, benetan behar dutenei laguntzak kentzea eta beste batzuk zombie bihurtzea, propagazio handiagoa emanez. Gainera, kontuan hartu behar dugu zombie hauek beste kanpoko agente ekonomiko batzuekin jarduerak burutzen jarraitu dutela, eragin negatiboak biderkatuz eta enpresa osasuntsu batzuk egoera horretara bultzatuz.

Argi dago arazoa inoiz baino errealagoa dela, eta egoerak jarraituz gero, neurriren bat hartu behar ote delakoan nago. Izan ere, ez dira soilik Euskal Autonomia Erkidegoaren edo Espainia osoaren arazoa; aztertutako datu eta teoriak adierazten duten bezala, nazioarte mailako arazoa baizik.

Hau esan eta gero, ondorioen artean azpimarratu nahiko nuke zombien gizartean hainbeste ez eragiteko proposatutako irtenbide batzuk: Lehenengo, zombie enpresei laguntzak eman aurretik, azken urteetako egoeraren azterketa sakona egitea gomendatzen dut. Adibidez, lan honetan burutu den bezala, ideia ona izango litzateke azken urteetako fondo propio negatiboak ikustea eta ondoren kontrol sistema bat ezartzea bere eboluzioa ikusteko. Bestalde, Jaurlaritzak zor guztiak aitortzen ez dituzten enpresekin irmo jardutea

proposatuko luke. Bestela, balantzeen azterketa errealista ezin izango da aurrera eraman, eta zombiak agertzea errazten duten egoerak sor daitezke.

Azkenik, baina aurreko neurriak bezain garrantzitsua, San Joserekin egindako elkarrizketan aipatutako ideia, ona dela esatea gustatuko litzaidake. Izan ere nire ustez, unibertsitatean gehienbat sozietateak nola sortzen diren erakutsi digute eta horrekin proiektuak aurrera egingo duela pentsatzen. Baina interesgarria litzateke, halaber, enpresa ixteko edo konkurtsoan sartzeko plan bat antolatzea irizpide jakin batzuk ematen direnean. Horrela saihestuko genuke zombie bihurtzea eta beste batzuk kutsatzea.

Aurreko guztia esanda, zombie enpresak murriztu ahal izateko, gobernuek eta enpresek beraiek hartutako erabakiak aztertu eta aldatu behar dituzte. Hau da, barneko eta kanpoko aldaketa bat egon behar da, zeresan handia emango duen arazo hau konpondu ahal izateko, eta, are gehiago, inbaditu gaituen birus honen ondoren.

Etorkizuneko ikerketa lerro gisa, alde batetik, pandemiak ekarriko dituen ondorioak zehatzago aztertzea proposatuko nuke. Izan ere, urte batzuk barru, datu zehatzak emango dira, egoera horrek zombie enpresetan izan duen eragina ezagutzea ahalbidetuko duena. Baita koronabirusak zombiei benetan mesede egin dienaren analisia interesgarria ere izango litzateke.

Bestalde, azpimarratzekoa da gero eta nazioartekotze handiagoa ematen ari den mundu batean gaudela eta, beraz, herrialde desberdinetako ekonomien arteko lotura gero eta handiagoa dela. Guzti hori esanda, Euskal Autonomia Erkidegotik gertuko ekonomiek eta horiek zombie sozietateei nola eragiten dieten ikustea interesgarria izango litzateke.

7. BIBLIOGRAFIA

Acharya, V. V., Eisert, T., Eufinger, C., & Hirsch, C. (2019). Whatever it takes: The real effects of unconventional monetary policy. *The Review of Financial Studies*, 32(9), 3366-3411.

Adalet McGowan M., Andrews D. eta Millot V. (2017). The walking dead? Zombie firms and productivity performance in OECD countries. *OECD Economics Department Working Papers*, nº 1372

Agencia EFE (2014). Las manufacturas son el sector industrial más afectado por la crisis, dice CE. *El Diario*. https://www.eldiario.es/economia/manufacturas-industrial-afectado-crisis-ce_1_5019507.html

Agostino, M., Silipo, D. B., & Trivieri, F. (2008). The effects of screening and monitoring on credit rationing of SMEs. *Economic notes*, 37(2), 155-179.

Ahearne, A. G., eta Shinada, N. (2005). Zombie firms and economic stagnation in Japan. *International Economics and Economic Policy*, 2(4), 363-381.

Alegret, X. (2017). Trump reduce a la mitad el gigante Siemens Gamesa. *Economía Digital*. https://www.economiadigital.es/empresas/trump-reduce-a-la-mitad-el-gigante-siemens-gamesa_515088_102.html

Álvarez, Y. (2020). “¿Qué es una empresa zombi y cuántas hay en España?”. *El Salto Diario*. <https://www.elsaltodiario.com/deuda/que-es-empresa-zombi-vulnerable-cuantas-hay-en-espana>

Analistas Económicos de Andalucía. (2020). *Análisis económico- financiero de la empresa andaluza*. <https://www.analistaseconomicos.com/system/files/CBA%202020.pdf>

Hostelería de España. (2019). *Anuario de la Hostelería en España*. <https://hosfrinor.com/wp-content/uploads/2019/12/Anuario-de-la-Hosteleri%CC%81a-de-Espan%CC%83a-2019.pdf>

Arregui N., Liu L. eta Oman W. (2020). Five Charts on Spain’s Economy and Response to COVID-19. *IMF, European Department*. <https://www.imf.org/en/News/Articles/2020/11/12/na111320-five-charts-on-spains-economy-and-response-to-covid-19>

Asobancaria. (2020). *Empresas zombis: reflexiones a la luz de las medidas implementadas por el COVID-19*. <https://www.asobancaria.com/wp-content/uploads/2020/07/1240VF.pdf>

Banerjee, R eta Hofmann, B. (2018). The rise of zombie firms: causes and consequences. *Bank for International Settlements*.

Becedas, M. (2021). España tiene 40.000 empresas «zombis»: ¿Cómo son y en qué sectores y territorios se concentran?. *El Economista*. <https://www.eleconomista.es/empresas-finanzas/noticias/11142805/04/21/Espana-tiene-40000-empresas-zombis-Como-son-y-en-que-sectores-y-territorios-se-concentran.html>

Bermudez A. (2020). Caída del precio del petróleo: 3 razones por las que el crudo estadounidense WTI se vendió a precio negativo y cómo afecta a América Latina. *BBC News Mundo* <https://www.bbc.com/mundo/noticias-52362340>

Bilbao, A. X. (2021). El sector del automóvil vasco se planta. *Deia*. <https://www.deia.eus/economia/2021/02/18/sector-automovil-vascoplanta/1100098.html>

Blažková, I., eta Dvouletý, O. (2020). “Zombies: Who are they and how do firms become zombies?”. *Journal of Small Business Management*, 1-27.

Burachik, G. (2017). Empresas zombie y crisis mundial. *Cuadernos de Economía Crítica*, (7), 131-156.

Caballero, R., Hoshi, T. y Kashyap, A.K. (2008). Zombie Lending and Depressed Restructuring in Japan. *American Economic Review*, vol. 98, nº 5

Corbetta, P. (2007). Métodos y técnicas de investigación social. *McGraw-Hill*.

Corporate Finance Institute. (2020). *Interest Coverage Ratio*. <https://corporatefinanceinstitute.com/resources/knowledge/finance/interest-coverage-ratio/>

Eurostat. (2019). *Economic recovery of EU regions after 2008*. <https://ec.europa.eu/eurostat/web/products-eurostat-news/-/DDN-20191023-1>

Euskal Ekintzailtzaren Behatokia (EEB-OVE). (2020). *Euskadiko ekintzailtzaren egoera COVID-19aren krisialdiaren aurrean. Análisi eta gomendioak*. <https://eeb-ove.eus/wp-content/uploads/2020/07/EEB-OVE-Ekintzailtza-eta-COVID19-Euskadin.pdf>

Eusko Ganberak. (2020, apirilak). *Impacto económico del COVID-19 a las empresas vascas*. http://www.camaradealava.com/datos/paginas_documentos/archivo507/Impacto%20economico%20COVID-19%20en%20las%20empresas%20de%20Euskadi%20-%20Informe%20abril%202020.pdf

Eustat. Euskal Estatistika Erakundea.(2009-2020). <https://eu.eustat.eus/>

Fernandez, M. (2020). Una economía plagada de zombis. *EL PAÍS*. <https://elpais.com/economia/2020-10-17/una-economia-plagada-de-zombis.html>

Fortuño, M. (2019ko abenduaren 25a). *Empresas zombies y el peligro de la política monetaria más laxa jamás vivida*. <https://www.elblogsalmon.com/empresas/empresas-zombies-peligro-politica-monetaria-laxa-jamas-vivida>

Fukuda eta Nakamura. (2010). Why Did “Zombie” Firms Recover in Japan?. *CIRJE Discussion Papers*.

Gil de San Vicente I., Aranguren M., Briggs M., Carrillo F., Estensoro M., Murciego A., Retegi J. eta Vázquez R. (2020). Posición de partida de las empresas en Euskadi ante el COVID-19: Análisis de su situación financiera. *Orkestra-Instituto Vasco de Competitividad y Deusto Business School*.

Hallak I. Péter H. eta Sebastian S. (2018). Fear the Walking Dead? Incidence and Effects of Zombie Firms in Europe. *Publications Office of the European Union, Luxembourg*.

Hodhod A., Hommes C., J. Huber S. eta Salle I. (2020, abenduak 21). Avoiding zombification after the COVID-19 consumption game-changer. *VOX, CEPR Policy Portal*. <https://voxeu.org/article/avoiding-zombification-after-covid-19-consumption-game-changer>

Hoshi T. y Kashyap A.K. (2011). Why Did Japan Stop Growing?. *National Institute for Research Advancement*.

Hoshi, T. (2006). Economics of the living dead. *The Japanese Economic Review*, 57(1), 30-49.

Iberinform. (2020). La pandemia duplicará el número de empresas zombies en España. <https://www.iberinform.es/Iberinform/es/actualidad/noticias/detalle/la-pandemia-duplicara-el-numero-de-empresas-zombis-en-espana>

INE. *Instituto Nacional de Estadística*. (2019). <https://www.ine.es>

Informa D&B. (2021). *Las empresas zombies en España*. https://cdn.informa.es/sites/5c1a2fd74c7cb3612da076ea/content_entry5c5021510fa1c000c25b51f0/606c17019a9e3d00b1ca2e71/files/Empresas_zombis_v2.pdf?1617696513.

Kane, E. J. (2000). The dialectical role of information and disinformation in regulation-induced banking crises. *Pacific-Basin Finance Journal*, 8(3-4), 285-308.

Kuttner, K. (2014). Monetary Policy during Japan's Great Recession: From Self-Induced Paralysis to Rooseveltian Resolve. *Peterson Institute for International Economics*, nº 14-4.

Maqueda, A. (2019). Las empresas zombis caen a la mitad en España con la recuperación. *EL PAÍS*. https://elpais.com/economia/2019/12/04/actualidad/1575491937_725949.html

Maudos Villarroya, J. y Fernández de Guevara Radoselovics, J. (2014). Endeudamiento de las empresas españolas en el contexto europeo. El impacto de la crisis. *Fundación BBVA*

McGowan, M. A., Andrews, D., eta Millot, V. (2017). Insolvency regimes, zombie firms and capital reallocation.

Miret, S. (2014). Las grandes empresas facturan en Madrid más del doble que en Cataluña, según un estudio. *20 minutos*. <https://www.20minutos.es/noticia/2291812/0/estudio-grandes-empresas/madrid-barcelona/concentracion-facturacion/>

Papworth, T. (2013). The Trading Dead: The zombie firms plaguing Britain's economy, and what to do about them. *Adam Smith Research Trust, England*.

Pérez, R. (2019). La industria española ha perdido más de 1.100 empresas en un año. *ABC*. https://www.abc.es/economia/abci-industria-espanola-perdido-mas-1100-empresas-201910280254_noticia.html

Plaza, R. eta Zabaleta, A. (2020). Donostia perdió 45 pequeños comercios en 2019, la mitad de ellos en el Centro. *Noticias de Gipuzkoa*. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/donostia/2020/11/06/donostia-perdio-45-pequenos-comercios/1066348.html>

Roberts, M. (2017). *Cuidado con las empresas zombis*. <https://www.elviejotopo.com/topoexpress/cuidado-con-las-empresas-zombis/>

Rodríguez-Rata, A. (2018). Las “empresas zombis” abundan y aún pueden morderte. *La Vanguardia*. <https://www.lavanguardia.com/economia/20180319/441562481327/gps-empresas-zombis-abundan-pueden-morderte.html>

SABI (2020). *Iberiar Balantzeen Analisisirako Sistema*. EHU-UPV

San Vicente, I. (2020). ¿Qué hacemos con las empresas zombi? *Noticias de Gipuzkoa*. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/economia/2019/03/24/empresaszombi/604464.html>

San-Jose, L., Urionabarrenetxea, S., eta García-Merino, J. D. (2021). Zombie firms and corporate governance: What room for maneuver do companies have to avoid becoming zombies?. *Review of Managerial Science*, 1-28.

Smith, N. (2020). If Zombie Companies Don't Die, We'll Pay a Price. *Bloomberg*. <https://www.bloombergquint.com/gadfly/zombie-companies-feasting-on-coronavirus-relief-funds-hurt-growth>

Stocker M, Baffes J. eta Vorisek D. (2018). *En ocho gráficos: las causas de la caída del precio del petróleo en 2014–16 y los motivos por los que esta no logró impulsar la economía*. <https://blogs.worldbank.org/es/voices/en-ocho-graficos-las-causas-de-la-caida-del-precio-del-petroleo-en-2014-16>

Uriona, A. (2021) *PepsiCo elige la planta de Etxabarri-Ibiña como banco de pruebas de su estrategia 'verde'*. <https://www.spri.eus/es/innovacion-comunicacion/pepsico-elige-la-planta-de-etxabarri-ibina-como-banco-de-pruebas-de-su-estrategia-verde>

Urionabarrenetxea, S., Garcia-Merino, J. D., San-Jose, L., eta Retolaza, J. L. (2017). Living with zombie companies: Do we know where the threat lies?. *European Management Journal*

Urionabarrenetxea, S., San-Jose, L., & Retolaza, J. L. (2016). Negative equity companies in Europe: theory and evidence. *Business: Theory and Practice*, 17(4), 307-316.

Yasuo Goto, Scott Wilbur (2019). Unfinished business: Zombie firms among SME in Japan's lost decades. *Japan and the World Economy*, Volume 49, Pages 105-112, <https://doi.org/10.1016/j.japwor.2018.09.007>

Zoller-Rydzek, B., & Keller, F. (2020). COVID-19: guaranteed loans and zombie firms. *CESifo Economic Studies*, 66(4), 322-364.

8. ERANSKINAK

1. Vicente Bengoechea

Aurkezpena: Kantabriako Unibertsitateko irakaslea da, ADE eta Ekonomian lizentziatutako aditua eta gainera European Financial Advisor gisa egiaztatuta dago, EFPA Espainiaren eskutik, Europa osoan finantza-aholkularitza emateko.

1. Zein enpresa edo sektore mota izango dira pandemiak gehien kaltetuko dituenak? Ze eragin izango du hazkundean eta errentagarritasunean?

Pandemiak gehien kaltetuko dituen sektoreak zehaztasunez zehaztea zaila da oraindik. Hala ere, badirudi egoera hori gehien jasango dutenak aurrez aurreko tratua behar dutenak direla; hau da, kostuan areagotu gabe jardueraren zati bat modu telematikoan egiteko aukerarik ez duten sektoreak. Jakina, puntu honetan salbuespen bat egongo litzateke: osasunarekin eta zaurgarrienen arreta pertsonalarekin lotutako jarduerak. Bestalde, beste jarduera batzuk sustatuko dira eta baita ere, gaur egun ezagutzen ez ditugun beste batzuk agertuko dira. IKTEkin lotutako jarduerak gero eta garrantzi handiagoa izango dute ekonomian.

2. COVID-19ak nola eragin dio zure enpresari?

Nire jarduerari dagokionez, bakoitzaren eragina bereizi behar dut.

-Zerga, kontabilitate eta lan arloko aholkularitzari dagokionez, eragin negatiboa sumatu dut. Gutxi gorabehera, bezeroen % 15ek burutzen ari zuten jarduerarekin amaitu behar izan du pandemiaren aurretik edo pandemiaren garaian; eta gutxi gorabehera % 50ek fakturazioan jaitsiera nabaria eduki dute.

-Prestakuntzaren esparruan, eta, zehazkiago, Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruan, langabeek birziklatzeko premia handiagoa dute. Horregatik, esparru horretan lan-bolumena handiagoa izaten ari da.

3. Zergatik eragin dezake pandemiak enpresa zombiei?

Pandemiak bi modutara eragin diezaike, batez ere, "enpresa zombiak" ezagututako sozietateei. Alde batetik, pandemiak eta udal-, autonomia- eta nazio-esparruetako ondoz ondoko diru-laguntzen onarpenak, bideragarriak ez diren enpresa batzuen bizitza luza dezakete. Horrek, arazoa atzeratu besterik ez du egiten, eta, nire ustez, epe luzera arazoa larriagotu. Bestalde, kasu gehienetan gertatzen ez dela dirudien arren, egoera horrek negozio-formula alternatiboak

bilatzera bultza ditzake enpresariak, birmoldatuz. Nire ustez, pandemiak gehien zigortutako negozioetarako, jarrerarik burutsuena eta egokiena da.

4. Zure ustez, nola eragin du koronabirusak enpresa zombien sorreran eta hedapenean?

Ostalaritza eta % 100 aurrez aurreko zerbitzuak bezalako sektoreetan izan ezik, Pandemiaren egoera, negozio batzuen gainbehera bizkortu baino ez du egin, lehendik arazoak zituztenei hala nola.

5. Zer nolako eragina izango dute zombiek gure sozietatean? Hala nola enpleguan, produktibitatea, beste enpresa batzuk sortzerakoan....

Enpleguan, digitalizazioak behartuta, lan tradizionalak suntsitu eta suntsituko dira. Horren ondorioz, berriak agertuko dira. Produktibitateari dagokionez, paradoxikoki, telelanaren ezarpenak produktibitatea murriztuko du oro har. Etxetik lan egiteak etenak jasateko arriskua handiagoa izatea dakar, eta, ondorioz, ez hain produktiboak izatea. Izan ere, duela urte eta erdi proiektio handirik ez zuten jardueretan enpresa berriak sortzen ari dira. Adibidez, musuko edo gel hidroalkoholikoa ekoizten dituzten enpresen kasua da.

6. Euskadi, zombie enpresek gehien kaltetutako autonomia erkidegoen artean egongo da dago. Izan ere, Iberinformen estimazioaren arabera Estatu mailan egindako klasifikazioan, Euskadi, 5.postuan kokatzen da %18,5arekin. Gainera, 6/05/2021ean Informa D&B egindako azterketan ikusi daiteke nola proportzioan dagozkionak baino zombi enpresa gehiago hartzen dituela Euskadik. Zehazki, 2.274 dira, guztizkoaren %5,75. Ehuneko horrek puntu batean gaintitzen du merkataritza-sozietateen kopuruagatik legokiokiena. Uste duzu ezaugarri bereizgarri batzuenatik dela? Zeintzuk?

Kantabrian gertatzen dena hobeto ezagutzen dut. Hala ere, distantziatik eta zuhurtziazik begiratuta, ikusten dut Euskadik esposizio handiagoa duela zombie enpresen etorreraren aurrean, hazteko aukera potentzialki handiagoa delako; eta horrek berekin dakar ekintzailertzan, porrot-tasa handiagoa egotea (proiektu gehiago iristen dira, eta, nahitaez, arrakastaren ehuneko murriztu egiten da). Horrek azal lezake zombi enpresa gehiago egotea.

7. Zein da, zure ustez, enpresa zombiak hainbeste ez eragiteko irtenbidea? Nola ikusten duzu egoera epe luzera?

Zaila da irtenbide bat aurkitzea. Eta, gainera, edozein hautabidek epe motzera kostu politikoa du, edozein administraziok bere gain hartu ezin dezakeena. Zombie enpresarik ez egoteko, automatikoki ezabatu beharko litzateke dirulaguntza programa oro. Horrela, bideraezinak diren enpresak desagertu egingo lirarteke. Baina, jakina, hori moralki onartezina da, milioika pertsona lan-merkatutik modu malkartsuan kanporatzea ekarriko bailuke. Administrazioarentzat oso garestia izango litzateke, eta traumatikoa langileentzat eta familientzat.

Epe luzera ikusten dut sektore askotan berrasmatu behar izango dugula. Pandemiaren aurretik ere ikusten zen egoera da; Txina eta Estatu Batuak Europaren aurretik daude arlo teknologikoan. Hamarkada honetan geure burua berrasmatzeko gai ez bagara, ziurrenik geldialdi ekonomikoko egoera batera iritsiko gara, Japonia XX. mendeko 90eko hamarkadatik jasaten ari denaren oso antzekoa. Europa osoa zombie ekonomikoa izango da, erreakzionatzen ez badugu.

8. Zer eginkizun dute gobernuek egungo egoerarekin? Adibidez uste duzu egoera sanitarioa gestionatzen ari direla, ekonomikoa ahalik eta gutxien kaltetuz?

Zalantzarik gabe, aparteko egoera da, larritasun oso berezia duena. Jakina, kudeaketa oso zaila zen eta da. Hala ere, uste dut European, oro har, arazo gehigarri bat izan dugula. Izan ere, administrazio-izapideak oso motelak dira, eta, beraz, herritarren txertaketa nahi baino motelagoa izaten ari da. Horri txerto batzuen segurtasunari buruzko informazio kontraerriak gehitzen badizkiogu, ziurgabetasuna are handiagoa da.

Espainiaren kasuan, gainera, bi oztopo gehigarri pairatzen ari gara. Alde batetik, interes politikoengatik administrazioen arteko koordinaziorik eza, herritarren interes ekonomiko eta sanitarioa bigarren mailan utzita; eta, bestetik, sinesgarritasunik eza, erregulazioa okerra izan baita, eta, kasu askotan, segurtasunik ezaren eta funtsik ezaren irudia eman baitu. Horrek guztiak ziurgabetasuna sortzen du, eta ziurgabetasunak mesfidantza dakar. Ez dago ezer kaltegarriagorik edozein sistema ekonomikorentzat segurtasunik eza baino.

9. Pandemiari buruz hartzen diren erabakietan interes batzuk lehenesten dira? Hau da interes ekonomikoak sanitarioetatik lehenesten dira? Edo alderantziz?

Tamalez, eta aurreko galderan adierazi bezala, interes politikoak eta estrategikoak dira nagusi. Nire ikuspuntuaren arabera. Uste dut ez dela beharrezkoa interes ekonomiko edo sanitarioen artean aukeratzea; biak bateragarriak dira eta oreka bilatu behar dugu. Jakina, osasuna zaindu behar dugula, batez ere zaugarrienena. Baina, kalitatezko osasun-sistema izateko eta ekipamendu egokia izateko, ekonomiaren zatirik handienaren funtzionamenduari eutsi behar diogu. Horrela, administrazioek baliabideak izango dituzte gero, gure osasun-sistema mantentzeko eta hobetzeko.

2. Leire San Jose

Aurkezpena: Leire San Jose naiz, fakultateko irakaslea orain dela 20 urte, Ingalaterran egon nintzen urte bat, Visiting Research Fellow at University of Huddersfield (UK), jarraitzen dut oraindik haiekin erlazioa izaten. Nire area finantza arloa izan da beti baina azken urteetan beti egin ditugu gauzak etikako ikuspegia edo gizarte ikuspegia, balore sozialeko lanak eta beste ikuspegi batzuk ikusten edo aztertzen.

1. Zein enpresa edo sektore mota uste duzu izango direla pandemiak gehien kaltetuko dituenak?

Gaur egun ikusten ditugu iada, datuak ezta? Eta zerbitzuko guztiak eta turismo aldetik, badakigu, edo garraio bide luzeak hala nola hegazkinak... ba badakigunez bebai. Eta gero, aurretik zetozen sektoreak, banketxeak dira edo instituzio finantzarioen ingurukoak, horiek azkenean kaltetu izan dira, teknologia berriek azkenean aurrera pauso bat ematen dauzelako. Baina nik uste dut hori ez dela gaur eguneko kontua, hegazkinen kontua bai da pandemiaren ingurukoa baina finantza erakundeek zeukaten arazoa aspaldikoa da. 2008ko krisia hasi eta gero sukurtsaletan oinarrituta zegoen eta diruaren balioan. Orduan eredu dena aldatzen joan da azkenengo urteetatik.

Kontua da orain pandemiarekin, pixka bat gehitu direla egoerara eta orduan kaleratuko dituzte pilo bat. Baina nik 2015 urtean, Whashingtonen egon nintzen eta bertan egon ziren erakunde finantzario batzuetako zuzendariak bazekiten finantza mundu hori bukatutzat eman behar zutela. Orduan izan zen kurioso ze momentu horretan eskatu zutena izan zen denbora eta azkenean egun batetik bestera horrelako sistemak dituzten antolakuntzan ezin ditugu aldatu. Hau da, oso finkatuta dauzenak eta dituzun zelako baliabide finkoak urte batetik bestera ezin dozu gastu finkoak murriztu eta orduan denbora behar izan zuten. Baina gaur egun dirudienez heldu egin da eta azelerazio handia eman dio pandemiaren kontua. Baina egoera aspalditik zetorrela ikusi daiteke.

Ze eragin izango du pandemiak hazkundera eta errentagarritasunean?

Hazkundera uste dut, garapen jasangarritasuneko helburuak badago zortzigarren bat, hazkundera mantendu egin behar dela %7an baita ere garatzen ari diren herrialdeetan. Hau da hazkunde hori eman behar dela. Egia da, nik beti planteatzen dut, zergatik hazkundera daukan ekonomia batean murgildu behar garen eta hemen arazo nagusia da hazkunderaren aldagai garrantzitsua izaten dela BGP-a horretan. Orduan ez dakit zergatik hazkundera oinarritzen garen soilik, beste zenbati aldagaiei erreparatu gabe. Gaur egun askotan hitz egiten dugu ekonomia zirkularrari buruz, eta badirudi ekonomia zirkularra ez duela suposatzen hainbesteko hazkundera, baina bai ekonomia jasangarri bat. Orduan, hazkunderaren kontu horri ezin diot erantzuna eman baina behintzat zalantza bai ematen dit hazkundera.

Gero, errentagarritasun ekonomikoaren inguruan, ikusten gabilta orokorrean errentagarritasuna gero eta txikiagoa dela eta azkenaldian inbertsioak gero eta gehiago dira, nahiz eta oraindik ehunekoa txikia izan, baina gero eta gehiago nahi ditugu inbertsio jasangarriak. Atzo justu egon nintzen entzuten Repsoleko fundazioan egin duten *Open Value*, beraiek bazuten argi gaur eguneko kontua ez dela bakarrik errentagarritasun ekonomikoa baizik eta sozial zein ingurugirokoa. Eta zelan hiru horien artean, zelako eragina duten inbertsioetan. Nik uste dut hori aldatzen ari dela. Baina kuriosoa izaten da ze nik askotan, nire sententzia da kalean gero eta gehiago badagoela bereganatuta, inbertsoreek badirudi gero eta gehiago aztertzen dutela aldagai horiek.

Baina pandemiak bultzada izugarria eman dio, izan ere denok gaudelako etxean eta maximoetan edo muturreko egoeretan jartzen gaituztenean bat batean

arduratzen gara aurretik pentsatu ez genituen gauzetaz. Beraz berriro ere, pandemiak bultzada handia eman dio guzti horri eta ardura daukagu horren inguruan.

Baina kuriooa da, eta hori nebilen esaten, zelan errealitatean ikusten dudala ardura hori baina ero galdetzen diet ikasleei eta beraiek esaten didate (bigarren mailako ikasleak), garrantzitsuena alde ekonomikoa dela eta gero besteak.

Baina gero bazoaz eta entzuten dituzu, zuzendari nagusiak edo fundazioak, benetan bultzada ematen diotenak ekonomiari, eta horiek ez daude hain arduratuta “bueno ekonomiako kontuak ez dira hain garrantzitsuak, edo behintzat parekatu behar ditugu beste errentagarritasun ekonomiko batzuk”, diote. Orduan bueno kurioso da, nire ikasleen %50a esaten dutela errentagarritasun ekonomikoa bai dela lehenengoa eta gainera beste batzuk esaten dute hori dela bakarra. Beraz ikusten da nola ez gatozen bat enpresa eta unibertsitateko ikasleak nahiz eta unibertsitatea horrelako leloak eduki, eta azaltzen ditugu baina ikuspuntu hori daukate

2. Zergatik eragin dezake pandemiak enpresa zombiei?

Nik uste dut alde batetik kurioso, zeren nik uste dut gaur egun inoiz baino gehiago egongo direla, dagoen legedia baimentzen diolako hortze egoten *stand by* batean. Hau da, es dute ezertan itxi behar, hau da legez eman diegu horrelako egoteko baimena bat. Gainera, joan gara pixka bat luzatzen, lehenengo uste dut zela martxorarte, gero ekainerarte eta orain abendurarte. Ikusiko dugun ea abenduan zer datorren... Baina bat batean jauziko dira horiek guztiak? Judizialki ere ba litigioak baldin badaude eta ez dakit zelako desastrea izango den eta bestela ba ez dakit. Egia dela gainera, lehen esan bezala, batzuk izan direla pandemiak benetan eragin egin dielako eta beste batzuk aurretik bazituzten arazoak eta bazeuden zombie moduko enpresa ugari hor berbizitzen ahal zuten moduan baina orain pandemiaren leloro edo hartu dute bere burua eta islatu dute bere burua pandemiagatik izan dela. Orduan ez dakigu zelako abantailak eta intentzioak izango dituzte, baina bueno printzipioz aurreikuspena oso txarra ikusten dut alde horretatik.

Kontua da, bultzatu beharrean horiek ixten et pixka bat gauza normala bezala ikusi behar dugu. Ezin daitekeena da, enpresak egin baina momentu batean aldagai batzuegatik itxi egin behar ditugunean, ez dugu ondo ikusten. Orduan egiten duguna da nola sozialki eta kulturalki txarto dagoenez enpresa bat ixtea, ba ahal dugun bezala, mantendu egiten dugu eta laguntzak ematen dizkiegu, suspertzen ditugu etab. nahiz eta urteko kontuak desfasetuta egon edo errentagarritasunik ez eduki, dana mantentzen jarraitzen dugu eta ez dugu gauzatzen legerian agertzen dena.

Baina, horrelako enpresarik ez luke egon behar, eta pandemiagatik igo egin dira baina ez dakigu abenduan zer gertatuko den, nire susmoa da nahiz eta itxi egin behar dituzte, seguruenik hortze mantenduko direla.

Batzuekin hitz egiten, esaten zidaten oso sufrimendu handia denez ixtea, egingo dutena da, ia beraiek bakarrik hiltzen diren, pandemiarekin pixka bat hori egin da. Hau da, gogoratu, zelan pandemiaren momentu horretan, zelan iruditzen zuen etxean geratu zaitez hil zaitez bakarrik eta ez etorri ospitalera. Hori berdina gertatzen da enpresekin, hil zaitez hortze zu bakarrik eta ez molestatu zeren guk

kristona daukagu hor beste hainbat kontuekin eta orduan ia desagertuko zara berez arazorik eman gabe. Beraz horrelakoak edukiko ditugu, eta horren arazoa da ez direla kontrolatzen ondo. Orduan ikusiko dugu ea zer gertatzen den.

3. Zer nolako eragina izango dute zombiek gure sozietatean? Hala nola enpleguan, produktibitatean, beste enpresa batzuk sortzerakoan....

Ni beti pentsatzen dut horrelako egoera negatiboak ezin dutela gauza positiboak bultzatu. Azkenean, ohitura hartzen dugu eta hori ontzat ematen dugu, hau da zombie bezala bizitzen ikasi egiten dugu eta orduan mantendu egiten dugu ahal dugun heinean baina azkenena, ba ez da izaten inorentzat positibo. Azkenean zuk pentsatu, hornitzaile berri bat bazara eta joaten bazara enpresa batengana, zuk ez dakizu enpresa zombie bat baden baina kontratatzen dizu eta ez dizu ordaintzen behar duena. Hau da, beti normalean eragin negatiboak biderkatu egiten ditu eta beste batzuk bultzadatu egiten dituzte. Agian, enpresa ez zombie bateri salduta ba ondo joango zitzaion ekonomikoki baina noski, azkenean enpresa zombie batera saldu diozu eta orduan bultzatzen dizu gero etorkizun batean horren menpe geratzera, kontratu batzuk dituzulako eta kontratuak ere bai i xten saiatzea zaila da enpresentzat.

Orduan, langilego horrekin berdina, adibidez, imajinatu TFGa bukatuta, enpresa batean sartzen zarela eta ez dakizu zombia baden edo ez, edo zombie izango baden. Baina zuk apustu egin dozu, zuk azkenean, zure jakintza guztia ematen diozu.

